



"Euskara samurrago eta erakargarriago egin behar da"

Paulo Agirrebaltzategi  
Ohorezko euskaltzaina | 7



Eskoriatzako Arana kalea, oinezkoendako

Ekaina ezkerororabide bakarra dauka | 18

ANDRAMAIXAK 2014  
Aretxabaleta eta Gatzaga | 20 eta 26



Askotariko kontzertu lasaiak  
Kulturate Akustikoetan | 30



Oñatiko Antixeneko gaztetxea,  
hirugarren urteari ekiteko gertu | 29

## JOKIN ETXANIZ, HAMARKADA BAT ASPEKO PILOTARIEKIN LANEAN

"Retegi da txapel gehien dituen, baina niretako lrujo modukorik ez da egon" | 32

Jokin Etxaniz,  
Aspe pilota enpresako zuzendari teknikoa, Bergarako Udal Pilotalekuan.



XABI URZELAI

## Bergarako Udalarendako 1,7 milioi trukea betetzeko

UNEDek Arrizuriaga jasoko du eta Udalak, Seminarioa | 15

# Arcelor Mittaleko akordioak lasaitasuna ekarri du Bergaran

Candy geldi dago irailan, langileak erregulazio espedientean daudelako | 4

### SINADURAK

Oporrak joan dira... eta zer? | 8  
JUDITH ERAÑA

8 | Interesgarri dator opor ostea  
JULEN IRIONDO

Enpresak sortzeko | 40  
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4  
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8  
HERRIAK 11 | KULTURA 29 | KIROLA 32  
GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36  
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Egin iezaiezu  
SCHOOL VISUAL TEST-a  
zure haurrei

Erreflexuen aurkako lente fin eta opurtezinak dituzten betaurrekoak 97€

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta irazazu zure gaitortxoan kanpainen ezarpenarik. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

# "Bisitan datorkizun eta bizitza alaitzen dizuten ilobak dira gazte horiek"

- Izeba programak ehunka familia eta gazte tutelatu elkartu ditu Gipuzkoan
- Debagoiengan ere esperientzia aberasgarriak izan dira bi aldeendako

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Lau ume eta gaztetxo daude Debagoiengan izeba-osaben zain; Gipuzkoan, horiez gain, beste hogeitaz. Ez edonolako izeba-osabak, baizik eta, halako baten, lan hori egitea erabaki dutenak eta horretarako borondatea dutenak. Edozein izan daiteke: bikoteak edo norbanakoak, eta edozein adinekoak. Eskatzen zaiena hauxe da: Foru Aldundiaren ardurapean dagoen ume edo gaztetxo batekin harremana egitea, harendako erreferente egonkor positiboa bihurtzeko, eta gutxienez astean behin harekin egotea, ohiko bizimodua egiten. Ez da besterik eskatzen: ez laguntza ekonomikorik, ez gaztetxoa etxean bizi izateko hartzea, ez bestelako konpromisorik.

Horixe da Foru Aldundiaren eskutik Baketik erakundeak egiten duen Izeba programaren hel-

burua, hain zuzen ere, eta lehenengo aldiz martxan jarri zenetik, 2009tik, ehunka familiak parte hartu dute, Izeba programaren arduradun Kristina Soaresen esanetan. Gaur egun, 77 harreman daude aktibo.

Gipuzkoako eskualde batzuetan bereziki, boluntario gehiago behar ditu Baketik-ek, tartean Debagoiengan, eskualdean dauden

bi etxebizitza tutelatutan dauden gazteen *osaba-izebak* izateko. Maiatzean hitzaldiak egin zituzten horretarako, eta hortik izenemate gehiago izan dira; horietako bat dagoeneko badago gaztetxo batekin kontaktuan.

## Betirako harremana

Kristina Soaresek azaltzen duenez, *izeba* edo *osaba* izan nahi duenari egiten dizkioten elkarrizketetan, besteak beste, euren ezaguerriak, nahiak eta preferentziak galdetzen dizkiete, eta euren moduko gaztetxo batekin parekatzen ahalegintzen dira.

Adingabeen aldetik, honakoa eskatzen diete: programan parte hartu nahi izatea eta portaera-arazorik ez izatea: "Gazte horiek bizimodu arrunta egiten dutetutelatutako etxebizitzetan: eskolara joaten dira, eskolatik kan-

poko ekintzak egiten dituzte, kirol taldeetan dabilta..."

Egunerokoa, hezitzaileak edo begiraleak ere badituzte, baina horiek batzuetan joan eta etorri egiten dira, eta etxebizitzetako bizilagunak ere bai. Izeba programarekin, "erreferente positibo egonkorra" eman nahi zaie, desagertuko ez den norbait. Eta, kasu gehienetan, horrela izaten da: "Harremanak modu artifizialean hasten dira, baina modu naturalean jarraitzen dute. Amaitzen direnean, modu naturalean banandu direlako izaten da kasu gehienetan; bestela, *ilobek* 18 urte bete arren, ez da harremana amaitzen".

Edozein modutan, kontaktuan jarri eta gustura ez badaude edo elkarrenganako *feeling* handirik ez badago ere etetea eska dezakete *osaba-izebek*.

Gaztetxo horietako batzuk bakarrik dauden atzerritarrik dira, familiarik gabe; beste batzuk, senide helduak badituzten atzerritarrik edo gipuzkoarrak, baina, daukaten familia-egoerarengatik, Foru Aldundiak bere babesan hartu dituenak, senide horiek euren egoera konpondu arte.


## "Defenditu egiten duzu"

Pertsonak bezala, modu askotakoak izaten dira harreman horiek. Bergarako Ana Orgaz ia hasieratik dabil Izeba programan eta bi iloba izan ditu: batetik, gaur egun 20 urte dituen eta Frantziara bizi den Saharako mutila eta, bestetik, 15 urteko neskatxoa,



## ESANAK

"Bi 'iloba' izan ditut eta beste bat hartu nahi nuke gero"



ANA ORGAZ | BOLUNTARIOA

"Astean behin datorkit; telefonoz egunero egiten dugu"



MIREN PAGALDAI | BOLUNTARIOA

DATUA

**4**

GAZTE DEBAGOIENGAN

Foru Aldundiak tutelatuta dauden lau gazte daude *izeba* zain Debagoiengan.

emakume gizon euskara gortri neska bizi

**Euskaraz blai**

14-15

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

**IKASTURTEA**  
matrikula zabalik

## Informa zaitez!

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88  
Faxa: 943 79 91 43  
[euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net)

### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33  
(Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53  
[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68  
Faxa: 943 79 92 62  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

### BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta, 18-behea Oñati  
Tel.: 943 78 24 96  
Faxa: 943 71 82 96  
[euskaltegia@oinati.net](mailto:euskaltegia@oinati.net)



Maiatzean Urbasan, 300 osaba-izeba eta haien familiak eta ilobak. | BAKETIK

eta senarraren *iloba*; hari "gehia-  
go gustatzen zitzaion etxean gera-  
tzea, oso gustura egoten zen",  
gogoratzen du Anak. Bigarren  
urtean lagunak egin zituen Donos-  
tian eta, gaur egun, berriz seni-  
deekin egoten hasi da eta gutxia-  
gotan joaten da Bergarara, baina  
hala ere elkarrekin egoteko tarteak  
topatzen dituzte Anak eta neska-  
txoak.

Biekin ere harremanari eus-  
ten diote Anak eta familia osoak  
-Anaren bilobek ere asko maite  
dituzte bi *ilobak* eta neskatoa ez  
dagoenean, 4 urteko bilobatxoak  
harengatik galdetzen duela dio  
Anak- eta, tokatzen denean, "etxe-  
ko beste edonor bezala defenditzen  
duzu hura", dio Anak. "Izan ere,  
iloba bat bezala dira, astean behin  
etxera etorri eta bizitza alaitzen  
dizun iloba", esaten du berak.

#### Baserrian gustura

*Izeba* gisa beteranoa baldin bada  
Ana, rol horretan lehenengo espe-  
rientzia du Miren Pagaldai esko-  
riatzarrak. Gaztetxo atzerritar  
baten izeba da Aste Santu inguru-  
ezker, eta nola animatu zen  
kontaktzen du: "Ahizpak esaten  
zidan ondo egingo nuela, eta hala-  
ko baten inspiratu egin nintzen  
eta deitzea erabaki nuen". Pentsatu  
eta egin, eta Arrasaten izeba baten  
zain zegoen mutil harekin kontaktuan  
jarri zuten Miren Pagaldai.

Bere *ilobak* ez du familiako  
inor Euskal Herrian ezta Espainian  
ere, eta, etxebizitza tutelatuan  
ondo atendituta dauden arren,

hori ere atzerritarra. Neskatoa  
laster amarekin bueltatuko denez,  
hori gertatzen denean beste iloba  
bat hartu gurako luke Anak.

Kontaktzen duenez, aspalditik  
zuen etxean ume edo gaztetxoren  
bat hartzeko asmoa, eta Izeba  
programaren berri izan eta berehala  
eman zuen izena. "Gizonak beldur  
pixka bat zuen, baina, denbora joan  
ahala, ni adina

inplikatu zen eta, lehenengo ilo-  
ba mutila zenez, azkenean bera-  
rekin nirekin baino hobeto kon-  
pontzen zen".

Mutila bakar-bakarrak zegoenez,  
haien etxera bazkaltzera joaten  
zen eta bizimodua Arrasateko  
etxebizitza tutelatuan egiten zuen.  
Harekin "mendira sarri" joaten  
ziren. Neskatoa Donostian bizi da  
eta hirugarren urtez da Anaren

**KRISTINA SOARES**  
IZEBAKO ARDURADUNA

## "Familiek gazteekin ondo egon behar dute, besterik ez da eskatzen"

**Zelakoak dira Izeban parte hartu nahi duten Debagoieneko gazteak?**



Arrasate inguruan bi adingabe tutelatu zentro daude, bat bakarrak dauden adingabe atzerritarrena eta bestea familia duten adingabe atzerritar eta bertakoena. Horko gazteak dira. Ohiko bizitza egiten dute eta elkarbizitzarako ez dute inongo arazorik. Oro har, Izeban dabiltzan gazteek egonkorak izan behar dute.

#### Ze eskatzen zaie, berriz, familiei?

Ezer berezirik egin gabe ondo egotea gazteekin; laguntasuna eman, paseatzera irten, hitz egin... Hortik aurrera eskaintzen dena beti da ona, baina ez beharrezkoa. Ez dute ezer berezirik egin behar, irteerak, oporrak edo gauza garestiak. Gutxieneko bat eskatzen dugu: astean behin elkarrekin egotea.

benetako familia baten beroa ematen diote Mirenek eta Mirenen familiak mutil horri. Eurekin primeran integratu da, Mirenek kontaktzen duen moduan: "Mendian asko disfrutatzen du eta irteera asko egin ditugu batera; Txindokira ere joan gara. Gure baserri-  
ra ere asko joaten gara. Txakur-  
rekin, behie begira... gustura egoten da, animaliak maite ditu". Hori horrela izanda, asko disfrutatu zuen joan den maiatzean Gipuzkoako *osaba-izebek* eta *ilobek* egin zuten topaketan, Urbasan; Gipuzkoako 300 parte-hartzaile batu ziren eta hantxe egon ziren Miren, Ana eta *ilobak*.

Gaztea Arrasaten bizi da eta, Mirenekin hasi aurretik ere, ohiko bizimodua egiten zuen eta egiten jarraitzen du: "Astean behin-edo etortzen da gurera, eta aste bukaeran ere nirekin egoten da. Telefonoz egunero egoten gara. Arrasaten gauza askotan dabil: futboleak, sanjuanetan... Arrasaten kuadrilla dauka".

#### Edozein unetan dei daiteke

18 urte baino gutxiago duten gaztetxoendako da Izeba programa, baina, adin horretatik gora beste bide bati ekin arren, normalean osaba-izeben eta gazteen arteko harremanak aurrera jarraitzen du, biek hala nahi badute. Gehienetan, hala nahi izaten dute, izan ere, Kristina Soaresek dioenez, "oso esperientzia aberasgarria izaten da gehienendako".

Interesa duenak Baketik-era dei dezake (943 25 10 05).

# DEBAGOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK \* A

## HELDUEN HEZKUNTZA MATRIKULA 2014-2015 ikasturtea

### EPA ARRASATE HHI

ARRASATE PASEALEKUA 1, 3 ETA 5  
Tel 943 77 11 72

[www.epaarrasate.hezkuntza.net](http://www.epaarrasate.hezkuntza.net)

- I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA / EUSKARA
- II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU
- III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA (A eta D ereduak)

INGELESA

FRANTSESA

INFORMATIKA

ARTEA

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

### EPA BERGARA HHI

BARRENKALE 33  
Tel 943 76 44 52

[www.epabergara.hezkuntza.net](http://www.epabergara.hezkuntza.net)

- I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA
- II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU
- III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA

INGELESA

FRANTSESA

INFORMATIKA

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA


GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

Zure etorkizunerako aukera guztiak

matrikulazio epea zabalik

irailaren 1etik 15era

Guztion eskola guztion artean



goieskola

[www.goieskola.hezkuntza.net](http://www.goieskola.hezkuntza.net)



# Lasaitasuna ekarri du Arcelor Mittalen akordioak

## Zumarragako fabrikaren egoerak eragin zuzena du Bergarako lantegian eta kezka sortu du astean

IRATI GOITIA | BERGARA

Zumarragan dagoen Arcelor Mittalen lantegiaren egoerak kezka sortu zuen Bergarako plantan. Izan ere, hark bizi zuen egoera kezkarria zela-eta, ez zen baztertzeko enpresa aldi baterako ixtea urriaren lehen hasita. Zuzendaritzatik jakinarazi zuten Zumarragako plantak galera handiak pilatu dituela "merkatuko ahultasunaren" eta "kostu energetiko handien" ondorioz. Atzo, baina, zuzendaritzak eta hiru sindikatuk (CCOO, ELA eta UGT) akordioa lortu zuten eta aurreikusten zen itxiera hori bertan behera gelditu da.

### Bideragarritasun plana

Hain zuzen, zuzendaritza bideragarritasun plan bat garatzen zebilen itxiera hori bete ez zedin. Plan horrek hiru oinarri ditu: produktibitatea igotzea, kalitatea hobetzea eta langileen malgutasuna. Zehazki, altzairu sailean bost txanda egitea eta produktibitatea 45.000 tonakoa izatetik 400.000koa izatera pasatzea, eta ijeketa sailean sei txanda egitera pasatzea, Bergarako ELAko Xabier Garitanok azaldu digunez. Bada, atzo lortutako akordioan, hiru sindikatuek malgutasuna onartu dute eta enpresak produktibitatea hazteko lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du.



Begarako Arcelor Mittal enpresa. | MONIKA BELASTEGI

Garitanok azaldu du aurreakordio bat dela eta orain langileen asanbladak onartu beharko duela erabaki hori ziurrenik. Poza ere azaldu du: "Oraingo estatusun hau gainditzeko balioko du, bai-

na ikusi egin behar etorkizunean zer gertatzen den".

### Bergaran eragina

Bergaran kezka sortu zen, izan ere, Zumarragako lantegiaren

egoerak eragin zuzena izango luke Bergaran. "Hemengo langile batzuk hara joanda daude eta Bergarako lantegian ekoizten dugun %80 inguru hango burdinarekin egiten da", adierazi du Jose Luis Loidik, Arcelor Mittalen Bergaran duen fabrikako komiteko kidea.

Hain zuzen, 2009ko irailean, Bergarako lantegiko altzairu saila itxi zenean, lekualdatu egin zituzten bertako langile batzuk, 65 inguru, Zumarragara. Egun, 31 dira han lanean ari diren Bergarako langileak. Izan ere, hainbat Zumarragako lantegiko kide izatera pasa dira.

Urriaren lehen Zumarragako fabrika itxetan, Bergarako langileak hona etorriko lirateke. "Lekualdatutako langileen egoera zehaztuta dago hara joan zirenean sinatu zen agiri batean. Bertan zehazten da joandako lantegian enplegu erregulazio espedientea ezarriko balitz, hona itzuliko zirela", azaldu du Loidik.

Hori arazo bilakatuko litzateke, ordea. Izan ere, Bergarako lantegiak ez omen luke langile horiek guztiak hartzeko gaitasunik izango, eta, akaso, Bergaran ere enplegu erregulazio espedientea ezarri beharko litzateke, edo hainbat neurri hartu. Beraz, atzoko akordioak lasaitasuna ekarri du.

## Abuztuan ere gora egin du langabeziak Debagoiengan

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Apirila ezkerko beheranzko joera agertu arren, uztailean bezalaxe, abuztuan ere langabeziak gora egin du Debagoiengan. Joan den hilean baino 85 langabe gehiago daude erregistratuta orain, 3.724 guztira (%8,89).

Langabezia tasarik handiena Arrasatek du, 1.638 langaberekin, eta txikiena, berriz, Leintz Gatzagak, hamabi langaberekin. Debagoiengo herri gehienetan egin du gora langabezia tasak, Antzuola eta Elgetan izan ezik. Horieta beherakada txiki bat izan da, baina, guztira, ez du aldaketa handirik ekarri langabe kopuruan. Hona hemen herrikako datuak: Arrasate 1.638 (%15,81), Bergara 841 (%11,99), Oñati 481 (%9,17), Aretxabaleta 340 (%10,06), Eskoriatza 255 (%12,52), Antzuola 101 (%9,26), Elgeta 56 (%10,33), Leintz Gatzaga hamabi (%8,89).

Hego Euskal Herriari begiratu, uztailean baino 1.250 pertsona gehiago daude lanik gabe, eta, langabe gehien Bizkaia dituen arren, azken hilabeteetan Gipuzkoan igo da gehien langabezia; gainera, sektore guztietan. Espainiako Estatuan ere, azken sei hilabeteetako beherakadaren ondoren, gora egin du berriro ere tasak. Uztailean baino 8.700 langabe gehiago daude orain Estatuan.

## Candyko langileak etxean irailko lehen bi asteetan

Bergaran dagoen Candy enpresak ere ez du unea bizi. Langileek urte amaierara arteko enplegu erregulazio espedientea dute onartuta eta irailko lehenengo bi aste hauetan etxean dira langileak. Opor ostean, abuztuaren 25ean ekin zioten jardunari, baina, hil horretako azken astea lanean egin ostean, etxean dira orain. Enpresatik adierazi dute saltzen dutena baino gehiago dutela egina.

ELA sindikatuko Patxi Zubizarretak adierazi du komiteak eskatuta duela bilera Italiako zuzendaritzarekin, etorkizunari begira zer plan duten argitzeko. Oraindik ez dute datarik. Hala ere, hurrengo urterako aurrekontuak hil honen amaierarako egin behar dituzte eta horrek pistaren bat emango diela dio Zubizarretak. Apirilean eta maiatzean ere astebete egin zuten etxean langileek.

EZAGUTU **MONDRAGONLINGUA**ren

# hitz egiteko era berriak

Era berriak garai berrietarako, behar berrietarako, teknologia berrietarako, lan merkatu berrietarako...

Informa zaitetz zure **MondragonLingua** zentron:

Araba etorbidea 4, **Arrasate**. Tel. 943 71 20 55  
Motxon kalea 7, **Oñati**. Tel. 943 71 60 00



**MATRIKULA ZAITEZ ORAIN!**

eta munduko denbora guztia izango duzu, ml PLUS edo ml ADAPTA ikastaroan matrikulatzen diren ikasleek SMARTWATCH bikaina jasoko dutelako.



\*Urriaren 11 arte edo dauden guztiak agortu arte balio du promozio honek. Bezero PARTIKULARRENTZAT.



QUALITY

Etengabeko berrikuntza eta hobekuntza bertan ditugu. "Kalitatearen Urrezko Q" duen Europako hizkuntza-zentro bakarra gara.



Europako zigilua atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan berritzeagatik.

%85

Ikasleen emaitzak dira gure bermerik onena, % 85ek baino gehiagok Cambridgeko azterketa ofizialak gainditzen ditu.



Cambridge Exam Preparation Centre



MONDRAGON UNIBERTSITATEAK MondragonLinguaren hizkuntza-ikastaroak gomendatzen ditu.



MONDRAGON taldeko kooperatiba bat gara, eta eskaintzen dugun zerbitzuarekin % 100eko konpromisoa daukagu.

mondragonLingua

# MATRIKULA ZAITEZ

## Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

## Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

## Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

## Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

## Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren horniketaz arduratzen dira

## Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiaz eta mantentze-lanez arduratzen dira

Lanerako gertu!

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP



[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)

# Eusko Jaurlaritzak lana eta familia uztartzeko laguntzak berrikusiko ditu

Diru-sarreren araberako diru laguntza sistema du helburu Jaurlaritzak

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Lana eta familia uztartzeko diru laguntzen gainean hausnarketa egingo du Eusko Jaurlaritzak. Asteon jakinarazi du familia kontziliaziorako 2014ko diru laguntza amaitu egin dela. Gainera, oraingoz ez duela diru gehiago jarriko berretsiko. Izan ere, sistema berrikusteko asmoa agertu du Jaurlaritzak. Adierazi duenez, asmoa da "kasu handiago" egitea lana eta familia uztartzeko laguntzei umea jaiotzeagatik ematen dituztenei baino.

Oñatiko Gizarte Ongizate Saitetik diote oraindik ez duela inork bertara jo galdezka. "Inor ez da kezkatuta eta galdezka etorri guregana. Eusko Jaurlaritzak tramitatzen ditu laguntza horiek, eta, zuzenean eurek egiten dutenez, agian hara jo dute; guk laguntzen paperak soilik inprimatu eta banatzen dizkiegu herritarrei", diote. Bergarako Gizarte Ongizate Saitetik ere ez dutela kezkarik jaso diote: "Oraindik jendea ez da arduratuta etorri; laguntzen eskaerak ere ez dira jaitsi, normaltasunez tramitatzen dira".

Goiena kalera atera da eta herritarrei iritzia eskatu die. Albistea ez dutela "justutzat" jo



Bi emakume hurrekin. | MAIDER ARREGI

kopuru bat kalkulatu izango zuten, agian, eta agortu egin da. Dena den, diru gehiegi gastatzen ari dira lehentasunezkoak ez diren bestelako kontuetan. Sasoi latza bizi dugun honetan, tontakaria askotan ari dira dirua xahutzen eta uste dut gizarteari begiratu beharko lioketela eta arreta jarri gizarte ongizatea bermatzeko. Egoera jasanezina da hau", azaldu du.

Ama izan berri da Leire arrasatearra; BAZ zerbitzuan egin dugu topo harekin, eta laguntzak agortu diren berri bazeukan. "Denon eskubidea izan beharko litzateke, ez baita erraza familia eta lana uztartzea".

## 17,3 milioi euro 2014rako

Aurtengo aurrekontuan, 17,3 milioi euro zeuden kontziliaziora laguntzeko, eta diru hori urtarrelean eta otsailean eskatutako laguntzekin amaituko dela diote Jaurlaritzatik.

Aipatu behar da gaixo dauden senideengatik lan-utzialdia edo lanaldia murriztuta ikusi duten langileei dagokien laguntzarako ere amaitu dela kreditua; baita seme-alabak zaintzeko kontrataziorako ere.

**ESANAK**

**"Oraingoz, jendea ez da kezkatuta etorri informazio bila"**

GIZARTE ONGIZATE SAILA | BERGARA

diote. Arrasateko Ederra tabernan lan egiten duen Mari Josek, esaterako, dirua lehentasuna ez duten arloetatik kendu behar dutela dio: "Planifikazio falta izan dela uste dut. Jaiotzen arabera, diru

# Langabeendako eta ekintzaileendako hiru ikastaro udazkenean

Mankomunitateko Garapen Agentziak eskaintza berriekin hasiko du ikasturtea

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak hainbat ikastaro iragarri ditu udazkenean begira. Horien artean, hiru hauek: energia eta elektrizitateko oinarrikoa; Smart City izenekoa, besteak beste, energiaren eraginkortasuna ikasgai izango duena; eta Ni Ekintzaile Debagoienean, turismoarekin, aisialdiarekin eta haien zerbitzu osagarriekin lotutako negozio ideia bat duten pertsonen zuzenduta. Lehenengo biak langabeei zuzenduta daude. Ikastaroek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza dute eta debagoiendarreri zuzenduta daude, horregatik eskatzen da eskualdean errolatuta egotea eta, bestalde, atzeritarrei dagokienez, lanbaimena indarrean edukitzea.

Energia eta elektrizitateari buruzkoa 100 ordukoa izango da eta urri eta azaro artean emango da. Goizez edo arratsaldean emango da. Hamabost lagunendako tokia dago eta izen-ematea zabalik dago irailaren 19ra arte. Elektrizitatearen oinarriak, instalazio elektrikoak, argiteriazkoak, energia berriztagarriak... landuko dira, besteak beste.

Smart City ikastaroa 90 ordukoa da eta irailaren 17tik urriaren 19era arte emango da

goizez, egunero. Izen-ematea zabalik dago eta irailaren 12an itxiko da. Hamabi lagunendako tokia dago. Besteak beste, aplikazio informatiko zerbitzuen kudeaketa eta energiaren eraginkortasuna landuko dituzte.

## Ni Ekintzaile

Turismoa, aisialdia eta zerbitzu osagarriak landuko dituen urriaren 13tik azaroaren 20ra bitartean egingo da. Matrikula doan da eta irailaren 8tik 30era arte egongo da zabalik, biak barne. Ekintzailetza tailerrak eta bisita teknikoak egingo dituzte. Informazio gehiago Mankomunitatean, 943 79 30 90 telefonon edo [www.debagoiena.com](http://www.debagoiena.com)-en.

Uztailean beste ikastaro batzuk eskaini zituen Mankomunitateak. Bost tailerretan 75 lagunek hartu zuten parte.

**DATUA**

**75**

LAGUN

Uztailean bost tailer egin ditu Garapen Agentziak eta 75 lagun ibili dira

## GAUR EGUNGO GALDERA GUZTIEN ERANTZUNA AUTO HONETAN



Citroënek nahiago du Total

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Citroën C4 Cactus: 3,1-4,6 / 82-107



### CITROËN C4 CACTUS BERRIA

Zergatik kontsumitzen dute horrenbeste motorrek? Zergatik ez dute zerbait asmatzen autoen atean babesteko? Zergatik izan behar du hain konplikatua gidatze-panelak? Zergatik eseri behar dugu elkarrengandik urrun, elkarrekin bagoaz bidaian? Ondo pentsatuta, erantzun erraz batera garmatzate galdera horiek guztiak: Citroën C4 Cactus berria. Gaur egungo galdera guztiak erantzuten dien autoa. Gidatzeko modua irauli egin du eta erraz egiten du dena. Igo zaitzeturantz eta detaile bakoitzean igarriko duzu teknologia eta autoaren beraren diseinu intuitiboa; auto honek erantzun guztiak ditu.

BABES TERMIKO HANDIKO SABAI PANORAMIKOA KRISTALAREKIN 7"-KO UKIPEN-PANTAILA SOFA-ESPIRITUA DUEN ESERLEKUA AIRBUMP AIRBAG ROOF TEKNOLOGIA MAGICWASH

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



**TALLERES CHAPIME**

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

## Kutxa Ikasgelak programa ikastaroz beteta dator

Berritasunetako bat da Arrasaten, Goienaren egoitzan, emango dela argazkigintzari buruzkoa

E.A. | ARRASATE

Kutxa Ikasgelak programa ikastaroz beteta dator ikasturte berriaren eta aurtengo berritasunetako bat da Debagoienean bertan horietako bat eskainiko duela: argazkigintzari lotutakoa. Atera probetxua zure argazki kamerari da ikastaroaren izenburua eta Goiena Komunikazio Taldeak emango du. Arrasaten, Goienaren egoitzan bertan. Bestelakoak ere izango dira Kutxa Ikasgelen barruan, askotarikoak, gainera.

Ikastaroetarako izen-ematea irailaren 8tik 25era bitartean izango da eta 30ean emango dira aditzera onartuak izan direnak. Ikastaroak irailean hasi eta datorren udaberrira arte izango dira. Izena emateko baldintza bakarra 16 urtetik

gorakoa izatea da. Kutxaren Gizarte Ekintzak diruz laguntzen ditu programa horretako jarduerak eta prezio berezia eskaintzen die Kutxaban-keko bezeroei.

### Argazkigintza Goienan

Kutxa Ikasgelako kolaboratzaile da aurten Goiena eta ikastaro bat eskainiko du urriaren 21etik azaroaren 14ra bitartean, martitzen eta eguenean, 18:00etatik 20:00etara, Goienak Arrasateko Otalora Lizentziaduna kalean duen egoitzan. Horretaz gain, txango bat antolatuko du parte hartzen dutenen artean, praktikak egiteko. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da. Ikastaro horretarako zein besteetarako izen-ematea, hemen: [www-kutxabank.es/aulaskutxa](http://www-kutxabank.es/aulaskutxa).

Paulo Agirrebaltzategi | Ohorezko euskaltzaina

# "Euskal herritar guztiak euskaraz hitz egiten jarri beharko baditugu, euskarak aldatu beharko du"

- ▶ Jakin-en eta UZEIn lanean jardun ostean, ohorezko euskaltzain izendatu dute oñatiarra
- ▶ Hitzunak irabazteko, euskara "erakargarriago eta samurrago" egin beharko dela dio

ENEKO AZKARATE | OÑATI

Euskaltzaindiak beste hamabi ohorezko euskaltzain izendatu zituen joan den maiatzean eta horien artean dago Paulo Agirrebaltzategi (Oñati, 1942) frantziskotarra. Uztailaren 18an egindako ekitaldian jaso zituzten diplomak. Horrenbestez, 39 ohorezko euskaltzain ditu Euskaltzaindiak. Euskaltzaindia, euskara eta Arantzazu ditu aztergai Teologian doktore eta, besteak beste, Jakin-en eta UZEIn lan egin duen araoztarrak.

**Urte asko daroatzazu jaioterrik kanpo, baina Arantzazurekin harreman zuzena izan duzu beti.**

Bai, 72 urte direla jaio nintzen Araotzen, eta, hortaz, Arantzazura lotuta egon naiz txikitatik. 11 urterekin Arantzazura joan nintzen ikastera; ondoren, batxilergoa egin nuen; Foruan, Humanitateak ikasi nituen; Zarautzen Filosofia; Oliten ere bai, eta Arantzazun eman nituen beste lau urte, azkenak, apaiztu aurretik. Gero, Erromara joan nintzen Teologia ikastera. Baina handik Jakin Taldeko kide izateko eskaera jaso nuen eta Donostiara joan nintzen.

**Jakin Taldean jardun duzu, hortaz, urte askoan.**

Bai, eta hortik sortu genuen UZEI. Urte askoan bertan egin nuen lan. EUSENOR entziklopediaren proiektuan ere ibili nintzen zortzi bat urte.

**Eta Gandiagaren ondare literarioa aztertu duzu azkeneko urteotan.**

UZEI utzi ostean, Arantzazuko lan editorialari lotuta eman ditut urteak. Gandiagaren ondare literarioaren edizio kritikoa egin dut, Interneten dagoena. Arantzazuri buruz literaturan idatzi dena aztertzen dihardut azkeneko aldian.

**Euskalgintzari lotua jardun duzu lan-bizitza ia osoa.**

Bai. Erromako sasoiari, uda baten, Alemanian nintzela, gogoan dut Rikardo Arregi hil zen egun berean, konbentzitu ninduten Euskal Herrira itzultzeko eta horrela ekin ginen Jakin-en. Honekin esan nahi dut euskararen borroka kontuetan nahiko atzeratua naizela. *Anaitasuna* aldizkarian-eta idazten hasi nintzenerako 28 urte bainituen. Aurretik oso gutxi ibilia nintzen euskalgintzan. 1970eko hamarkadatik dihardut Jakin-en, Uzein, Eusenorren...

**Hain justu ere, erakunde horietan euskararen alde egindako lanagatik etorri zaizu ohorezko euskaltzain aitortza?**



Pozik ageri da Paulo Agirrebaltzategi oñatiarra Euskaltzaindiaren izendapena dela-eta. | ENEKO AZKARATE

Bai. Izan ere, euskaltzain ez naiz inoiz izan, Euskaltzaindiaren arauak beti zintzo bete ditugun arren. Dena den, harritu nintzen izendapenarengatik, uste dut-etanik baino merezimendu gehiago duenik badela, baita Arantzazun bertan ere.

**Euskararen normalizazioari dago-kionez, botila erdi hutsik ala erdi beteta ikusten duten horietakoa zara?**

Euskara eremu guztietan normalizatzea izan da beti gure helburua. Eremu guztietan eta maila guztietan. Euskara modernizatzea. Ez bakarrik etxean eta eskolan, baita gizartean ere. Eta adin guztietan... Euskarak, halere, bide handia dauka egiteko

**"Uste dut nik baino merezimendu gehiago duenik badela"**

**"Behar dugu, orain, euskararen aldeko beste iraultza edo astindu sozial bat"**

normalizatzeke eta modernizatzeke bidean, erabileraren alde-tik, batik bat. Erakundeen alde-tik plangintza partziala egin dela uste dut. Ahaleginak bideratu dira telebistara, irratira eta egunkarira ere bai, azken honetan kostata bada ere, sorrera bihurri samarra izan bazuen ere; Goiena ere hor dago...

**Beste eremu batzuetan ere normalizatzea da helburua?**

Bai. Eta hortik EKBren sorrera ere. Guk uste genuen plangintza orokor baten inguruan batu behar genituela eremu ezberdinetan euskara normalizatzeke asmotan zebiltzan erakundeak, taldeak, eta abar. Uste dut urteetan, behintzat, falta izan dela erabilerarako politika, plangintza eta kanpaina. Irakaskuntzan eta hedabideetan egin da ahalegina baina... Dena den, hedabideen artean ere ahula da euskararen egoera. Telebistan, esaterako, ETB1 eta, toki batzuetan, Goiena bezalako telebista lokalak daude, baina horien aurrean, dozenaka erdal telebista dago.

**Hedabideen kasuan, baina bestela ere, normalizatzeke urrun dago euskara.**

Hala da, argi dago. Martxelo Otamendi esaten diot sarritan: "Haserretu egingo haiz, baina euskal egunkarien eskabidea ez dago normalizatuta, gutxienez,

bi ez dauden bitartean". Bide luzea egin beharra dago. Eta eskaintza kulturala ere hor dago. Gazteek beste nonbaiten aurkitzen dute asebidia. Sentsibilizazio kanpaineekin bakarrik ez da arazoa konpontzen. Egunero bizitzeko behar ditugun elementuak behar ditu euskarak. Erabileran dago erronka. Baina baikor naiz. Askok dagoen arren egiteko, asko egin da. Eta egiteko gauza gara!

**Zer behar da horretarako?**

Duela 30 urte egon zen sentsibilitate sozial berezia. Eta behar dugu, orain, euskararen aldeko beste iraultza sozial bat. Ez "euskara salba dezagun" baizik eta "euskara erabil dezagun", urteotan egindako ahalegina indar-berritzeko eta zabaltzeko. Beste astindu sozio kultural bat behar dugu, nahi bada, politikoarekin batera. Baikor naiz, baina arriskua beti dago hor eta gure hizkuntza bertan behera gera daitekeela esatea ez da *boutade* bat. Baina neurriak behar dira, urratsak egin, ezkortasuna nagusitu ez dadin.

**"Erabilerarako falta izan da politika, plangintza eta kanpaina"**

**"Baikor naiz; asko dagoen arren egiteko, gauza gara egiteko!"**

**Kalitatezko euskara darabilgu euskal hiztunok?**

Kalitatearen gainean zaharrek beti protesta egiten dute gazteek ez ei dutelako ganorazko euskara erabiltzen. Bihurrikeriak egiten dituztela. Belaunaldi eta hizkuntza guztietan gertatzen da, seguruen. Euskarak baditu berezko zailtasunak, inguruan eta gainean dauzkagun hizkuntzen eraginagatik, lexikoarengatik, egiturengatik. Baina ez nau horrek hainbeste kezkatzen. Euskarak eboluzioa behar du, etengabekoa, identitatea zaindu behar duen arren. Euskal herritar guztiak euskaraz hitz egiten jarri beharko baditugu, euskarak dezente aldatu beharko du.

**Ez da erronka makala.**

Ez. Gauza batzuetan dimisioa egin beharko dugu: hizkuntza erakargarriago, samurrago... egin beharko dugu, baina, euskal hiztun berri horiek aldatu egingo digute hizkuntza. Hitzak, egitura... Hipotesia da, baina hori izango litzateke benetako iraultza. Orain, galdetu behar diogu geure buruari zer nahi dugun: berdin jarraitzea, garbi, gurea kontserbatuz ala euskal hiztunak eta erabiltzaileak irabaztea eta hizkuntza aldatzea. Hau da, sakrifizioak egin.

**Zeinek aldatuko du hizkuntza?**

Hitzun berriek aldaraziko dute. Zer behar dugu: euskal osoak ala euskaldun gehiago?

**Euskarak aurrera egiteko duen eragozpen nagusia, diozun amets hori egi bihurtzeko oztopo nagusia, zein da?**

Jende asko konbentzitu beharra. Euskal herritar gehienak ez daude euskal komunitateari begira, baizik eta kanpora begira, gaztelaniaren bidez hartzen baitute kultura. Hori da zailtasun handi bat. Edozelan ere, iraultzak edo astindu sozialak gazteen aldetik etorri beharko du.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## ZABALIK



JUDITH ERAÑA  
goiena.net/komunitatea/

## Oporrak joan dira... eta zer?

Urte guztia lanean jo eta ke eman ondoren gustura hartzen da abuztuko etenaldia. Lankideak agurtu, despedida bazkaritxo bat akaso... eta "ikusiko gare, ondo pasau" batekin denok pozik oporretara! Ilusioz josita goaz herri-kanpo, urtebetez itzaroten egon garen horren bila.

Mendia, hondartza, ezagutzen ez ditugun hiriak, lurraldeak esploratu... familiarekin, lagunarekin, lagunekin, bakardadean... disfrutatzeke, dibertitzeke, edo ezertxo ere ez egiteko, deskantsatzeko ematen ditugu udako opor egunak. Aukera zabala da.

Tamalez, gozamenak ez du askorik irauten, konturatu orduko berriz ere bueltan, betiko jendea, herria, lana, lankideak, etxeke lanak, betikoa, errutina! Ondorioz, gogo txarra eta tristura. Hainbeste desiotako egunak bat-batean joan zaizkigu, tentu handiz planifikatutako oporrak agortu dira... eta orain zer?

Ez da bidezkoa 365 egun 20 egun ziztrinatan kontzentratzea.

Oporrak ez ditugun egunez ere disfrutatzen ikasi beharra dugu. Egunerokotasuna pasio eta ilusioz janztea ez da lan makala, baina ahaleginak merezi du. Gauza txikiei erreparatu, eta handi bihurtu. Momentu ezin hobea da zeregin berriak hasi eta erronka berriak planteatzeko. Hauek betetzeko gogoia eta kemena bilatu behar dugu. Topa dezagun ilusioa bueltatuko digun hori bilatzen, gauza txikietan baitago gakoa. Norberak izanen du beti egin nahi izan duen hori betetzeko ametsa, edozer izan daiteke, kirola egitea, ondokoari laguntzea, ekintzaren bat burutzea, proiekturen bat garatzea... gure esku dago, baina konpromisoa hartu beharra dago, horrek emango baitigu bizipozaren grina.

Jakin badakit hitzez idaztea hain erraza denak bere konplexutasuna duela, baina ez didazue ukatuko errazena dela atzera begiratu eta momentuan ez dugun hori faltan botatzea eta gaur dugunaz kezkatzea. Ahalegina egitera animatzen zaituztet, nik ere horretan emango dut denbora.

Badago bizitza abuztutik aurrera! Animo, eta gogotsu ekin!

"Gauza txikiei erreparatu eta handi bihurtu beharko genituzke"

## USTEAK USTE


JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

## Interesgarri dator opor oatea

Galderearen erantzuna gustukoa izango ez den arriskuz, galdetzeari inongo biderik ez emateko Madrilgo Gobernuak hartutako jarrera kopiatuko bagenu, nire parame-troen arabera, debekatu egin behar litzateke inori heriotza zigorra ontzat hartuko ote lukeen galdetzea. Berriki plazaratu duten inkesta baten emaitza da Espainiako gazteen erdia inguruk begi onez ikusiko luketela heriotza zigorra. Ez galdetzeagatik, baina, ez litzateke gazte horien pentsaera aldaketa, ezta? Errealitate baten aurrean begiak ixteak eragin dezake parean duzuna ez ikustea, baina desagerrarazi ez du egiten. Interesgarri dator opor oatea: Eskozia, Katalunia...

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Watergate, berriro

Joxe Aranzabal  
blogak.goiena.eus/faraoa/

Aspaldi ikusi nuen *All the President's Men* filma, 24 urte nituela.

Orduan gustura geratu nintzen, baina abuztuan berriro ikusi dut, filmaren azpituak euskaratu bitartean, eta orain gehiago gozatu dut: a zelako pelikula puska!

Filmak zein ondo ispilatzen duen Woodward eta Bernstein kazetariaren arteko lehia eta elkarlana, baita ausardia ere, gaunditzeke ikerketak izan zituen oztopoak.

*The Washington Post* egunkariako arduradunen jarrera ere oso ondo jasotzen da filmean (Jason Robardsen antzezpeneak harritu egin nau, egunkariako zuzendariaren rolean).

Ikerketa kazetaritza sekula ez da erraza izan, eta pelikula honek garbi erakusten du hori.

Donostian nembilela ikasle, irrikaz irakurtzen nituen Watergate eskandaluaren inguruko kontuak, eta

asteburuetan *L'Express* aldizkari frantsesa erosten nuen, gehiago jakiteko hango kontuez.

Liburua irten zenean ere, irentsi egin nuen, berau kaleratu bezain laster.

Kazetaritza onaren monumentua iruditu zitzaidan orduan.

Eta gaur ere, halaxe.

Bitxia irudituko zaizue, baina hain gustura aritu naiz filmaren azpituak euskaratzen (jarduera horrek aukera ematen du eszenak behin baino gehiagotan ikusteko eta xehetasunetan ere fijaske), ze liburua berreskuratu eta berriro hasi naiz irakurtzen.

Berrogei urte joan dira Richard Nixon AEBetako presidentea dimisioa eman zuenetik Watergate eskandaluaren ondorioz.

Aitzakia ona filma berriz ikusteko, jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpituak.

## Baskismoa

Anjel Lertxundi Esnal  
berria.eus/blogak/lertxundi/

Azken aldian ez dugu Kataluniari buruzko albisterik

gabeko egunik, baina orain gutxi adiskide batek bidali zidanak ez du oihartzunik izan gurean.

Ez da harritzeko: politikariek aipatzen ez duten eta hedabideek nekez haizutzen duten albiste horietako bat da Pau Vidalen *El catanyol es cura* (*Catanyola* sendatzen da) liburu berria.

Gaztelaniaren eragina sekulakoa baita katalanaren lurraldeetan, katalanek catanyol izeneko fenomenoaren penatzen dute, hemen euskañola penatzen dugun bezala:

"*Catanyola* puta da katalan zuzenaren itxurapean babesten delako", esan zuten aurkezpenean.

"*Catanyola* sendatzen da" dioenak *catanyola* gaitza dela pentsatzen du.

Ahulezia bat. Nork bere hizkuntza ondo baliatzeko ezina.

Horretarako, ordea, gaitzaren kontzientzia behar.

Gure hainbat sektoretan, ordea, euskañola *cool* fresko-freskoa da, jende lotsagalduen jardun errebelde ustea eta publikoaren algarak eragiteko baliabide dramatiko *de la ostiako* bat...

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mirela Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mirela Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetzak eta banaketak** Maria Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**Eusko Jaurlaritza**  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## GUTUNAK

Kutsadura airean,  
uran eta lurtean

Josu Garitaonandia

(Equo Bergara)  
Bergara

Zientzialariek esaten dute gure planeta goxatzen duen Eguzkiak 5.000 milioi urte inguru dituela eta beste horrenbeste gelditzen zaizkiola desagertu baino lehenago; Eguzkiarekin batera, gure etxea den Lurra planeta ere bide beretik joango litzateke.

Beste arrisku batzuk ere badaude meteoritoak direla eta, baina gizakiaren bizi iraupenerako arrisku handiena gizakien zoramena da.

Gizakiak, azken 100 urteetan, 5.000 milioi urteko eboluzioa izan duen planeta hankaz gora jarri du, jadanik ez dago planetan txokorik kutsadura fisikoa eta kimikoa ez duenik, guk sortutako zikinkeria hori berriz ere guregana dator arnasten, edaten edo jaten dugunean, auskalo zenbat gaixotasun dagoen kutsadura honen atzetik.

Gaur egungo gizarteak bere "ongi bizitzea"-ri begiratzen

dio, pentsatu gabe ondorengo belaunaldiek jasango dituzten egoera larriak.

Mundu mailan gizakiek antolatu behar dute irauteko aukera edukitzeko, denok aldatu beharra daukagu gure jarduera eta pentsamoldea.

Zer da permuta  
eta zergatik  
egingo da?Jaione Isazelaia  
(Bergarako alkatea)  
Bergara

Bergarako plazan Gipuzkoako eraikinik esanguratsuenetakoa kokatzen da, Errege Seminarioa, bertan izan ziren Ilustrazio garaian ikerlari famatuak eta bertatik bideratu zen hein handi batean Gipuzkoaren berpizkunde ekonomiko eta kulturala.

Harrezkero, urte luzeetan zehar, Errege Seminarioa estatuarena izan da, nahiz eta erabiltzaile nagusiak Aranzadi ikastola eta UNED izan diren.

2008an Espainiako estatuak UNED-Bergara Fundazioari saldu zion eraikina eta honek

Aranzadi ikastolari berak zerabilen zatia utzi zion 75 urterako.

UNED-Bergara Fundazioaren aspaldiko nahia izan da UNEDen aktibitate akademikoaren mesederako Udalarena den Arrizuriaga jauregian kokatzea, aldaketa honek Bergarako Udalaren proiektuei ere mesede egiten die; izan ere, udalak Errege Seminarioan kokatu nahiko litzuke etorkizunean herriko indargune ekonomiko eta kulturalak izango diren aktibitateak; besteak beste, bertako bildumarekin osatuko duen museoa eta bertako eliza dotorean kultura erabilera anitzera kokatzea.

Hau guztiau bideratzeko Errege Seminarioa erosiko du Udalak, ordainetan Arrizuriaga jauregia eta Gipuzkoako Diputazioak emandako diru laguntza emango dio UNED-Bergara Fundazioari honek bere proiektua gara dezan.

Lerro hauen bitartez urteetan zehar proiektu honen alde lanean aritu diren kide guztiei eskerrak eman nahi genizkieke, bereziki Gipuzkoako Diputazioari, aurreko Udal Gobernuari,

UNED-Bergara Fundazioaren proiektua errealitate egiten laguntzen duten patronoei (Kutxako Gizarte ekintza eta UNEDi) eta irakasle eta zuzendariari.

Jaiokuntza tasa  
txikiaJon Otero Urizarren  
Arrasate

Jaun-andreok, jaiokuntza tasa txikia ez da gauza txarra.

Gaur egun, Euskadin, emakumeko 1,34 haur jaiotzen dira.

Esaten da populazioa mantentzeko 2,1ekoa izan behar dela.

Frankoren garaian antisorgailuak ez zeuden aurreratuta, eta, are gehiago, debekatuta zeuden.

Hil zenean bukatu zen zoritzarreko *baby boom*-a eta hasi zen beheranzkoa.

Munduan populazio handia dago eta hainbat estatu ez dira laikoak eta debekatzen dituzte antisorgailuak.

Edonola ere, hazkundera frenatzen ari da, Jainkoari eskerrak.

Zergatik diot hau? Gizakia da izadiaren hondatzaile nagusia.

Zenbat eta populazio gehiago, etxe gehiago, hiri handiagoak, eraikuntza gehiago, errepide gehiago... ekologistek ezin diote eutsi, ezin frenatu desenfreno hura. Jaiokuntza tasa txikiarekin, mundu osoan, ekologia zainduko da. Eta jakina, gora izadi garbia!

Hori bai, demostratuta dago herri laikoetan bikoteek ez dituztela nahi ume asko, are gutxiago zenbat eta pobreagoak izan.

Nik dut etxean liburu bat, *Euskaldunak* izenburuarekin, non dioen antzina bikote ezkonduak seme-alaba ugari nahi zituztela, *zeruaren ateak* zabaltzeko. Gezurra.

Antisorgailuak ez ziren existitzen, eta kito! Txiroak ez du nahi seme-alaba askorik.


Oraingo ume apurrek mantendu behar gaituztela zahartzaroan? Trago txar bat pasatuko dugu, estu ibili. Baina izadiak irabaziko duena gehiago da.

Ala etorriko den gobernariren batek debekatuko ditu antisorgailuak? Ez. Gora estatu laikoa!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Goiena Klubeko iraileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



**Telebista**

32 hazbeteko LG Telebista.  
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

Arrasateko hipermerkatua

**EROSKI**  
zurekin



**Otarra**  
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



**Argiako jokoak**  
Atlantika 2 joko  
Parte hartzeko sariaren izena: Jokoa

argia

## PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen susstapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

## DUELA 10 URTE

2004-09-03

**Miguel Altunak pabiloi berria**

Plastikoetara zuzendutako industria pabiloi berria eraikitzen hasi ziren Miguel Altuna institutuan; hain zuzen, proiektuak 80.000 euroko aurrekontua izan zuen eta pabiloi berriak tailerretarako zegoen "toki eskasa" arintzeko eraiki zen.

Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak pabiloi berriak bost urteko bizitza izan zuela aurreikusten bazuten ere, eraikinak urte gehiago iraun du.



Pabiloi berria egin zen tokia. | GOIENA

2004-09-03

**'Aupa Etxebeste!' filma grabatzen**

Asier Altuna *Kixi*-k eta Telmo Esnalek abuztuko azken astean ekin zioten *Aupa Etxebeste!* filmeko kanpoko eszenak grabatzeari, eta iraileko lehen astean ere filmatu ziren hainbat zati.

Egun haietan, Ramon Agirre eta Elena Irureta aktore ezagunak egon ziren herrian, eta, jaiaren eszenarako jende asko behar zenez, herritar askok film luzean parte hartzeko aukera izan zuten.

## DUELA 5 URTE

2008-09-05

**Gaztelekua egiteko asmoa**

Uda aurretik udalbatzak egin zuen azken oso bilkuran onartu zen aho batez Gazteria Plana, eta plan hartan azaltzen zen gaztelekua egitea lehentasunezko gai bat zela.

Proiektu horrez gain, Zabalotegiko zinema berriztatzea eta auditorium bat egiteko beharra ere ageri ziren.

## BERGARA

**Mila Agirrezabal** Bergarako Udal Liburutegiko altxor eta sekretu guztiak ezagutzen ditu. Baita bere herrikide askok literatura kontuetan dituzten zaletasun eta preferentziak ere. | IMANOL GALLEGU

# "Nork bere gustuak ditu, ez dago irakurle guztientzako 'best seller' bat"

Liburuak irudimenez beteriko unibertso berriak ezagutzeko gordailu magikoak dira, eta Bergaran gordailu horien zaindaria Mila Agirrezabal da. Liburuzainak mende laurdena atzean utzi eta gero, lehen egunean bezala, gustura ibiltzen da horrenbeste liburu, aldizkari, DVD eta CD artean. Hura hasi zenetik liburutegiak aldaketa asko izan ditu, baina, dudarik gabe, Agirrezabal liburuzaina da Udal Liburutegiko ondasun preziatuena.

**Kudeaketa ez ezik, liburutegiaren eskaintza bere era aldatu egin da. Liburuak soilik izatetik pelikulak, musika... izatera ere pasa zarete.**

Orain, zerbitzu osoagoa ematen dugu. Duela hamar urte udal liburutegien sarearen barruan gaude, eta horrek zerbitzua izugarri hobetu du. Liburutegi bakoitzak ezin du argitaratzen den guztia izan, baina guztien artean eskaintza zabalagoa ematen dugu.

**Zeren arabera erosten dituzu liburu batzuk edo besteak?**

Euskaraz argitaratzen denetik dezente edo ia guztia izaten saiatzen gara. Horrez gain, kalean edo dendetan, ikusmira sortu duten liburuak erosten saiatzen naiz, askotariko generoak... Herritar guztion liburutegia denez, denetik izan beharra dugu.

**Herritar asko gomendio bila joango zaizkizu.**

Asko; jende horri lana errazteko, nobedade aipagarrienak batzen ditugun apal bat daukagu. Dena den, zuzenean gomendio bila etortzen direnak ere badaude. Pertsonaren zaletasunak ezagutu ostean, liburu batzuk proposatzen dizkiot. Horrez, gain, genero jakin bat soilik irakurtzen duen bati, beste mota bateko liburuekin tentatzen saiatzen naiz.

**Pertsona bakoitzak bere liburuak dauka?**

Ez. Pertsonak eta momentuak daude. Pertsona bat une jakin batean liburu arin baten bila etor daiteke, eta handik gutxira sako nago bat. Pertsona ez ezik, unea ere oso garrantzitsua da.

**Urtaroaren arabera gehiago edo gutxiago irakurtzen da?**

Egia da udan, opor garaian, urtean zehar gehiegi irakurtzen ez dutenek gehiago irakurtzen dutela, baina, orokorrean, urte osoan erabiltzaile kopurua mantendu egiten da.

**Zein da adin zailena?**

14 eta 18 urte arteko gazteak. Behin ikastetxean irakurri beharreko enkarguak amaitzen direnetik bizitzan hartu nahi duten norabidea erabat erabaki arte, ez dira gehiegi etortzen gurera.

## HERRITARRAK



Mila Agirrezabal, Bergarako Udal Liburutegian. | IMANOL GALLEGU

**"Euskaraz argitaratzen diren liburu guztiak erosten saiatzen naiz"**

**"Liburu bat aukeratzerakoan, pertsona eta unea garrantzitsuak dira"**

**Hala ere, ziur nago jende asko erakarri duten best seller ugari ezagutu dituzula?**

Bai. Baina liburu hauek ere ez dira guztiontzako aproposak. Ahoz ahokoak jendea erakartzen du, baina irakurlea beste mota bateko liburu batzuk irakurtzera ohituta badago, ez da gustuko irakurketa bat izango. *Best seller* bat izan arren, ezin da arrakatsua izan mota guztietako erabiltzaileentzat.

**Gogoan duzu best seller horietako bat?**

Toti Martinez de Lezearen hasierako liburuek arrakasta izugarria izan zuten, eta ale bat baino gehiago erosi arren ez ginen erabiltzaileen beharretara iristen, eta beti zegoen itxaron zerrenda.

**Erabiltzaileak erakartzeko, gainera, askotariko ekintzak egiten dituzue liburutegian.**

Haur liburutegian txikiei zuzendutako saioak egin ditugu; nagu-

## NIRE HERRIAN

## HERRIKO ONDAREA

Bergarak duen ondareaz harro nago. Jende askok ez du herriko aberastasun guztia ezagutzen, baina erdiguneak ikusgarriak diren hainbat eraikin ditu; gehienak, gainera, oso egoera onean daudela uste dut. Orokorrean, herri polit batean bizi naizela uste dut; edertasunaz gain, ondare eta historia handia dituela esango nuke.

## APARKATZEKO ARAZOAK

Nik ez dut askorik nabari, baina herriko zenbait tokitan aparkatzea oso zaila da. Badakit TAO sistema jarri zenetik egoerak hobera egin duela, baina, Bergara bisitari asko jasotzen dituen herria dela kontuan izanda, lehen irudi hori ez da oso erakargarria. Guztion artean hobetu beharreko aspektu bat dela iruditzen zait.

sien kasuan, berriz, osoko bilkuren aretoan burutu ditugu. Biak hilabete behin izan ziren, eta arrakasta izugarria izan zuten. Irakurketa Klubaren bilakaerarekin ere oso pozik nago. Gaztelaniako taldean 22 lagun batu gara eta euskarazkoan, hamalau. Jendea oso gustura etorri da, eta ekintza aberasgarria dela iruditzen zait. Hasi berri dugun ikasturtean segitzeko asmoa dugu.

**Liburutegira ekarri dituzun azken argitalpenetatik, zeintzuk dira deigarrienak?**

Liburu ugari erosi ditugu azkenaldian, baina zenbait izenburuk atentzioa eman didate. Agnes Martinen *La gente feliz lee y toma café* liburu kurioso iruditu zait. Eta, adibidez, *El sanador de caballos* asko gustatu zitzaidanez, idazle berak kaleratu berri duen *Pacto de lealtad* eleberria irakurtzeko gogoz nago.

# HERRIAK

ARETXABAETA

## Hector Prieto: eskuak gelditu, baina burua bizkor

- Bi blog ditu: historia kontuen gainekoa eta UDAko futbol taldeen gainekoa
- Ohorezko bazkide izendatu du aurten UDAk, lehenengoa da

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Gurpildun aulkian dabil urte askoan Hector Prieto (Aretxabaleta, 1983), eta eskuak ere ez ditu mugitzen. Izan ere, muskulueta-ko gaitz degeneratiboa du. Hala ere, ez da gelditu egotekoa eta esku barik ere aise idazten du ordenagailuan, ahotsak lagunduta. Ordu asko pasatzen ditu, gainera, "negua luzea da-eta". Eta, hala, bi blog ditu. Bata, historia kontuak jasotzen dituena: *Rinconcito de los sueños*. Izan ere, Historia ikasketak egin zituen Gasteizen. Eta bestea, Aretxabaleta kirol elkar-tereko futbol kontuak bateratzen dituena: *Pasión celeste*. Hain zuzen, UDAk lehenengo ohorezko bazkide izendatu du Prieto.

### Historia, bizitzaren ardatz

"Beti gustatu izan zait idaztea, Loramendik antolatutako ipuin lehiaketara beti aurkeztzen nintzen, baina neuretako idazten nuen, batez ere. 2011n osasun arazo larriak izan nituen. Orduan jabetu nintzen bizitzak edozein unetan esan dezakeela agur, eta egunerokoa bizi behar dela, ahal den energia guztiarekin, gainera. Eta erabaki nuen gustuko dudana egitea. Ospitalean bertan hasi nintzen bloga zelakoa izango zen pentsatzen", jakinarazi du 31 urte dituen Prietok.

Orduan etorri zen *El Rinconcito de los sueños*. Historia kontuak jasotzen ditu, batez ere, eta baita kultura, literatura, musika eta gaur egungo kontuak ere. "Historia da nire pasiorik handiena.



Hector Prieto eskuinaldean eta haren alboan: aitaita, Pepi Rosado ama, osaba, izeba eta amama. | M.A.

Oso goiz jakin nuen Historian lizentziatu gura nuela. Hori baino gehiago, nire bizitzako ardatzetako bat da; beti izan da nire babesleku txikia arazoak izan ditudanean", dio. Gaur egungo kontuen gainean ere idazten du noiz edo noiz, "gizartearengan konfiantza handia" duelako, baina historia kontuak dira nagusi: "Jendeak iragana ezagut dezan gura dut, egindako akatsak errepikatu barik jo dezagun aurrera. Batzuetan historiak erakusten du nondik jo", dio.

Eta Aretxabaletako kontuak ere aztertu izan ditu, "oso interesgarriak" direlako: "Orain, esaterako, XVIII. mendeko testa-

mentu batzuk aztertzen nabil. Oraindik ez dakit zer egingo dudan horiekin, baina gurako nuke Aretxabaletako hileta errituen gaineko zerbait idaztea".

### UDA bihotzean

"UDA da nire beste pasioa. Beti egon naiz nolabait elkarteari lotua, aitak eta anaiak kamiseta urdina jantzi dute-eta. Txikitatik eraman izan naute partidua ikustera eta orduz gero jarraipena egiten diet UDAko futbol talde guztiei", argitu du. Hala, Ibarra futbol zelaian jokatzeko diren partidua guztietan egoten saiatzen da, "neguan oso eguraldi txarra egiten duenen baten huts egingo

nuen". Eta iaz *Pasión celeste* bloga sortu zuen. "UDAren historia- ren gaineko zerbait ere sartu izan dut, baita futbolaren inguruan sortutako albiste kuriosoak ere: futbol jokalariei ezezagunak, ezohiko lehiaketak...". Eta denbora laburrean, ondo pasatzeko abian jarritako blog horrek harrera bikaina izan du: "Zuzendaritza batzordeko kideak oso ondo portatu ziren, lotura UDAren web atarian sartu zuten eta jarraitzaile mordoa hurbildu ziren horren bitartez. Hori bakarririk ere saria da niretzat, eta, gainera, sortu berri duten ohorezko bazkide izendatzea... Beti izango dut bihotzean", esan du.

HECTOR PRIETO  
HISTORIALARIA

### "Barkero ikusi gurako nuke UDAren kamiseta jantzita"

Hector Prieto motzean. Zelan definituko zenuke XXI. mendea?



Aldaketa garaia, bai historikoa, bai mentalitate aldaketa, espero dezagun onerako izatea. **Historiako lorpen bat aukeratu.**

Errusiako iraultza, bukatu bako ametsen garaia.

**Historiako zein garai gura izango zenuke bizi izan?**

Erdi Aroa; batez ere, Al Andalus ezagutu izana.

**Eta historiako zein pertsonaia?**

Che Guevara komandantea. **Aretxabaletan gertatutako zein gertakari?**

Gerra zibil garaian, gudarien batailoiek herria ausardia handiz defendatu izana Murumendi magalean. Arma askoz gutxiago zituzten, baina heroi- koki eutsi zioten. Gerra hartan Aretxabaletako gazte askok galdu zuten bizia.

**UDA, lehenengo taldea; eta bigarrena?**

Athletic, etxean denok gara zuri-gorriak. Kar, kar.

**Eta UDA berriro hirugarren mailan laster?**

Espero baietz, denboraldia ondo hasiz gero lor daitezke.

**Zein fitxatuko zenuke?**

Nik Barkero ikusi gurako nuke UDAren kamisetarekin.

**Zein albistek poztuko zintuzke asko?**

Azkenean, gizakiok elkarri min egiteari utzi diogula jakiteak; guztiondako lekua eta jatekoa izanik; eta zailena, banatu beharra dugula konbentzitu.



Motorretan nagusi

FORD FOCUS

EcoBoost motorrarekin | **12.990 eurogatik**



**MUGARRI AUTOAK** Ford Focus EcoBoost gama: batez besteko kontsumo konbinatua 4,7-7,2 l/100 km. CO2 emisioa 109-169 g/km. EcoBoost motorrak %20 hobetzen du kontsumoa motor arrunt batekin alderatuta. Focus Trend 1.0 EcoBoost, Auto-Start-Stop, 100 ZP (74 kW), 5 ate; Int. paketearekin eta Style paketearekin. Eskaintzaren barne daude: BEZa, matriculazio zerga, garraioa, promozio-deskontua, kontzesio-ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC S.E.rekin finantzatzeari. Vente a Ford Credit kanpainaren bidez (24 hilabeteko gutxieneko inapen-konpromisoa). Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren mende. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ikusten den modelook ez dauka zertan eskaintakoa izan. [Ford.es](http://Ford.es)

**Arrasate**  
Araba etorbidea 2/s  
tel.: 943795664

# Uda eskasari amaiera ona emateko ahalegin berezia

Barruko igerilekuak goizez zabalik eta kanpokoak arratsalde, hilaren 8tik 12ra

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Uztailean eta abuztuan eguna igerilekuan pasatzeko moduko egun gutxi izan dira. Eguraldiak ez du lagundu eta horrek ere bultzatu du Udaleko Kirol Saila asteon aditzera eman duen neurria hartzera. Datorren astean, udako denboraldiaren azken egunetan, barruko eta kanpoko igerilekuak zabalik egongo dira: "Ahalik eta herritar gehienengoa asebetetzeko, eta udako denboraldi amaierarako tartean nahiko eguraldi ona aurreikusten denez, aurten, lehen aldiz eta frogara gisa, formula berri bat erabiltzea erabaki da: goizez barruko igerilekuak zabaldu eta arratsaldez kanpokoak".

Azaldutenez, orain arte sekula aplikatu ez den formula horrek "gainkarga ekonomiko"

bat ekarriko dio kiroldegiari: "Baina astebetera mugatzen denez, aurre egitea merezi duela baloratu da. Izan ere, igerilekuko goizeko erabiltzaileek eguneroko martxari ekin ahal izango diote eta, aldiz, haur eta gaztetxoek, besteak beste, oraindik ere jai dituzten arratsaldeez gozatu ahaliko dute. Ezin da ahaztu aurten-

go udak ez digula, tamalez, kanpoko igerilekuez gozatzeko aukera handirik eman".

Udaleko Kirol Sailak aurten egingo du proba eta aurrerago baloratuko dira formula hori aplikatzearen ondorioak. Hortaz, irailaren 8tik 12ra arteko ordu-tegi berezia honako hau izango da: barruko igerilekuak 07:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik eta kanpoko igerilekuak, berriz, 14:00etatik 20:30era. Irailaren 13an eta 14an, berriz, barruko igerilekuak bakarrik egongo dira zabalik, 10:00etatik 20:30era. Udako denboraldia amaitu ostean, irailaren 15etik aurrera, barruko igerilekuak egun osoz zabalduko dira; astelehenetik egubakoitze-ra, 07:00etatik 22:00etara; zapatu eta domeketan, 09:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

## ESANAK

**"Formula berria erabiliko da lehen aldiz eta frogara gisa"**

UDALEKO KIROL SAILA



Eguraldi eskasagatik jende gutxi ibili da udan kanpoko igerilekuetan. | O. ELORTZA

## Uretan jolastu, eta zozketara

Udako denboraldian jende gutxi ibili da aurten, uztailean zein abuztuan. Hala ere, aurtengo eskaintza berrietako bat izan diren ur-jolasek harrera ona izan dute: "Eguraldi ona egin duen egunetan hainbat haur eta gaztetxo ibili dira jolasean", adierazi du sorosleak.

Bada, udako kanpaina amaitzen denean, zozketa egingo dute ur-jolasetan parte hartu duten guztien artean; bi lagunendako 12 sarrera zozketatuko dituzte.

Sariak abentura jarduerekin dute zerikusia: Aramaioko Hontza Extrem abentura parkera bisita, arroila-jaietsiera, espeleologia saioa, eta kanoan, kayakean edota zaldian ibiltzeko aukera, besteak beste. Jolasetan parte hartu zuten ume eta gaztetxoek izen-emate fitxa bat bete zuten parte hartu zuten aldi bakoitzeko beraz, geroago eta gehiago parte hartu saria jasotzeko orduan eta aukera gehiago. Esandako moduan, zozketa udako kanpaina amaitzen denean egingo da.

2014

# merkemerkaua

Arrasateko merkealdien azoka

Irailak 6

zapatua

10:00-20:30 (jarraian)

Lekuak

> Arrasateko kaleetan zehar:  
Maala, Olarte, Otalora, Garibai etorbidea, Biteri etorbidea, Zerkaosteta, Erdiko kale, Maiatzaren Bata Enparantza...

Kale animazioa

> Batukada 11:00-13:00  
> Buruhandiak 17:30-19:00

Antolatzailea

Babeslea



Aurtengo otsaileko Merkemerkauan Biteri plazan jarritako karpa. | IMANOL SORIANO

## Ibai-Arteko 35 bat saltoki biharko Merkemerkauan

Merkealdien azoka 10:00etatik 20:30era izango da; batukada eta buruhandiak ere egongo dira

**J.B.** | ARRASATE

Ibai-Arte elkarteko 35 bat saltokik hartuko dute parte biharko Merkemerkauan. Arropa, osagarri zein oinetako dende hartuko dute parte; generoa kalera atera eta eskaintza bereziak ipiniko dituzte merkatariek bihar 10:00etatik 20:30era, eten barik, egun osoan. Maalan, Olarten, Otaloran, Garibai etorbidean, Biterin, Zerkaostetan, Erdiko kalean eta Maiatzaren Lehena plazan, kalean bertan ipiniko dituzte saltokiak erdigunetik kanpo dauden komertzioetako mauek Biteri plazako karpagan egongo dira. Ordainketak eskudirutan egin beharko dira.

Era berean, kale animaziorik ez da falta izango, batukada goizean -11:00etatik 13:00etara- eta buruhandiak arratsaldean -17:30etik 19:00etara.

**100 otzara hilaren 19ra arte**

Bestalde, hileko hirugarren astean egingo den Merkataritza Berdearen astean harira, 100 otzara zozketatuko dituzte komertzioetan erosketengatik, hilaren 19ra arte. Sarituak izan diren bezeroek irailaren 20an jaso beharko dute saskia 13:15ean San Frantzisko eliza inguruan, hileroko baserri-tarren azokaren barruan.

Orduan jarriko dituzte erakusgai 100 otzarak eta saridunek komertzioaren zigilua daraman erosketa-txartela erakutsi beharko dute saskia jasotzeko. Honako baserrien produktuekin osatuko dituzte otzarak: Askasibar, Ikutixo, Enuzketa-aldekoa, Gorostiza, Bidasoro, Elkoro eta Tximitxarte. Banatzen ez diren otzarak Elikagai Bankura bideratuko dira.

## Informazio kanpaina txakur jabeei zuzenduta

J.B. | ARRASATE

Txakurren, txakur jabeen eta gainerako herritarren arteko elkarbizitza bultzatu gura du Udalak, eta, horretarako, informazio kanpaina abiatu du txakur jabeei ze betebeharrak dituzten gogorarazteko. Jabe guztiei etxera bidali zaie gutun bat, euren erantzukizunak zeintzuk diren azalduta eta indarrean zein araudi dagoen gogorarazita.

Irailan eta urrian, gainera, udaltzainek bereziki zainduko dute txakur jabeek onarritako arauak betetzen dituzten edo ez: "Udalak nahiko luke txakur jabeek euren erantzukizunak ganoraz betetzea, indarrean dagoen zigor araudi zorrotza aplikatu behar izan barik". Araudi horren adibideetako bat:

kakak jasotzen ez dituztenek 30 eta 300 euro arteko isuna ordaindu beharko lukete.

### Hiru gune, aske ibiltzeko

Bestalde, Udalak animaliaendako gune berriak prestatu eta hiri inguruan haien baldintzak hobetu gura ditu. Proba pilotu moduan hiru gune irekiko dituzte, txakurrak aske ibiltzeko –arriskutsuak diren txakurrak beti joan behar dute lotuta eta muturrekoaz–: Deba Ibaia kalean –Mankomunitatearen atzealdean, argazkian–, Zalduspe kalean –ospitale berriaren atzealdean– eta Gorostizako beheko landetan. Hiru guneak mugatutako berdeguneak izango dira, txakurrek jolas egiteko nahiko lekurekin.



Goikobaluko zuzendaritza taldeko kideak euren egoitzaren atarian, kontzertu berezia iragartzen. | JOKIN BEREZIARTUA

## Goikobaluren 25. urteurrenean, Donostiako Orfeoia gonbidatu

Irailaren 20an izango da kontzertua eta sarrerak salgai daude Interneten; Amaia leihatilan hilaren 11n, 12an eta 13an salduko dira (18:30-20:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Goikobalu abesbatzak aurten bete dituzte 25 urte eta datozen ospakizun ekitaldien berri eman dute Juan Antonio Barriocanal presidentek eta Iñaki Maidagan zuzendariak. Ospakizun ekitaldi batzuk egin dituzte dagoeneko; adibidez, 2009an hasitako Donejakue Bidearen azken etapa aurtengo maiatzean amaitu zuten Santiagoko katedraleko kontzertu gogoangarri bat eskainiz. Hala ere, emanaldi garrantzitsuenak urtea amaitu baino lehen egingo dituzte.

Lehen irailaren 20an izango da, Donostiako Orfeoia etorriko da eta Amaia antzokira. Ez da orkestra osoa etorriko, baina goi mailako emanaldia izango da: "Kontzertua ez da sinfonikoa izango, piano-jole batekin etorriko dira. Orkestra osoa ekartzea oso garestia da eta horregatik herrietan egin ohi dituzten kontzertua eskainiko dute hemen", adierazi du Maidaganek. Sarrerak interneten salgai daude dagoeneko eta Amaia leihatilan irailaren 11n, 12an eta 13an egongo dira salgai, 18:30etik 20:00etara. Prezioa 18 euro da.

### Harreman estua aspalditik

Donostiako Orfeoia eta Goikobaluren arteko harremana estua da aspalditik; Goikobaluko kide izan direnetako batzuk orfeoian ere abestu izan dute, esaterako. Horien artean daude, besteak beste, Juan Bautista Agirre, Mikel Arregi, Eugenio Etxebeste eta Gabriel Mendizabal. Gainera, orfeoia Arrasaten eman zuen lehen kontzertua, 1896an, eta 100. urteurreneko azken ekitaldiak ere Arrasaten egin ziren, Herriko Plazan eta Amaia antzokian saio bana eginda.

Bestalde, azaroaren 15erako beste ekitaldi berezi bat antolatuko

dute abesbatzakoek, *Carmina Burana* obra: "Obra oso polita da, erritmikoa batez ere, nahiz eta badituen pasarte melodikoak. Oso entzungarria da eta baita

ikusgarria ere. Koru handia behar da eta bakarlarik oso onak; ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara". *Carmina Burana* obrarako entseguekin irailan hasiko dira.



Deba Ibaia kalean egokitutako txakurrendako jolasgunea. | ARRASATEKO UDALA

## Irailaren 9tik 11ra ate irekiak egingo dira kiroldegian, kirol jarduerak probatzeko

J.B. | ARRASATE

Irailaren 9tik 11ra ate irekiak egingo dira Musakolako kiroldegian: spinninga, pilatesa, zumba, *k-stretch*, *nordic walking*, *aquarunning*... Lekua ziurtatzeko plaza erreserba daiteke kiroldegira deituta (943 77 16 77) edo bertara hurbilduta. Begiraleak bertan egongo dira edo

zein zalantza argitzeko. Bestalde, haurtxoendako igeriketa ikastaroak eskari handia izan zuen iaz eta horregatik zozketa bat antolatu du Udalak sei hilabetetik 4 urtera arteko umeendako. Zozketan parte hartzeko kiroldegian eman behar da izena; izen-emate epea zabalik dago irailaren 16ra arte.

### OHARRAK

#### 1952AN JAIOTAKOAK

Urriaren 18an irteera egingo dute Zumaiara eta Zarautzera. 1952an jaio eta parte hartu gura dutenek 70 euroko ordainketa egin beharko dute Laboral Kutxaren honako kontu korrante zenbakian: 3035 0001 51 0010128714. Izena ematen dutenak 09:15ean irtengo dira Garibaiko geltokitik.

#### 1958AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 8an irteera egingo dute Arabako Errioxara. Parte hartzeko 60 euroko ordainketa egin beharko da Laboral Kutxako kontu korrante zenbaki honetan, urriaren 27a baino lehen: 3035 0001 59 0011144438. 09:00etan irtengo dira Garibaiko geltokitik.

## Irailaren 14an egingo da erromesaldia Arantzazura

Hilaren 14an, Ama Birjinaren festa ospatu eta hurrengo domekan, fededun arrasatearrek Arantzazura egingo dute urteroko erromesaldia. Autobusez joan gura duenak Viajes Ecuador agentzian ditu salgai txartelak –Kontzezino kalea 2–, hamar eurotan. Autobusa hilaren 14an irtengo da Garibaitik, 09:00etan. Era berean, oinez joatea erabakitzen dute zenbait fededunek; 06:30ean irtengo dira Kontzezinoetik, eta Larrinotik Urkulura abiatuko dira. Gero, Urrexola Garai auzoa zeharkatu eta Gesaltzara joango dira. Gesaltzan gainerakoekin elkartuko dira Arantzazura igotzeko.

## IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

BASLIDA



### INGELESA

- PET.
- FIRST.
- ADVANCED.

- Irailetik aurrera, ikastaro trinkoak prezio ezin hobean!  
- Azterketak Arrasaten bertan, Bastida akademian egiteko aukera.  
- IRAILEAN INGELESEAN IZENA EMAN, ETA MATRIKULA DOAN IZANGO DUZU.

### ESKOLA PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Ingeniaritza
- Enpresa Ikasketak

### INFORMATIKA

- Word.
- Excel.
- Access.
- Power Point.
- Mekanografia.
- Internet.
- Sistema eragileak.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33  
bastida@bastida.es • www.bastida.es

# Txalaparta hotsak izango dira zapatuan Udalatxeko gailurretik

Ttakun taldeak edonork parte hartzeko moduko saioa antolatu du mendiko gailurrean bertan, lehen aldiz

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ttakun txalaparta taldeak ekitaldi berritzaile eta interesgarria antolatu du zapatu honetarako, hilak 6. *Udalatxparta* izena jarri diote; gonbidapen irekia egin dute Udalatxera igo eta gailurrean bertan txalaparta saioekin gozatzeko: "Gura duenak probatzeko aukera izango du", diote. Ez dago izenik eman beharrik, nahikoa izango da zapatuan 10:30ean Udal auzoko aparkalekura hurbiltzea. Horren ondoren, gailurrera igo eta 12:00etan saio librean hasiko dira eta jatekorik eta edatekorik ez da falta izango.

Lehen aldia izango da Udalatxeko gailurrera igoko direna txalapartarekin. Ttakun taldeak bizi duen loraldiaren ondorioa da ekimen berezia, taldeko Gorka Zubizarretak azaldu duenez: "Iaz sortu zen ideia, entsegu batean. Aurtengo Txalaparta Egunak izan duen arrakasta ikusita erabaki dugu ikasturte berria ekimen berri batekin hastea, eta eguraldia aldrebestu aurretik antolatu dugu".



Ttakun taldeko kideak, Pirinioetan. | IMANOL SORIANO

## Uste baino arrakastatsuagoa

Izena ematea beharrezkoa ez den arren, Ttakunekoek dagoeneko badakite jende askok duela bertaratzeko asmoa. "Hasieran ez genion zabalkunde handirik eman nahi, baina sare sozialetan espero baino gehiago hedatu da. Arrasatek ez ezik, inguruko herrie-

tatik ere etorriko da jendea" azaldu du Zubizarretak. Zapatu eguerdian, beraz, goiz-pasa desberdina egiteko aukera izango da Udalatxen. Dena den, bertaratu ezin direnek ere izango dute agian ttakun hotsak entzuterik, txalapartariak oholak indartsu kolpatzen badituzte.

# Indartsu dator Arrasate Musikal ikasturte berrian

Domekan bertan eskainiko dute lehen kontzertua bandakoek, Leintz Gatzagan

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Oporrak amaitu dira eta musikariak bueltan dira Monterrongo jauregira. Eskola arruntak datorren astelehenean hasiko badira ere, ordu egien antolaketan lanean ari dira Arrasate Musikalekoak. Dagoeneko entzun daitezke lehen musika notak, kurtso berriari indartsu ekin baitiote bandakoek. Hilaren 7an 13:00etan izango dute lehen kontzertua, Leintz Gatzagako jaien aitzakian. Arrasate Musikaleko irakasle Edorta Aiastuik azaldu duenez, uda aurretik jaso zuten gatzagarren gonbidapena festetarako, eta

gustura onartu zuten. "Erronka zaila zen, ikasturte hasiera izanik bi entsegutarako denbora bakarrik izango dugulako, baina, bestetik, musikariak gogotsu itzuliko dira oporretatik" azaldu du Aiastuik.

## Big Band gaztea

Hurrengo kontzertua Big Band taldeak eskainiko du, Altsasun, irailaren 14an. Gainera, aurtengo ikasturtean, berrikuntza gisa, Big Band Gaztea taldea ere sortu dute. Bertan trebatuko dira musikari gazteak, eta hemendik aurrera, Big Band taldearen harrobi izango da.

## Bizipoza jaialdirako sarrerak martitzenean jarriko dituzte salgai, eguerditik aurrera

Irailaren 21ean ospatuko da Bizipoza jaia, eta datorren martitzen eguerditik aurrera erosi ahal izango dira sarrerak. Jaialdirako sarrerak pirata-zapiak izango dira, Elkar dendan eta Gazte Bulegoan jarriko dituzte salgai bost eurotan, eta hilaren 19ra arte eskuratuko ahal izango dira. Irrien Lagunak Klubeko txartela duten hurreko sarrera doan izango dute, urte osoan proiektua babesteagatik, eta guraso zein helduek ere ez dute ordaindu beharrik izango jaira sartzeko.

# Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!  
Izan haien berri gure webgunean  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

ONGI  
ETORRI

Bista ederrak  
Atikoak 198.000 €-tik  
hasita

Zatoz eta hitz  
egingo dugu **600 902 224**



UTE URIBARRI  
**sukia GEDI**

# Udalak 1,7 milioi jasoko ditu trukea betetzeko

Aldundiaren diruak Arrizuriaga eta Errege Mintegia trukatzeko balioko du

M.ARREGI/I.GALLEGO | BERGARA

Joan den uztailaren 29an egin-dako Diputatuen Kontseiluan erabaki zen Errege Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko permuta betetzeko Bergarako Udalari 1.717.000 euroko diru laguntza ematea. Diru laguntza horri esker, Bergarako Udalak Errege Mintegia eskuratuko du, besteak beste, bertan kulturako erabilera askotariko gunea -hila-bete honetan hasiko dira gune hori egokitzeko lanak eta urtea amaitu aurretik bukatuko dituzte- eta museoa kokatzeko.

Hain justu ere, bi eraikinen arteko diferentzia estaltzeko emango dio Aldundiak Udalari diru laguntza hori.

Bi eraikin horien arteko trukea bete eta gero, UNEDeko Patronatuak bere gain hartuko ditu Arrizuriaga jauregiko obrak. Hain justu ere, lan horien aurrekontua 3.288.000 euro izango da, eta, hain zuzen, patronoen artean ordainduko dute, bakoitzak duen zatiaren arabera: Kutzak %26,39, Gipuzkoako Foru Aldundiak %63,61 eta Bergarako Udalak



Gobernu taldea Errege Seminarioaren aurrean. | MIREN ARREGI

## ESANAK

**"Permuta oso pozgarria izan da Bergara eta herritarrentzat"**

JAIONE ISAZELAIA  
BERGARAKO ALKATEA

%10. Bada, obrak ordaintzeko, eskualdatzeagatik jasotako dirua eta UNED-Bergara fundazioak onartuko duen aparteko diru partida bat erabiliko da. Eta, beranduenez jota, hiru urteko epean, UNEDek Arrizuriaga jauregian egon beharko du.

### Hurrengo urratsak

Astelehenean, hilak 8, ezohiko osoko bilkura egingo da, eta bertan onartuko da Diputazioak

planteatu duen hitzarmena. Hila-bete honetan batuko da Patronatua: hurrengo pausoa izango da eraikinarik eskrituraztea.

### Trukearen aurrekariak

2006an utzi zion Estatuak UNED-Bergara fundazioari Errege Mintegia eta hark 2008ko abenduan erosi zuen 1.000.000 euroren truke. Erosi ondoren, Aranzadi Ikastolari utzi zion 75 urterako eraikinarik zati bat.

2009an planteatu zion Bergarako Udalak UNED Fundazioari Arrizuriagaren eta Errege Mintegiaren arteko trukea, baina UNEDek onartu ez, eta Errege Seminarioan oinarritzeko egitura obra batzuk egitea erabaki zuen, betiere, etorkizunean Udalak eraikinarik eman gura zion erabilera baldintzatu barik.

Joan den ekainaren 6an egin-dako Patronatuko bileran onartu zuten Errege Seminarioa Arrizuriaga jauregiarengatik trukatzeko.

### Udal Gobernuak, pozik

Pozik agertu dira gaur Udal Gobernu kideak trukea ahalbidetuko duen Foru Aldundiaren diru laguntza hori dela-eta. Jaione Isazelaia alkatearen esanetan, "oso albiste pozgarria" izan da. Eta gaineratu du: "Lanketa luzea izan da, eta ez soilik Udal Gobernu honena; izan ere, aurreko taldeak ere lan handia egin du kontu honekin. Hau da, urte askoren ostean egindako lan luze horren emaitza".

## Bedelkar elkarteak bihar egingo du udako merkealdi azoka Seminarioan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako Merkatarien Elkarteak udako merkealdi azoka antolatu du biharko. Beste azoka batzuetan egin duten moduan, denboraldia amaitu eta gero, merkealdi azokan eskainiko dituzten produktu guztiek deskontu handiak izango dituzte.

Egun osoko azoka izango da, goiz eta arratsaldez egongo da zabalik, baina, aurreneko aldiz, salgaiak saltoki aurrera atera beharrean, Seminarioan dagoen karpan batu-ko dituzte. Lehen aldiz, postu guztiak batera egongo dira.

### 16 beharrean, 17

Hasieran hamasei merkatarik izena eman zuten arren, asteon hamazazpigarren batek ere bat egin du ekimenarekin.

Biharko azokan, besteak beste, emakume, gizon eta haur arropa, kirol arropa, osagarriak eta oinetakoak topatuko dituzte erosleek. Betiko moduan, karpan eskainiko diren produktu guztiek berme eta kalitate onena izateaz gain, deskontu erakar-garri bat ere izango dute.

# ariznoa elkarteak

## 2014-2015 KURTZO HASIERA

### Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 5ean, 18:00etan, Labegaraitan

### Aurre-benjaminak I (2009an jaiok):

irailaren 18an, 17:30etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailetakoak):

irailaren 18an, 18:15etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Benjaminak (3. eta 4. mailetakoak):

irailaren 18an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

### Antzuolako taldea:

irailaren 17an, 14:30etan, frontoian



### Matrikula berrientzako bilera informatiboa

Irailaren 11n, 18:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Harremanetarako: [ariznoa\\_ge@hotmail.com](mailto:ariznoa_ge@hotmail.com)

690 394 492 telefonoa (10:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian)

Iraila osoan zehar  
ATE IREKIAK Ipintzan.

Etor zaituzte  
gu ezagutzera!

# Agorrosingo kirol gunean hasi dira ikasturtea prestatzen

Gaur amaituko da Agorrosingo igerilekuetako eta lehorreko kirol jardueretako izen-ematea

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Ikasturte berriarekin helburu berriak ipintzen dizkio jendeak bere buruari, eta, nola ez, horietako batzuek kirolarekin zerikusia izaten dute. Gauzak horrela, Agorrosin, aste honetan ekin diete ikasturte berria prestatzeko lanei. Eguaztenezan ireki zuten igerilekuko ikastaro eta jardueretako izen-ematea, eta, lehorreko ekintzen zerrendarekin batera, gaur itxiko dute izen ematea. Urtero bezala, eskaintza zabalera gertatzeaz gain, erabiltzaileek jarduerak berriak ere topatuko dituzte.

## Zozketa barik

Igerilekuko jarduerak jende asko erakartzen dute, eta, azken urteetan zozketa bidezko sistema erabili eta gero, aurten beste sistema bat erabiliko dute. "Aurten, taldeak jendearen eskaeren arabera antolatuko ditugu", azaldu du Agorrosingo gerente Igor Isasik.

Adin guztietarako jarduerak prestatu dituzte eta erabiltzaileek hainbat berrikuntza ere topatuko dituzte. "Urtero eskaintzen ditugun areto bizikleta, pilates edo GAP egiteko aukera izateaz gain, aurten, jendeak nahi badu, hipopilates, crossfit eta bodybalance egiteko aukera emango dugu", dio Isasik.

## Abuztu lasaia

Bestetik, abuztuan izan ez diren egun epelak izan dira egunotan, eta oraindik opor giroari agur esan gura ez diotenak kanpoko igerilekuan elkartu ziren martitzen goizean.

Ez da ona izan aurtengo uda Bergarako igerilekuetan. Iaz uztailean, esaterako, 43.000 sarrera izan ziren Agorrosin, eta aurten, 28.000. Aldea nabarmena da. Abuztuko eguraldi petralak span eragin du igoera. Han, iaz baino jende gehiago ibili da.

## Astebetex itxita

Datorren aste osoan, uda osteko garbiketa dela eta, taberna ez ezik, kirolgunea ere itxita egongo da. Hala ere, kanpoko igeritokia zabalik egongo da, astegunetan 15:00etatik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 20:00etara. Sarrera, ordea, Ipin-tza futbol zelaitik izango da.

Denboraldi berriari hasiera emango zaio, beraz, hilaren 15etik aurrera. Dena den, San Martin jaiak direla eta, 16an kiroldegia itxita egongo da; jaiegun horren ostean, baina, Agorrosin ohiko ordutegira bueltatuko da. Bertako gerentek hauxe azaldu du: "Aukerak hor dituzue, jendea animatzea berririk ez da gelditzen".



laz egin zuten auzo bazkaria. | EDURNE ARENAZA

## Laugarren urtez, domeka goizean egingo dute azoka eta herri dastatzea San Juan auzoan

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Irailean lanera bueltatu behar izateak beti dauka zapore mikatza, baina San Juan auzoan, lanegun hauei zaporea aldatzeko azoka eta dastatzea antolatu dituzte. Domekakoa laugarren edizioa izango da, eta ibilbide labur honetan, azoka egun berezi honek, auzotarrak ez ezik, inguruko hainbat pertsona erakartzea ere lortu du.

Auzoko plazan izango da azoka, 11:30ean; dastatzea, berriz, 12:30ean hasiko da. Azokan zein dastatzean egongo diren produktuek San Juango IV. ortu lehiaketan parte hartutako ortuetakoak izango dira. Dastatzeari dago-

kionez, aurreko urteetan bezala, plater konbinatua eta edaria bost euroren truke salduko dute.

## Musika eta argazkiak

Domekan, plaza inguruan egongo den giro ona alaitzeko, Bergarako trikitilariak ere euren saiotxoak egingo dute.

Dirudienez, bazkaloste animatua izango dute auzoan; izan ere, batzuek mahaiaren bueltan hitz egiten duten bitartean, beste batzuek trikitiaren soinuari jarraituta dantza egiteko aukera izango dute. Hori bai, seguruenez, guztiak gerturatuko dira laugarren ortu lehiaketako argazkiak ikustera.



IMANOL GALLEGU

## Parrillada eta guzti

Uda osteko lehen baserriar azoka berezia izan zen. Hilero bezala, sasoiko eta gertuko produktuak erosteko aukera izateaz gain, eguaztenezan, azokan, bertako produktuekin parrillada egin zuten. Ikasturteko lehen azokak, eskaintza paregabea izateaz gain, zapore bikaina ere izan zuen.

## Gaur banatuko dituzte instrumentuen ordutegiak BMEn

Arratsaldeko lauretan ekingo diote instrumentuetako klaseen ordutegi banaketari Bergarako Musika Eskolan. Ikasle bakoitzak aurrez emandako orduan gerturatu beharko du Musika Eskolara, eta bere behar eta gainontzeko eskolaz kanpoko jardueren arabera komeni zaion ordua aukeratu du. Klaseak astelehenean hasiko dituzte.

## San Martineko txikiak eraikin berriari hasiko dute ikasturtea

Astelehenean abiatuko dute ikasturtea San Martin Agirre Herri Eskolan. Bada, zenbait hilabetetako lanen ostean, normalatasun osoz hasiko dira Haur Hezkuntzako ikasleak Martinez de Iralako eraikin berriuan. 8tik 19ra goizez izango dituzte eskolak, 09:00etatik 13:00etara. Jangelako erabiltzaileendako 14:30ak arte luzatuko da ordutegia.


## 'Peter Pan' musikala agurtzeko bazkaria egingo dute zapatuan

Azken emanaldiaren aurretik, bihar egingo dute musikaleko parte hartzaileek ikuskizun arrakastatsu horri agur esateko bazkaria. 09:30ean orkestrarekin entsegua izango dute. 13:30ean *Peter-poteoa* egingo dute Irala kaletik Agorrosinerraino, eta 14:30ean igerilekuko tabernan bazkaldu ostean, dantzaldia eta karaoke izango dute.

## Antonio Lizanaren jazz flamenkoa seminarioan gaur

Cadizko musikariak bere fusio doinuak erakutsiko ditu Seminarioko patioan, 20:00etan. Antonio Lizanak, jazz eta flamenkoa batu beharrean, saxofoiarekin eta ahotsarekin bi doinuekin jolasten du. Lizana, baina, ez da bakarrik egongo, eta emanaldian baterria, baxu eta piano doinuak ere entzungo dira.


# MIZPILDI



## OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

# ESPOLON



School of English

BERGARA

Ibargarai 31. Barruko Plaza  
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

ANTZUOLA

Errekalde auzoa  
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

espolon@euskalnet.net

# INGELES KLASEAK

Goizez, arratsaldez eta eguerdiz

- Maila guztiak
- Adin guztiendako

Cambridgeko azterketetan izan dituzuen emaitza onengatik, gure ikasle guztiei ZORIONAK!

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

# Burdiñate



Puente al Inglés  
Akademia

Ingeleseko klaseak • Azterketa ofizialean prestaketa Eskolen errefortzua

Informa zaitez konpromiso gabe!

Tel.: 943 54 09 12 - Burdiñate 5 behea, BERGARA



2014 BERGARA TEAM

KRAV MAGA

WE DO BAD THINGS TO BAD PEOPLE

# BERGARAKO SHOTOKAN KARATE - DO KE

## KRAV MAGA - BERGARA DEFENTSA PERTSONALA

空手道連合大英  
BERGARAKO SHOTOKAN



**SHOTOKAN KARATE ESKOLAK  
IRAILAREN 8AN HASIKO DIRA.  
ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN.**

Umeak:

- 1. Txanda: 17:30etik 18:30era
- 2. Txanda: 18:30etik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:15era

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, [bergarako.shotokan@gmail.com](mailto:bergarako.shotokan@gmail.com) helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza institutuko DBH eraikineko gimnasioa entrenamendu orduetan.



**DEFENTSA PERTSONALA  
BERGARAKO KRAV MAGA ESKOLA**

Entrenamenduak irailaren 9an hasiko dira Bergarako institutuko DBH eraikineko gimnasioan.

**GAZTEAK:** Astearteetan eta ostegunetan 18:00etik 19:00etara.  
**HELDUAK:** Astearteetan eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era.

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, [bergarako.shotokan@gmail.com](mailto:bergarako.shotokan@gmail.com) helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza institutuko DBH eraikineko gimnasioa entrenamendu orduetan.





Igor Ezpeleta, Ingurumen zinegotzia, gaurtik aurrera martxan egongo den Jose Arana kaleko semaforoaren alboan. | M.A.

# Oinezkoen kalea da Arana gaurtik, hainbat ordutan

Astegunetan 17:00etatik 21:00etara izango dute lehentasuna, baita zapatu eguerditik domeka gauera

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Ekaina ezkeror norabide bakarra dauka Jose Arana kaleak; hau da, Arrasate alderakoa, eta gaurtik ordutegia izango du, gainera. Hala, astelehenetik egubakoitze-  
ra 17:00etatik 21:00etara itxi egingo dute ibilgailuendako, eta zapatuetan, 13:30etik domekako 00:00ak arte; jai bezperetan ere itxita

egongo da 17:00etatik hurrengo eguneko gauerdia arte. Horren guztiaren berri webgunean eman-  
go du Udalak, eta kalean bertan ere bai panel bidez.

## Herritarrekin elkartuta

Eskoriatza erdiko kale nagusiak itxura berria hartu du azken hila-  
beteotan, eta orain, oinezkoek

izango dute lehentasuna hainbat ordutan. Udal ordezkarie-  
n asmoa izan da hori, baina eskoriatzarrekin batera adostu gura izan dute. Hala, hainbat herritarrekin eta zenbait negoziotako ordezkariekin bilera egin zuten uztail hasieran, eta ondoren hilabeteko epea izan dute gainerako herritarrek iradokizunak aurkezteko.

Horiek jaso ostean, "pilatxo bat", astelehenean egin zuten batzarra eta erabaki gaur abian jarriko duten ordutegia. Herritarrek egin-  
dako eskaera bat ere hartu dute kontuan: "Larrialdi kasuren bat edo behar bereziren bat egoten bada kalea zabaltzea eskatu dute", dio Igor Ezpeletak, Ingurumen zinegotziak. Horretarako, udal-  
tzainengana jo beharko dute -943 71 45 32 eta [udaltzaina@eskoriatza.net](mailto:udaltzaina@eskoriatza.net)-, eta haiek erabakiko dute eskaera onartu edo ez.

## Autobus geltokian aldaketak

Kalea pibote hidrauliko batekin itxiko dute, semaforo txiki bati programatuta dagoen pibotea. Itxita dagoenean, Arrasaterantz doazen autoek Aranburuzabala kaletik San Juan kalerantz har-  
tu beharko dute, eta Olazartik bueltan, Gaztañaduiko biribil-

gunera jo. Gasteizera doazenak, ostera, azken hilabeteotan legez Arbiñostetik joango dira. "Ekai-  
netik doaz autoak Arbiñostetik eta ez da egon arazorik. Baina txirindulariei gogorarazi behar zaie ibilgailu guztiendako dela norabide bakarra, ez bakarrik autoendako", jakinarazi du Ibon Segura udaltzainak.

Aranburuzabala kaletik pasatzen diren autobusetan ere eragina izango du kalearen itxierak. "Aranburuzabala kaleko geltokitik orduo bakarrik pasatuko dira autobusak kalea itxita dagoenean. Geltokia bera ere tokiz aldatuko da; orain, goraxeago egongo da, estazio zaharretik datorren kale horretan, hain zuzen ere, Alza inguruan", argitu du Ingurumen zinegotziak.

## Apurketak salatu

Itxura dotorea du ekaina ezkeror Jose Aranak, otzara formako loreontziekin txukunduta, baina guztien gustuko ez direlakoan dago zinegotzia, apurketak izan dira-eta: "Aldaketa handia izan da eta denbora behar da ohitze-  
ko; edozelan ere, loreontziak apurtu izan dituzte, landareak apurtu eta ostu... eta hori salatzekoa da gero".

## ESANAK

**"Larrialdi kasuren bat edo behar bereziaren bat izanez gero, udaltzainei egin eskaera"**

IGOR EZPELETA | INGURUMEN ZINEGOTZIA

## Irailaren 19a arte zabalik argazki lehiaketara aurkezteko epea

Udako argazkiak Ibarraundira bidali behar dira

M.A. | ESKORIATZA

Hirugarrenez deitu du Ibarraundi museoak udako argazki lehiaketa, eta eskoriatzarrek (adin mugarik gabe) irailaren 19a bitartean dute epea lanok aurkezteko. Bakoitzak bi argazki aurkeztu ahal izango ditu, gehie-  
nez, eta inon argitaratu bakoak izan beharko dute. Museora bertara bidali behar dira; hona helbidea: [ibarraundi@eskoriatza.net](mailto:ibarraundi@eskoriatza.net). Argazkiak digitalizatu-  
ta aurkeztu beharko dira eta bidaltzerakoan zera adierazi beharko da: egilearen helbide elektronikoa; adina; eta lanaren izenburua.

## Botoa emateko aukera

Aurkeztutako argazki guzti-  
tatik 30 aukeratuko dituzte udal ordezkariek, eta horiekin erakusketa egingo dute Ibarraundi-  
n, irailaren 29tik urriaren 3ra bitartean (biak barne).

Irabazlea, ostera, udal ordezkariek eta herritarrek elkarrekin aukeratuko dute. Hiru boto izango dira: bata Garapen batzordeak emango du; bestea, herritarrek Ibarraundiko erakusketan; eta hirugarrena, Facebook eta Udalaren webgunearen bidez. Berdinketa izanez gero Garapen batzordeak erabakiko duela iragarri dute.

## Sari banaketa urriaren 8an

Erakusketak iraun bitartean bozkatu ahal izango dute herritarrek; hau da, irailaren 29tik urriaren 8an, eguaztena, argazki onenaren saria banatuko da. Hiru irabazle egongo dira adinaren arabera: 15 urtera arteko egilearendako; 16 eta 49 urte artekoarendako; eta 50 urtetik gorakoarendako. Bakoitzak 50 axtrokiko bonu bana jasoko du.

## Carmen Aranburuzabala hil da, Eskoriatzako nagusiena

M.A. | ESKORIATZA

Eguaztenean, irailaren 3an, hil zen Carmen Aranburuzabala Azkoaga, Eskoriatzako edade-  
tuena.

Uztailaren 16an, Karmengo Amaren egunean, bete zituen 105 urte, eta omenalditxo jaso zuen udal ordezkarie-  
n eta Ola-

zar erretiratuen elkarteko kideen partetik. Alai eta umoretsu hartu zituen orduan zoriontzera eta oparia ematera hurbildutako guztiak -senideak, lagunak eta erakundeetako kideak- zaharren egoitzan, azken urteotan bizileku zuen etxean.



Carmen Aranburuzabala. | UDALA

## Gaur bukatuko da gaztelekua kudeatzeko eskaintzendako epea

Gaztelekua kudeatuko duen enpresa hartzeko lehiaketa deia egin zuen Udalak, eta oinarriak argitaratu uztailaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskaintzak udal-  
txean aurkeztu behar dira, eta gaur da azken eguna. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin.

## Goitibehera lasterketan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Irailaren 20an jokatu dute Eskoriatzako Goitibehera Lasterketa, Euskal Ligarako puntuagarria dena, eta izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Honako webgune honetan eman behar da izena: [www.fotomotor.es](http://www.fotomotor.es). Eskoriatzako Goitibehera Zaleek antolatu dute, eta iragarri dute goitibehera barregarrienak ere saria izango duela.

## Debagoieneko trenaren gaineko tertulia dago irailaren 16an

Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astearren barruan, Debagoienean sasoi batean izandako trena izango dute berbetagai hilaren 16an, martitzena, zaharren egoitzan (10:30). Udalak antolatuta, trenaren gaineko bideo bat emango dute lehenengo, eta, horren ostean, tertulia izango da elkartutakoen artean.

# Lanean jarraituko du Gure Esku Dagok eta ekarpenak jaso gura ditu

- ▶ Jaialditxo egingo dute plazan gaur, 18:30ean
- ▶ Han erantzun daiteke gertatu duten galdetegia

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hiru hilabete pasatu dira Gure Esku Dago dinamika deituta giza katea egin zenetik, eta oportunitate bueltan, lanari heldu dio berriro Aretxabaletako lantaldeak: "Ziur gaude ekainaren 8a oroitzen polita dela guztiontzat. Hemendik aurrera ere, horrela jarraitu nahi dugu, oroitzen politekin, erabakitze eskubidea gauzatzeko bidean urratsak egiten". Hori horrela, ekarpenak egitera gonbidatu dituzte aretxabaletarrak.

**Balorazioa eta proposamenak**

Ekainaren 8a bukaera izan beharrean "hasiera" izan zela diote Gure Esku Dago lantaldeko kideek, eta herritarrek heldu behar diotela erronka horri: "Badakigu erabakitze eskubidea gauzatu arteko ibilbidean urratsak egin behar ditugula, eta argi daukagu herritarrok izan behar dugula bide horretan aktibo. Joan den ekainaren 21ean Euskal Herri osoko herritarrek bildu ziren Arrasaten, eta aurrera begirako ibilbidea marrazte-

ko orri zuri bat proposatu zuten, herriz herri jasotako ekarpenekin osatuko den orri zuria".

Ekarpen hori egiteko gonbidapena dagoeneko jaso dute ekaineko giza katearekin bat egin zuten aretxabaletarrek. Internet bidez bete dezakete galdetegi hori eta gaur, irailak 5, da horretarako azken eguna.

**Bertsolariak eta trikitilariak**

Bestalde, Aretxabaletako lantaldea oso pozik dago herritarrek emandako erantzunarekin, eta



Aretxabaletarrak, Kanpanzar inguruan, ekainaren 8an. | GOIENA

eskerrak eman gura dizkiete giza katean izan ziren guztiei: "Ekainaren 8an lortutakoa Aretxabaletan ere ospatu nahi dugu eta horretarako, irailaren 5ean, Herriko Plazan elkartzeko gonbidapena egin nahi dugu". Hala, 18:30ean elkartu eta bertsolariak eta Lur eta Lide trikitilariak izango dira jai-giroa sortzen plazan, eta txistorra mokadutxo eskainiko dute

gero, sagardoak lagun eginda. "Zure ingurukoei ere deialdiaren berri ematera animatzen zaitugu. Ea Kanpanzarren beste elkartzen garen!", diote antolatzaileek, aretxabaletar guztiak animatu guran.

Gainera, herritarren ekarpenak jasotzeko gertatu duten galdetegi hori gaurko ekitaldian ere erantzun ahal izango da.

## Sariak banatu eta banatu dabil Aretxarte martxoa ezkerro

Azaroa bukatu bitartean 50 euroko beste 25 bat txartel banatuko dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Sariak banatzen dabil Aretxarte merkatari elkarteak azken hilabeteotan. 50 euroko txartelak dira, Aretxarteko merkatari eta ostalaritza zerbitzuetan erabiltzeko, eta herritarrek "harritura" baina gustura jasotzen dituzte.

**Hogei bat txartel banatuta**

Belar Meta dendako ugazaba eta Aretxarte elkarteak kide Uxue Erañak dauka txartelak banatzeko ardura. Hilabetean lau edo bost banatzen ditu, eta edozein denda edo tabernatan sartu eta momentuan barruan dagoen bezero bati ematen dio: "Ezusteaz hartzen ditut herritarrek. Harritura geratzen dira guztiak; batzuek txantxa dela ere pentsatu izan dute, baina gero pozik jasotzen dute". Txartel horrek 50 euroko balioa du batzuetan, eta beste batzuetan, balio hori duen oparia ematen diote bezeroari.

Guztira, 45 denda eta taberna daude Aretxarten, eta dagoeneko hogei batek eman dituzte. Gainerakoek hemendik eta azaroa bukatu bitartean jasoko dituzte hautatutako bezeroek.

**Ixadabalde irailaren 13an**

Bestalde, irailaren 13an, zapatua, egingo dute Ixadabalde merkealdien azoka. Udaberri eta uda sasoiko osagaien beharpenak eskainiko dituzte arropa eta oinetako dendek, eta merkatutako produkturik onenak gainerakoek.



Maitane Garai, Exprex tabernakoa, Pedro Mulas sarituarekin. | UXUE ERAÑA



Eneritz Errasti saria jasotzen Imanol Etxeberriaren eskutik. | UXUE ERAÑA



Julen Larrinaga sariarekin, Josu harategiko langilearekin. | UXUE ERAÑA


## Pinturako ikasleen lanak eta antzerkia irailean

Marije Carrillo pintura irakaslearen ikasleek hilabete osoan izango dituzte lanak Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Eguaztena ezkerro daude Arkupeko erakusketa aretoan Marije Carrilloren ikasleen pintura lanak. Erakusketak zabaldu du iraileko Arkupeko egitaraua eta antzezlanekin osatuko dute hori. Umeek bi izango dituzte: hilaren 14an, *Mollie Malonen ipuin sinestezina* Txalo Produzioen eskutik; eta 21ean, *Galzagorriei to, Inaxito* bertso-antzerkia. Helduek, ostera, *Ondoko hilobiko tipoa* komedia izango dute irailaren 25ean, Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktore ezagunekin.

Bestalde, hilaren 18an, eguena, Mikel Bringas donostiarrak Senegal eta Gambia herrialdeetan bizikletan egindako bidaia-aren berri emango du.



I. Galartza eta A. Garmendia. | TXALO

**Ikastaroetarako izen-emateak**

Pintura, eskulan eta moda laborategi ikastaroetarako izen-emate epea ere zabaldu dute; baita zirku tailerrerako ere. Arkupeko harrerara jo behar da horretarako.

**Beinke-Loramendi dantza entseguak daude eguaztenetan**

San Migel jaietan egingo den Beinke-Loramendi dantza entsegetako saioak iragarri ditu Loramendi Elkartek. Eguaztenetan izango dira (10, 17 eta 24) udaletxe zaharretan (19:30), eta entsegu orokorra irailaren 25ean, Herriko Plazan (19:30). Adin mugarik ez dago eta izena eman beharrik ere ez entsegetarako.

**Eskalada ikastaroak eskainiko dituzte Ibarako rokodromoan**

Debagoiena Eskalada Eskolak 2014-2015 ikasturtea jarri du abian eta iragarri eskalada ikastaroak eskainiko dituela aurten ere Arrasateko eta Aretxabaletako rokodromoetan. Aretxabaletako Ibarra kiroldogian martitzen eta eguenean izango dira (18:00-19:00); argibide gehiago gura duenak hara jo dezala.



1. Udaltzako kideak ikurrinari agurra egiteko gertu, dantzariak lagun.



2. Atxabalta libre eta tropikala aldarrikatu zuten Gazte Ekimeneko kideek.



3. Umeak apar artean jolasean.



5. Beñat Larrañaga, Ane Unanue eta Anjel Barandiaran alkatearekin.

# Kuadrillek "berotu" dituzte Andramaixak

Eguraldi hotzak ez du lagundu giroa berotzen, eta abuztuaren 17ak iritsi behar izan zuen jai giroak eztanda egiteko Aretxabaletako kaleetan



Bideoak eta argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



4. Elektrotzaranga, kaleak girotzen.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*Mozkorra*-ren igoerak ekarri zituen Andramaixak abuztuaren 13an; jaiak bai, baina eguraldi berorik ez, eta herritarrei kosta egin zitzaizen jaietan murgiltzea. Andramaixa ofizialei, oster, Ane Unanuek eta Beñat Larrañagak eman zieten hasiera, eta Aretxabaleta Abesbatzako zuzendari Anjel Barandiaranek omenaldia jaso zuen txupinazoan, urteotan egindako lanagatik.

Erraldoiek eta buruhandiek, afrikar eta blues doinuek eta sokamuturrak girotu zituzten egunez kaleak, eta gauez, Anje Duhaldek, Hesian taldeak eta mariatxiek, besteak beste. Hala ere, jende gehien Arkada Social arrasatearren inguruan elkartu zen txosnagunean. Herritarrak abuztuaren 17an sartu ziren bete-betean jaietan eguraldi ona lagun, eta plaza bete egin zen paella jateko (aurten lau paella). Gazteek ere ez dute aspertzeko unerik izan Gazte Ekimenari esker.

Orokorrean, lasai joan dira jaiok, baina ekintza zatar batzuk ere izan dira: lapurreta txosnagunean; eta kulero, tanga eta galtzontzillo lasterketan arrautza jaurtiketa. Gazte Ekimeneko kideek ekintzok gaitzetsi dituzte eta Udalak bat egin du eurekin.



6. Andramari eta San Roke prozesioan atera zituzten, azken urteotan legez.



7. Herritarrak txupinazoaren hotsa entzuteko gertu jaietan murgiltzeko.

## IOSU

harategia • taberna




Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



8. Hesian taldeak uda sasoiko azken kontzertua eskaini zien aretxabalarrei.



9. Oier Etxebarria, horman gora.



10. Afrikar doinuek eta dantzariak ikusmina sortu zuten txosnagunean.



11. Txapelduna, Carlos Jimenez.



12. Lehenengoz antolatutako bizikleta festan parte hartzeko gertu herriko txirindulari gaztetxoak.



13. Mutikoa, Patxin eta Potxinekin.



15. Kuadrilla, paella jaten abuztuaren 17an; aurten lau paella egin dituzte zain egon beharrik ez izateko.



14. Gaztetxoak zezentxoarekin jolasean Herriko Plazan.



17. Askoren gustuko den sokamuturra. | ARGAZKIAK: UBANE MADERA ETA IMANOL GALLEGU.




16. Kuadrilla mordoak jardun zuen jolasean; txapeldunak izan ziren Zihaust helduetan eta Kanibalak gaztetxoaren artean.



Eramateko  
**EGUNEKO  
MENUA**  
badago

ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 06 12  
gertujanariak@euskalnet.net





Duela bi urteko danborradako kantinerak Kale Zaharrea behera. | GOIENA

# Domekan hasiko dira danborradako entseguak

Txosna batzordetik sortutako talde batek antolatuko du aurten; datorren urtean 50 urte beteko ditu

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Domeka honetan hasiko dituzte San Migel jaietako nagusien danborradako entseguak. Irailaren 28an izango da danborrada, betiko moduan, eta txosna batzordetik sortu den talde batek antolatuko du aurten. Azken urteetako antolatzaileek utzi egin diote egiteari, "2012. urtetik bi batzordeek darabilgun tira-birengatik eta adostasunik ezagatik", bidailetako prentsa oharrean adierazi duten moduan. "Mahai gainean aldeko eta kontrako guztiak jarrita, danborradaren antolakuntzak, 48 urteren ondoren, pena handiarekin, danborrada uztea erabaki du", irakur daiteke oharrearen bukaeran.

**Bi alde**

Ekainean elkartu ziren orain arteko antolatzaileak eta txosna batzordeko kideak aurtengo danborradari buruz berba egiteko. Orduan, aurreko bi urteetan bezala, elkarrekin irteteko adostasuna lortu zuten. Uztailean, baina, danborrada antolatzeari utziko ziotela esanaz mezua jaso zuten Udalean betiko antolatzaileen aldetik. "Garbi ikusten dugu berriro ere bi danborradak bateraezinak direla, bi eredu oso ezberdin baitira", diote orain arteko antolatzaileek. Bidalitako oharra haxe ere jasotzen du, besteak beste: "Oñatiko danborrada betidanik izan da herritik herrixandako".

Txosna batzordeko danborrada taldeari galdetuta, danborrada egingo dela aurreratu dute. "Antolatzeari uko egiteko erabakia errespetatzen dugu, baina ez dugu ulertzen; izan ere, azken bileran, batera egingo genuela adostu genuen", dio taldeko kide batek. "Hala ere, danborradaren historiari begiratuz gero, urteak pasa ahala etengabeak izan dira aldaketak. Gizarteak eboluzionatzen duen seinale da eta ez dago zertan pena ezta beldurrik izan", adierazi du gazteak.

**Deialdi irekia**

Hala, iraileko hiru domekatan egingo dituzte entseguak, eta izen-ematea zabalik dago Ona,

Ongi eta Arrano tabernetan. Entseguak aste barruan ere egin litezke, baina hori atzo, eguena, egin zuten bilera irekian erabaki behar zuten. Bilera horretara danborradan parte hartzeko interesa agertu duten taldeak zeuden deituta. "Guztiok gura dugu ahalik eta danborrada anitzena izatea eta herritar guztiei egingo diegu parte hartzeko gonbita", dio antolakuntzan dabilen herritar batek.

Talde, konpainia edo konpartsa bakoitzak erabakiko du nola parte hartu nagusien danborradan. "Talde bakoitzak du nola irteteko den erabakitzeko hitza", zehaztu du antolaketa taldean dabilen gazteak. "Eta jendearen iritzia eta gogoak jakindakoan, ikusiz gero aste barruan ere entseguak egin behar direla, egunak eta orduak jarriko dira", gehitu du.

Atzo iluntzean egindako bilera, baina, izan dezake jarraipenik. Izan ere, deialdia herritar guztiendako zabalik dagoela adierazi dute antolatzaileek, eta danborradan parte hartu gura duen edonor anima daitekeela entsegetara.

**Udalaren iritzia**

Herriko jai nagusietako ekitaldia da danborrada, baina beti herritarrek antolatu izan duten ekitaldia da. Hala, Udalak horrela jarrai dezala gura du. "Jaien barruko ekintza bat da, baina ez du Udalak antolatzen. Hala, egon ahal den eztabaidatik kanpo dago Udala", adierazi du Kultura zinegotzi Nerea Zubiak. Eta gehitu du: "Urte hauetan guztietan herritar talde batek antolatu du, eta aurrerantzean ere herritarrek antolatzea gurako genuke. Badi-rudi danborrada antolatzen jarraitzeko beste herritar talde bat badagoela eta Udala prest egongo da behar dituzten baliabideak edo laguntzak emateko, beti egon den moduan".

Udalak danborrada ahalik eta pluralena izatea gura duela esan du Zubiak: "Herritar guztiak animatu gura ditugu parte hartzera, eta entsegetara joan daitezela esan, danborrada ahalik eta anitzena izan dadin".

## Pake Lekuko ikastaroetako izen-ematea zabalik dago

O.E. | OÑATI

Bidaia, erakusketa, hitzaldiak eta ikastaroetarako izen-ematea zabalik jaso ditu Pake Lekuk irailerako prestatu duen ekintzen egitarauak.

Irailaren 15etik 24ra, esaterako, bidaia egingo dute Portugalera. Algarvera joango dira Pake Lekuko erretiratuek, eta hamar eguneko egonaldia egingo dute Portugalgo hegoaldeko kostaren zati horretan. Hilaren 18an, berriz, *Ondo jan hobeto zahartzeko* izeneko hitzaldia egingo du Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak.

**Erakusketa**

Datorren astean, berriz, eskulanetan egindako lanen erakusketa zabalduko dute. Hilaren 10etik 13ra egongo da zabalik, elkarteko areto batean. Erretiratuek egindako bitxiak, orratz lanak eta margoak egongo dira ikusgai, besteak beste, 18:00etatik 20:00etara.

Ikasturte berriko ikastaroetako izen-ematea, berriz, hilaren 26ra arte egongo da zabalik.

## Usakon ez da begiralerik egongo astelehenetik aurrera

Usakoko uda denboraldia etzi, domeka, bukatuko da. Hau da, astelehenetik aurrera ez da begiralerik egongo.

Bestalde, igerilekuko kanpoko eremuak zabalik jarraituko du. Ixteko egun zehatzik ez du, baina, eguraldi ona egingo jarraitzen badu, zabalik egongo da. Garbiketa zerbitzua ere egingo da.

## Arrano tabernako eta elkarteko ondasunek dekomisatuta dira

O.E. | OÑATI

Uztailaren bukaeran etorri zen *herriko tabernen* auziko epaia: 103 herriko taberna konfiskatzeko agindu eta kartzela zigorra ezarri zien hogeitaz laguni. Lokal horien artean daude Oñatiko Arrano taberna eta Arrano elkartea. Sententziari errekurtsioa jartzeko epea atzo, eguena, bukatzen zen eta auziko abokatu Unai Iturriotz arrasatearrak ikusten du arrazoirik errekurtsioa jartzeko. Oñatin, baina, ez dute epaitegiko jakinarazpenik jaso.

Beraz, oraindik ez da irmoa sententzia. Errekurtsioa jarri eta Auzitegi Gorenaren eran-

tzuna jakin arte, baina, lehengo egoeran jarraitzen dute aipatutako taberna eta elkartearen kontuek. Lokal eta ondasunek dekomisatuta jarraitzen dute.

Gorgomendi SL elkarteak herrian dituen beste lokal batzuk ez dituzte sententzian jaso, merkataritza-sozietate izaera dutelako. "Oñati, Arrasate, Donostia eta Mallabiko kasuetan pasa da hori", dio Arranoko arduradun Josu Erostarbek. Eta gehitu du: "Errudunak garelako diote, baina ez dituzte ondasun guztiak gura. Gainera, ez gaituzte ezertaz akusatzen. Astakeria juridikoa da, sententziak ez du oinarri juridikorik".

## Ume guztiendako ekintzak antolatu ditu Txaloka ludotekak irailerako, ludotekan zein Foruen plazan

O.E. | OÑATI

Txaloka ludotekaren ikasturte berria hastear dago. Irailetik ekainera bitartean zabalik egongo da, 3 eta 9 urte bitarteko haurrentzat. Aurten, gainera, 16:45etik 19:45era arte egongo da zabalik ludoteka.

Bada, prezioei dagokienez, edozein momentutan matrikula daiteke haurra, urteko 60 euroko kuota bat ordainduta; bigarren umea 50 euro eta hirugarrena, berriz, 40 euro. Horrez gainera, metodologia bera izango da: sartu-irten libreekin, adin nahasketak, kanpo espazioaren era-

bilera eta haurren parte-hartzea, hain zuzen ere.

**Ekintza asko**

Aurtengo berrikuntza nagusia iraileko ekintza bereziak dira. Izan ere, askotariko ekintzak antolatu dituzte bai Txaloka ludotekan bertan, bai herriko plazan ere, ludotekako eskaintza herri osora zabaltzeko asmoz.

Look aldaketa, zinema erraldoia, herri kirolak, tatuaje tailerra, sukaldaritza tailerra, *Altzorraren bila* eta jolas kooperatiboak antolatu dituzte, besteak beste. Datorren aste-



Umea eskulanak egiten. | GOIENA

lehenean, irailaren 8an, esate baterako, Zirku Eguna egingo dute Foruen plazan.

Hain zuzen ere, ate irekiak urte osoan izango dira Txaloka ludotekan.

# Bi artzain oñatiar omenduko dituzte Legazpin domekan

Maria Angeles Barrenaren eta Nikolas Seguiolaren urtetako lana sarituko dute

E. AZKARATE / I. GOITIA | OÑATI

Gipuzkoako Artzain Egunean, domekan, omenaldia jasoko dute Maria Angeles Barrena eta Nikolas Seguiola artzainek Legazpin (13:00). Biak ere oñatiarrak, bigarrena, berez, Mantxinbentan jaiotakoa bada ere.

## Artzaintzari lotutako biziak

Barrena Arrikrutz baserrian jaiotakoa da eta artzaintzan gaztetatik ikasitakoa. 28 urte zituela ezkondu eta Gesaltza baserriara joan zen. 42 urte zituela alar-gun gelditu zen, lau ume txikirekin. Artalde handia zuten garai hartan eta lan handia zegoen ardiak jezten, gazta egiten eta etxeko martxa eramaten; eta bakarrik zen Barrena. Anaiek asko lagundu ziotela kontatzen du, baina seme-alabek ere azkar ikasi zuten lanean. 100 arditik gora izan zituzten, denak mutur beltzak. Betidanik egin dute gazta baserrian, eta Arantzazura joaten zen domeketan saltzera; ondoren, baita Oñatiko azokara ere. Omenaldia sorpresaz hartu duela dio: "Ez nuen horrelakorik espero".

Seguiola 1939an jaio zen, Largarate baserrian, Mantxinbentan. Bere burua oñatiartzat duela esan digu, ordea. Umetatik ibili izan da ardi zain. 12 urte zituela Arantzazura etorri zen eta dio bezperan ardiak askatu zituenean, begiak negarrez bete zitzaizkiola. Hainbat urtez artzaintzatik aldentuta egon

ostean, 1960an Gomiztegi baserri-ira iritsi zen eta ordutik han da. Bertan hasi zen ardiekin berriro, urte batzuk geroago. Pozik azaldu da omenaldiarekin, baina hark bazuen susmoren bat: "Neu aritu izan naiz artzainak bilatzen beste urteetan eta aurten bakarria aukeratzeko esan zidaten".

## Egun osoko festa

Legazpin egiten dena egun osoko jai izaten da. Besteak beste,

izango dira: gazta, ardo eta okela lehiaketak, ardi latxen erakusketa eta artzain-txakurren txapelketa. Azken horretan, gainera, bi debagoiendarren txakurrek hartuko dute parte. Guztira, sei lehiatuko dira eta horietatik bi izango dira debagoiendarrak: Jesus Mari Plazaola arrasatearra eta Migel Arregi oñatiarra. Lehenak, udalarrak, *Lagun* txakur-arekin eta bigarrenak birekin, *Mendi*-rekin eta *Gorri*-rekin.



Maria Angeles Barrena eta Nikolas Seguiola. | LEGAZPIKO UDALA



## Atzeko kaleko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

I.G. | OÑATI

Gaur arratsaldeko lauretan eman-godi diete jaiari hasiera etxafuego jaurtiketarekin, eta domekara arte musika, jolasak eta festa giroa izango dira nagusi.

Gaur arratsaldean, esaterako, umeendako hainbat hitzordu izango dituzte. Besteak beste:

zinta lasterketa (16:00), haur jolasak (17:00) eta erraldoi eta txorimaloekin kalejira (19:00). Nagusientzako aukerarik ere ez da falta izango, ordea. Izan ere, 20:00etan hasita poteoa egingo dute kalean, eta gauean rock kontzertuak izango dituzte: Puro Chile, Zartako eta Altxatu.

Bihar, bestalde, auzokoen omenezko salda izango dute (13:00), eta jai batzordearen bazkaria. Dagoeneko tradizio bilakatu den sokamuturra ere ez da falta izango (17:30); gauean piroteknia saioa eta mariatxiak izango dira.

Domekan ere, azken egunean, hainbat dira hitzorduak; adibidez: Atzeko kaleko txirindulari proba (16:00) eta Kepa eta Anderren kontzertua (22:00). Jaiak, hasi bezala, etxafuego jaurtiketarekin bukatuko dituzte.

Juanje Anduaga eta Xabi Arregi | Sare ekimeneko kideak

## "Ahal den eta oñatiar gehien biltzea nahi dugu, taldea anitza izan dadin"

Sare ekimenak topaketa antolatu du biharko Eteon, herriko taldea eratzeko helburuarekin

I.G. | OÑATI

Ekainaren 15ean aurkeztu zen Sare ekimena Donostian. Bada, sare herritarra eratu nahi dute Oñatin eta herritarren topaketa antolatu dute biharko Eteon, 10:00etan hasita.

## Zeintzuk dira Sareren helburuak edo eskaerak?

Uste dugu bakea eta elkarbizitzaren bidean ezinbestekoa dela euskal preso eta iheslarien giza eskubide guztiak errespetatzea eta haien egoerari irteera ematea. Helburu zehatzak dira: sakabanaketa politika eta bakar-tze egoerak bukatzea, gaitz larriak dituzten presoek askatasuna lortzea, 70 urtetik gorakoak eta zigorraren bi herenak edo hiru laurdenak bete dituzten presoak askatzea eta bizi osoko zigorra ahalbidetzen duten lege eta egoerak indargabetzea.

## Zergatik topaketa?

Pentsatzen dugulako gai hau herritar guztioi dagokigula, eta topaketa honekin ahal den eta oñatiar gehien biltzea nahi dugu Sareren helburuei buruz hausnartu eta hemendik aurrera zer egin dezakegun adosteko. Gainera, topaketa izango da Oñatiko Sare mugimenduaren abiapuntua. Horregatik, bilera irekia da eta edonor etor daiteke. Anitza izatea gustatuko litzaiguke. Adin, esparru, ideologia eta pen-



Anduaga eta Arregi. | I.G.

tsamolde askotariko herritarrek espero ditugu. Bestalde, horrelako topaketak egokiak dira helburuekin bat egiten duten baina oraindik hurbildu ez diren herritarrek mugimendu berria ezagutu eta bere sorreran parte hartzeko. Hala, jendea animatu nahi dugu. Ekimen txikiak ere garrantzi handia du.

## Herritarrek biltzea edo mugitzea garrantzitsua da?

Euskal Herritarren gehiengoak argi utzi du bere nahia giza eskubide urraketa hau bukatzea dela, eta badirudi euskal presoek gaia alderdi politikoen eztabaidetatik kanpo geratzen ez den bitartean ez duela aurrera egingo. Horrenbestez, uste dugu herritarrek hartu behar dugula iniziatiba.

## Haurren Egunerako familia bila dabil Oñatz dantza taldea

Irailaren 14an egingo da aurtengo Haurren Eguna, eta kanpoko herrietatik Oñatira etorriko diren haur dantzariak etxeetan bazkaltzeko hartuko dituzten familiak behar ditu Oñatz dantza taldeak. Norbaitek umeak hartu gura baditu, dantza taldekoekin jar dadila harremanetan.

## Trauti elkarteak Urbiarako irteera antolatu du etziko

Herriko hogeitik gora elbarrak eta adinekok eman dute izena Trautik domekan Urbiara egingo duen irteerarako. 09:00etan elkartuko dira Eroskiko aparkalekuan eta handik, Zaldunotik igoko dira Urbiara. Fondan bazkalduko dute guztiak, eta arratsaldean jaitziko dira Oñatira.



## PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



Tel.: 943 71 64 79  
bidebarri@terra.com  
iurrutia.bidebarri@gmail.com

## ZAINZAILA ETA FAMILIEN ARTEKO BITARTEKARITZA LANAK

### ADMINISTRAZIO LANAK

- Kontratu egitea.
- Gizarte Segurantzaren alta ematea.
- Nominak egitea.

### HAUTAGAIEN AZTERKETA

- Enpresako konfiantzazko langileak.
- Esperientziadunak.



'Spinning Lowcoast' saioak egingo dira aurrerantzean Udal gimnasioan. | XABIER AZKARATE

# Osasuna oinarri, Udal Gimnasioak zerbitzu integrala jarri du abian

Nobedadeen artean, krisiari erantzuteko 'spinning lowcoast' eta gazteendako zumba saioak daude

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Asteon zabaldu ditu Udal Gimnasioak ateak. Ikasturte berria nobedadeekin dator, gainera. Gazteendako zumba ikastaroa da berrikuntza horietako bat. "Orain arte ezin izan dugu gazteendako zumba saiorik eskaini. Aurten, ordea, posible da 10-15 urte bitarteko neska-mutikoendako saioak egitea", kontatu du Xabier Azkarate gimnasioko arduradunak. Arrakasta handia duen jardura dela azpimarratu du. "Oso dibertigarria da eta kaloria asko erretzen dira. Musika arrakastatsua lagun, dantza egitean datza zumba. Harrera bikaina izan du helduen artean".

**Krisiari erantzuna emateko**

*Spinning lowcoast* zerbitzua eskura dute herritarrek. "Krisiari erantzuna emateko jardura da. Jendeak zerbitzu merkeagoa nahi du". Izan ere, saio horiek pantaila batean dagoen monitore birtual batek gidatzen ditu. "Monitoreak saioak aurrez grabatzen ditu eta gero pantailan botatzen ditugu proiektorearekin. Toki askotan ondo funtzionatu du eta proba egingo dugu".

Gimnasia abdominal hipopresiboen saioek ere aldaketa dute: "Ordubeteko saiotik ordu erdira jaitsi ditugu saioak. Emaizta bera dela ikusi dugu eta prezioa merkeagoa da".

**'Ekintza plus' zerbitzua**

Gimnasioko edozein ekintza egiteko aukera dakar *Ekintza plus* zerbitzua. "Body tonua, body balancea, spinninga, hipopresiboak, pilatesa, fitness gela... ekintza guztiak egiteko aukera prezio oso onean". Azken ikerketek diote ariketa ezberdinak egitea onuragarria dela osasunerako. Horrexegatik jarri dute eskaintza berezi hori. "Emaiztak igarri ahala, norberaren satisfazio-maila handituz doa. Ekintza gehiago eginda, satisfazio-maila goraka doa, gainera". Hala, abonatuak 18 euro hilean ordainduta zerbitzuaz goza dezakete. Urteko abonua eginda, hilean 22 euro irteten zaie bazkideei.

Bestalde, DKT txartela dutenek abendura arte doan erabil dezakete gimnasioko zerbitzua.

## Body tonua: emaitzarik onena

Body tonifikazio zerbitzua indartu gura izan dute Udal Gimnasioan. Izan ere, lortzen diren emaitzak oso onak direla azaldu dute arduradunek. "Ariketa osatuena da body tonifikazioa. Gure filosofia osasuna da, horren bueltan lan egiten dugu eta ikusi dugu emaitza onak lortzen direla body tonua eginez", diote.

Bultzatzen dituzten ekintzak osasunera bideratuta daude. Horregatik, ikasturte honetan, osasunera bideratuta dagoen zerbitzu integrala jarri dute martxan. "Jendeari osasuntsu egotea gustatzen zaio, eta, hori kontuan hartuta, ikasturte honetarako osasuna ardatz daukan zerbitzu integrala jarri dugu abian".



Xabi Azkarate. | X.A.

## Ekaitz Olalde: "Done Jakue bidea betidanik egin gura izan dut"

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Oporraldia aprobetxatuz, udan, Donejakue bideko hainbat etapa egitera animatzen da bidaia-ri asko. Abuztuan, aukera hori egin du Ekaitz Olalde antzuolarrak. Errioxako Santo Domingo de la Calzada herritik abiatu zuen abentura. "Neskalagunak iaz bederatzi etapa egin zituen eta aurten ni ere animatu naiz. Iaz utzitako tokitik abiatu gara neskalaguna eta biok Oñatiko eta Bartzelonako bi lagunekin batera". Lau etapa egin dituzte, 100 bat kilometro guztira. "Egunean 25 bat kilometro egin ditugu, lau etapatan banatuta. Bukaerara, baina, ez gara iritsi. Hankan ateratako baben minagatik itzuli egin behar izan genuen". Italiar asko

ikusituztela bidean dio: "Bertako jende gutxi ikusi dugu, gehienak kanpotarrak, italiar asko. Oinez nahiz bizikletaz jende dezente ikusi dugu". Esperientzia ezberdina eta berria izan dela dio Olalde: "Probatu nahi izan dudana esperientzia izan da. Zonarik beroenean barrena ibiltzea tokatu zaigu. Azken etapen hamabi kilometrotan bakarrik ibili gara; ezer inguruan eduki gabe. Horrek ibilbidea gogortu du. Nire burua ezagututa, mendian errazago, gusturago ibiliko nintzateke".

Oztopoak oztopo, berriro bueltatzea ez du baztertzen Olalde. "Agian, datorren urtean berriro egingo ditugu Donejakue bideko etapa gehiago bukaerara iritsi arte".



Ekaitz, Jone, Joan eta Arantzazu. | EKAITZ OLALDE

## Auzo-konposta martxan jartzeko bilera informatiboak

Hilaren 17an bi bilera egingo dira Olaranen: 10:30ean eta 19:00etan. Bertan, auzo-konposta zer den eta nola funtzionatzen duen azalduko da. Interesa dutenek izena eman dezakete. Horren arabera, auzo-konposta egiteko lekuak eta egunak zehaztuko dira.

## Edurne Uribesalgoren eskulan ikastaroak eguenetan izango dira

Eskulan ikastaroa hilaren 25ean hasiko da eta 2015eko ekainaren 18an bukatu. Izena emateko azken eguna irailak 20; udaletxera deitu behar da, 943 76 62 46. Kuota: helduek 24 euro hilean; umek 12. Nahi den eskulana egiteko aukera izango da kurtsoan.

## OHARRAK

### IKASTURTE HASIERA

Hilaren 8tik 15era, goizez: 09:00-13:00; hilaren 16tik aurrera, goiz eta arratsaldean ohiko orduetan. Jangela zerbitzua eskainiko da lehen egunetik; aurrez abisatu behar da.

### ELKARTASUN FESTA

Hilaren 12an egingo du Anelkarrek Elkartasun Festa, 19:30ean, Zurrategin. Marmitakoa, tortillak eta pintxoak izango dira. Dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuendako da.



Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

## MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

## LARREA

### TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



## Biomasaren berri izateko eskuorriak banatuko dituzte

J.B. | ARAMAIO

Udalak biomasa proiektuarekin lanean jarraitzen du buru-belarri. Sentsibilizazio kanpaina abiatuko dute herritarrei informazio zehatza eman eta euren inplikazioa lortzeko. Hasteko, eskuorriak banatuko dituzte etxe iraileko azken astean, eta urrian zehar herritarrekin bilera informatiboak egiteko asmoa dute, Sastiñan. Erakusketa bat ere jarriko dute.

Eskuorrietan azalduko dute, besteak beste, biomasa zer den, energia egurraren bidez lortzearen abantailak zeintzuk diren eta Aramaion ezartzea zergatik den onuragarria: "Ikerketek ondorioztatu dute Aramaioendako energia alternatiba proposa dela. Bailarako baso-baliabideei balioa eman eta proiektuaren onurak herritar guzkiekin partekatze apustua egin gura du Udalak".

## Hilaren 8an hasiko da ikasturtea eskolan, 142 ikaslerekin

Irailaren 8an hasiko dute 2014-2015 ikasturtea San Martin eskolan. 2 eta 12 urte arteko 142 ikasle izango dituzte aurtan, Haur Hezkuntzan 51 ikasle eta Lehen Hezkuntzan 91. Aurtan, hamazazpi irakasle eta laguntzaile bat arituko dira lanean. Bada, nobedadeen artean dago Elisabeth Izagirre aretxabaletarra izango dela zuzendari berria.

## Txirritola elkartearen egun handia irailaren 21ean izango da

Txirritola Eguna irailaren 21ean ospatuko du herriko euskara elkarteak. Egitaraua urterokoa izango da: trikitalarien eskutik kalejira (11:30), elkartearen inguruan sukaldari lanetan aritu direnen eskutik txotxa (12:00) eta Aramaioko sagardogileek ekarritako sagardo-dastatzea. Urtero moduan, talorik ez da falta izango.

## Aitor Aranaren omenezko mendi martxa, hilaren 27an

Orixol elkarteak antolatuta, Aitor Arana mendizale aramaiorren omenezko 18. mendi martxa irailaren 27an egingo da aurtan. 07:30ean elkartuko dira kiroldegian eta 08:00etan irtengo dira urteroko ibilbidea egiteko. 30 kilometro inguruko irteera izango da, sei-zortzi orduren bueltan egitekoa.

# Muru auzoko saneamendua eta sarrera hobetzeko lanak, laster

Obrak irailean hasi eta abenduan amaituko ditu Excavaciones Arrasatek

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Muruko hondakin urak saneatzeko eta auzorako sarbidea egokitzeko proiektua abuztuan esleitu zuen Udalak. Premiazko bilkura deitu zuten abuztuaren 8an horretarako, eta bertan onartu zen Excavaciones Arrasate enpresak egingo dituela obra horiek.

### Hiru hilabete lanak amaitzeko

Ramon Ajuria alkateak emandako azalpenen arabera, hamahiru eskaintzaren artean aukeratu dute Excavaciones Arrasaterena; bigarren eskaintza onena, hain justu. Izan ere, berez aurrekontu txikiena eskaini zuen enpresari aurrekontu hori justifikatzeko eskatu zioten, baina ez zuen halakorik egin. Bai, ordea, Excavaciones Arrasatek, eta ondorioz, hari esleitu dizkio Udalak Muru auzoko obrak. Ajuriaren arabera, gainera, obraren exekuzio-epea



Muru auzoko lanen hasiera-akta datorren astean sinatuko da, seguruenik. | J.B.

ahal den gehien jaitsi eta hiru hilabetean bukatuko dira lanak. Datozen egunotan hasiko dira –seguruenik, datorren astean sinatuko da obrei ekiteko beharrezkoa den hasiera-akta– eta

urtea amaitu baino lehen bukatu beharko dituzte. Aurrekontua proiektuan aurreikusitakoa baino txikiagoa da: 290.946,46 euro, BEZa barne –309.878 euro zen aurreikuspena, BEZik gabe–.

### Aldundiaren kontu, seguruenik

Osoko bilkuran bertan Udaleko idazkariak aditzera eman zuenez, obra hori egiteko onartutako diru laguntza handitu eta %80 izan beharrean, Arabako Diputazioak %100 ordainduko du, seguruenik. Esleipena EAJko zinegotzi Iñaki Nafarrateren abstentzioarekin onartu zen; azaldu zuenez, esleipenarekin ados egon arren, ez zitzaion egokia iruditu osoko bilkura deitze forma eta presa. Adierazi zuen, besteak beste, gaia ez zela zegokion batzordean landu.

Ez da albiste berria Muru auzoko obrak beharrezkoak direla. Batez ere, saneamendu lanak –ur zikinena eta euri uren sarea berritzea– eta auzorako errepidea egokitzea dira egin beharreko lan nagusiak. Errepideari dagokionez, auzotarrek salatu izan dute larrialdi kasuetan auzorako sarbidea oso zaila dela: "Anbulantziek ez dute hona etorri nahi izaten eta behin sute bat gertatu zenean suhiltzaileek ezin izan zuten hemendik pasatu, errepidea oso estua delako". Bada, dena ondo bidean, urtea amaitu baino lehen konponduko dira arazo horiek guztiak.



Lagun talde bat mokadutxoaz gozatzen, iazko ospakizunean. | GOIENA

## Egun handia izango da domekakoa Marixekan

Aurtan herriko trikitalariek girotuko dute festa; Gorriti eta haren animaliek ez dute hutsik egingo

J.B. | ARAMAIO

Iraileko lehen domekan ospatzen dute urtero aramaiorrek Marixeka Eguna. Ospakizuna Uribarri auzoko ermita ondoko zelaietan izaten da eta bertako elkartearen sorrera ospatzen dute, Gure Aterpea elkartearena, hain zuzen. Marixeka baseliza, inguruetako zaharrenetakoa, gerra garaian suntsitu zuten eta gerra ondoren Gure Aterpea elkarteak lagunek eliza berritu eta erromeria berreskuratu zuten. Duela 33 urte izan zen hori eta aurtengo Marixekako 34. erromeria izango da; tradizio handiko festa denik ezin ukatu, beraz.

Hala ere, urteen poderioz galtzen doan festa dela dio Gure Aterpea elkarteak bazkide Oier

Kortabarriak: "Lehen, eguraldi ona egiten zuen urteetan, jendea goizeko lehen orduetan etortzen zen itzalean lekua izateko. Egun, berriz, eguerdian etorri gero ere lekua soberan egoten da". Gure Aterpea elkarteak bazkideek egun bat lehenago egiten dute urteko batzarra eta domekan bertan bazkaria egiten dute elkartearen. Egun, 50 bazkide dira.

### Urteroko plana

Egitaraua urterokoa da: suziri jaurtiketa (09:00), salda, txorizoa eta tragoak (11:00), meza eta bazkalordura arteko erromeria (12:00), bazkaria (14:30) eta Gorriti eta haren animaliak (17:00). Aurtan, herriko trikitalariek girotuko dute erromeria.

## B3 Dixieland gaur Sastiñan (20:00), hileko egubakoitzak musikatzen lehenak

J.B. | ARAMAIO

Azken urteotako ohiturari eutsiz, aurtan ere zuzeneko musika izango da protagonista iraileko egubakoitzetan. Gaurko, B3 Dixieland taldea gonbidatu du Udaleko Kultura Sailak Vital Kutxaren laguntzarekin. Eguraldi ona egiten badu, Sastiña kanpoaldean joko dute; izan ere, antolatzaileen asmoa da zuzeneko musika kalean bertan eskaintzea. Eguraldiak ez badu laguntzen, berriz, ermita barruan izango da, 20:00etan.

B3 Dixieland taldea Gasteiztik dator eta dixie doinuak eskainiko ditu; 2007an sortu zen eta euren emanaldiek ordu

eta erdi irauten dute, gehienez. Zazpi kidek osatzen dute taldea eta ikusleek tronboi, banjo, saxofoi, klarinete, kontrabaxu eta halako instrumentuekin adituak diren musikariak ikusi ahal izango dituzte.

### Datozen beste hiru taldeak

Datorren egubakoitzean, hilak 12, Bilboko Four Friends taldeak joko du eta jazz zein soul estiloko doinuak eskainiko dituzte. Irailaren 19an Tolosako The Romanticos taldea dator; blues eta swing doinuak eskainiko dituzte. Irailaren 26an, amaitzeko, Algortako Wets Bluegrass Band taldeak joko du.



JESUS ARREGI

## San Adrian jaiak, "giro onean"

Abuztuaren 31n San Adrian jaiak ospatu zituzten Aramaion. Goizean zehar salda eta txorizoa jateko aukera egon zen eta gero poteoa egin zuten. 13:00etan meza egin zuten eta bazkalordura arte erromeria izan zen trikitalarien eskutik. "Giro onean" joan zen ospakizun eguna, antolatzaileek azaldukoaren arabera: "Jende asko elkartu ginen bazkarian, 70 heldu eta 13 gazte. Eguna borobila izan zen".

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUBAKOITZA

### 5

**17:00** Jaien HASIERA.

► Etxafuegoak eta bonba japoniarrak.

► Kanpai errepika.

► Txalpartariak.

► Apar festa.

**22:00** ROCK jaialdia, plazan.

## ZAPATUA

### 6

**12:30** Kiki, Koko eta Moko PAILAZOAK.

**16:30** MUS eta BRISKA txapelketa herriko elkartean.

**16:30** Umeendako PUZGARRIAK.

**19:00** BOLO txapelketa.

**21:30** HERRI AFARIA. Ondoren, Akatz taldearekin JAIALDIA.

## AGURRA

**EUGENIO OTSOA**  
Leintz Gatzagako alkatea

Jaiei ongietorria

Izandu gara udaletxean eduki dugu botere eman ditugu hamaika agindu betearazi hainbat lege Euskal Herriko nazio borroka egina dugu geure baino herritar xumeak gara zeuek bezala gu ere.

Gure eginkizuna bat izan da jendea babestea egin dezagun ahalegina horra hor herri eskea saiatu gara kasu egiten zaila zen erantzutea Leintz Gatzaga izan da helburu herria zerbitzatzea.

## DOMEKA

### 7

**09:00** MENDI BIZIKLETA zeharkaldia.

**12:30** Arrasate Musikaleko bandaren KALEJIRA.

**13:00** Arrasate Musikaleko bandaren KONTZERTUA.

**17:00** PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK: senior eta gazte mailetakoen artekoak.

**19:00** BEDERATZIURRENA Dorletako santutegian, Eskoriatzako abesbatzarekin.

► Ondoren mokadutxoa: gazta, ardoa eta ogia.

**20:00** Imuntzo eta Belokirekin ERROMERIA.

## ASTELEHENA

### 8

**11:00** Otxandioko lagunei ONGIETORRIA.

**12:00** MEZA NAGUSIA Dorletako santutegian, Eskoriatzako abesbatzarekin.

**13:00** HERRI KIROLAK plazan: aizkolariak, harri-jasotzaileak...



GOIENA

**BEDERATZIURRENA** | DOMEKA | DORLETAKO SANTUTEGIA | 19:00 Ama Birjinaren bederatziurrena eta ondoren mokadutxoa.



JOSETXO ARANTZABAL

**HERRI KIROLAK** | ASTELEHENA | SAN MIGUEL PLAZA | 13:00 Herri kirolen erakustaldia izango da: aizkolariak, harri-jasotzaileak...



"Leintz Gatzagako Udalak Andramaixa zoriontsuak opa dizkizue gatzagar guztioi"





Gatzagarrek eta kanpotik joandako lagunak elkarrekin afaltzen iaz, pilotalekuan. | IMANOL SORIANO

## Gatzagarrek gatzagarrendako egindako afaria: entsalada, saiheskia eta flana

180 lagun elkartuko dira, herritarrekin batera inguruetatik etorritakoak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Herri afaria egitea erabaki zuten iaz –Ama Birjinaren eguna zapatuan tokatzen denean bakarrik egingo dute bazkaria, iaz erabakita–, eta baita asmatu ere. Hala, aurten, heldu, nagusi eta ume, 180 bat lagun elkartuko direlakoan daude; gehienak gatzagarrek, baina inguruko herrietatik etorritakoak ere izango dira pilotalekuan jarritako mahaien bueltan.

### Herritarrek egindako afaria

Afaltzeko menua, ostera, bakarra eta azken urteotako berdina izan-

go da: bertako osagaiekin egindako entsalada; herritarrek gertatutako saiheskia; eta flana. "Pentsa, 180 lagunendako gertatuko du flana Eusebio Villarrek, eta ez dakizue zelako goxoa egiten duen...", dio Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak.

Osagaiak goxoak eta esku onek gertatuta, gainera; horrenbestez, aparteko afaria izango da biharkoa. Herritarrek, ostera, umore ona eta jai gogoia eroango dituzte aldean. Eta afalostea girotzeko, Akatz talde bizkaitarrak soinu dantzagarriekin beteko du pilotalekua.

### Otxandioko lagunaren bisita

Ohiturari eutsiz, Otxandioko bisita izango dute astelehenean, Ama Birjinaren egunean. Eskolako umeak autobusean etorriko dira eta Gatz Museoa ezagutzeko aprobetxatuko dute. Heldu eta nagusi asko, ostera, oinez iritsiko dira meza nagusirako.

## Mendi bizikleta zeharkaldia, Andramari jaietako klasiko bihurtu den kirol ekitaldia

32 kilometro egingo dituzte helduek Gatzaga inguruan; izena bertan eman behar da

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Jaietako klasiko bihurtu den mendi bizikleta zeharkaldia egingo dute domekan, Dorletako Ama txirrindulari elkarteak antolatuta; hamabigarrena, hain zuzen ere. Gaztetxoek –14 urtetik gorakoak– eta helduek parte hartu ahal izango dute, betiko legez, eta izena pilotalekuan eman behar da hasi aurretik (08:00-09:00). Federatu gabek 18 euro ordaindu behar dituzte eta federatuak, 12 euro; gaztetxoek, ostera, 2 euro. Izena emandako lehenengo 200 lagunek kamisetak jasoko dituzte. Bukarera saririk ez da izango, baina opariak bai; besteak beste, Jakionen produktuak, gaztak eta urdaiazpikoak zozketatuko dituzte.

Helduak 09:00etan irtengo dira plazatik, eta Dorletatik bueltan Olaun aldera joan; handik Hiruerreketaraino iritsi eta Gatzagaindik bueltan herrira jaitziko dira. Bertako anoa-postutik pasatu eta Jarindorantz joko dute, eta handik herrira jaitzi 32 kilometro eginda.

Gaztetxoek, ostera, 10:00etan irten eta Dorletako santutegira joan-etorria egingo dute.

### Herri kirolak astelehenean

Bestalde, azken urteotan legez, herri kirolen erakustaldia izango da jaiak agurtzeko. *Bihurri* aizkolari ezagunaren taldeko kideek aizkoran, harria jasotzen eta beste hainbat kiroltan jardungo dute astelehenean, San Miguel plazan, 13:00etan.



Txirrindulariak mendi bideetan, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL



Rock eta punk doinuak lantzen dituen Kalaña taldea. | M.A.

## Rock doinuak gaur eta reggae musika bihar

Aretxabaletatik datoz rock taldeak: Criminal Remains, Gaupa Heroes, Kalaña eta 2Kot

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Ohitura den legez, rock eta punk doinuak izango dira gaur, jaiak hasteko. Aretxabaletako lau tal-


dek girotuko dute plaza ingurua kanta ezagun askoren bertsioekin: Criminal Remains, Gaupa Heroes, Kalaña eta 2Kot taldeek.

### Akatz taldearekin reggaea

Bihar, ostera, ska eta reggae musika eta dantzarako doinu alaiak ekarriko ditu pilotalekura Akatz talde bizkaitarrak. Bost lagunek Bakio inguruan sortutako taldeak hogeitau urte baino gehiago daramatza lanean, eta hainbat disko dituzte argitaratuta. Jamaikako doinuak dituzte oso gustuko; hau da, *mento*, *rock steady*, *roots*, *dub*... Eta horiekin batera euskal kanta herrikoiak ekarriko dituzte.



BANAKAKO BILKETARAKO ZAKARRONTZA GATZAGA 2014



sormen ood  
PRODUKTUEN DISEINUA

## ELGETA

## Irailaren 20rako antolatu dute baserriarren azoka

Intxortako igoserarekin batera umeendako igosera ere antolatuko du Udalak, Salvador ermitara

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Herriko baserriarren urteroko hitzordua bertan da. Udazkeneko azoka irailaren 20rako antolatu dute aurten, eta Udalak jakinarazi du zabalik duela izena emateko epea azokan postua ipini nahi dutenendako, baserriar zein artisau.

Azokan herriko baserriarren produktuak erosteko aukera egongo da. Salmenta zuzeneko eguna da eta herriarrei herrian bertan egiten diren produktuak ezagutzera emateko aukera bakarrenetakoa.

Azokarekin batera txorimalo lehiaketa ere egingo da aurten. Orain bi urte sortutako ekimenak jarraipena izango du, eta herriarrek aukera izango dute irudimena landu eta lehiaketako saria eskuratzeko. Iaz seigarren mailako neska-mutikoek jaso zuten saria ikasbidairako.

### Umeendako ere igosera

Aurreko bi urteetan ikusmina sortu zuen Intxortako igoserak, eta laster berriz jokatuko da. Zortzi lagunek egin zuten igosera iaz, eta Iñaki Egizabal elgetarrak marka berria finkatu zuen. 16 minutu eta 15 segundotan egin zuen herriko plazatik Intxortarainoko joan-etorria. Hortaz, marka hori hobetzeko aukera egongo da hilaren 20an, eguerdian.

Aurten, baina, beste igosera bat jokatuko da, 12 urtetik beherako neska-mutikoendako lasterketa antolatu baitu Udalak. Ibilbidea izango da herriko plazatik abiatu eta Salvador ermitarainoko joan-etorria egitea.

Deialdiak arrakasta duen edo ez egunean bertan argituko da. Horrekin lotuta, ez harritu asteotan baten bat entrenatzen



## Plazako bankuak txukuntzen

Plazako zenbait banku ez dira erabilgarri egon asteotan. Urteen eraginez hezetasan arazoak zituzten eta Udalak txukuntzeko baliatu ditu abuztuko azken asteok. Egurrezko taulak bere tokitik atera, pintura eta berniza eman, eserlekuen hankak pintatu... Denbora eskatzen duen prozesua da, eta, hasiera baten, plazako bankuetan egingo dituzte lanok.

## Astelehenean 115 neska-mutikok emango diote hasiera ikasturteari

L.Z. | ELGETA

Herri Eskolako irakasleak astelehenean itzuli ziren udako oporretatik, eta ikasleek hilaren 8an emango diote hasiera 2014-2015 ikasturteari. Lehenengo astean goizetik bakarrik egongo dira eskolak.

Aurten, 115 ikasle hartuko ditu Elgetako ikastetxeak; hiru talde Haur Hezkuntzan eta lau Lehen Hezkuntzan. Talde bakarra osatuko dute 4 eta 5 urteko geletako haurrek, eta batera egongo dira, baita ere, 3. eta 4. mailako neska-mutikoak zein 5. eta 6. mailakoak. Irakasleak, iaz bezala, hamabi izango dira.

### Hamazazpi ume 2 urteko gelan

Iraila egokitzapena egiteko izango da 2 urteko gelako umeendako. Martitzenean, hilaren 9an, hasiko dira eskolan txikienak, gainerako ikasleak baino egun bat geroago.

Eta berrikuntzen artean aipa daitezke zuzendaritza taldearen aldaketa, ortua eta, orain arte ez bezala, 3 urtekoen gelan ere ingelesa lantzea hasiko direla.

Haurreskolak, berriz, bost erabilgaitzak ditu, eta atzo hasi zuten egokitzapena. Jardunaldi oso bat eta erdi bat ditu zerbitzuak, eta urriaren lehen zabalduko da hurrengo izen-emate epea.



Olaegi baserriko bi lagun, iaz, baserriarren azokan ipinitako postuan. | L.Z.

## OHARRAK

### UDAL LIBURUTEGIA

Ohiko ordutegira itzuliko da Udal Liburutegi zerbitzua astelehenean aurrera. Astelehenean eta eguenetan, 16:30etik 19:30era; eta martitzenean, eguaztenean eta barikuetan, 14:30etik 17:30era. Horrekin batera, hurrengo ipuinen ordua ere iragarri dute liburutegitik: Lorea Larrañagak egingo du kontaketa, hilaren 19an.

## LEINTZ GATZAGA

## Erretiratuen bazkarirako txartelak Labidean dituzte

Urtero legez, jaiak bukatu ostean, irailaren 13an, eskainiko die bazkaria Udalak herriko erretiratuei

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ohiturari jarraituz, bazkaria eskainiko die Udalak herriko erretiratu guztiei Andramari jaiak bukatu eta gero. Datorren

zapatuan izango da, irailaren 13an, eta txartelak Labidea denda dauzkate dagoeneko. Hain zuzen, martitzena da azken eguna horiek jasotzeko, hilak 9. Eta



Hainbat erretiratu bazkaltzen joan den uztailean. | M.A.

aurten bi euro ordaindu beharko dituzte bazkaltzera doazenek.

### Opariak guztiendako

Kultura etxean izango da bazkari hori, eta Eusebio Villarrek gertatuko die, azken urteotan legez. Bertaratzen diren nagusienei opariak banatuko dizkiete udal ordezkariak. Gainerakoek ere jasoko dute oroigarriren bat edo beste Toki Eder elkarteko kideei esker. Bazkalostean karta-jokoan jardunda etxeratuko dira.



10 logela zabal  
eta erosoak

•  
Menu  
bereziak

•  
30 pertsonendako  
aretoa



ondo ibili jaixetan!

# KULTURA

## Antixeneko gaztetxea, hirugarren urteari gogoz ekiteko indarrarekin

- ▶ Irailaren 13an, zapatua, egingo dituzte gaztetxearen bigarren urteurreneko ospakizunak
- ▶ Herriko askotariko eragileentzako erabilgarri daude Oñatiko gaztetxeko instalazioak

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Gaur, egubakoitza, bi urte bete dira Antixeneko etxea herriko gazte batzuek okupatu zutela; harrezkero, Antixeneko gaztetxea da. Urteurrena aitzakia hartuta, Asanbladako bi kideak, Maria Apaolazak eta Oier Fernandezek, orain arteko ibilbidea eta duten lan dinamika kontatu dute; horren ondoren, eraikineko bisita gidatua egin dute.

### Aterpe komun beharrean

Gaztetxeko kideak gustura daude orain arte egindakoaz. Bi urtean askotariko ekitaldiak egin dituzte; kontzertuak eta bestelako ikuskizun eta ospakizunak gainera, hitzaldiak, erakusketak, askotariko tailerrak, irakurketa taldea eratu... "Gazte topaketak egin genituen 2012ko martxoan Eteon. Hor ikusi zen Oñatiko gazteek elkartzeko lekurik ez izatea arazoa zela elkar ezagutzeko. Hori horrela, gaztelekuan hasi ginen elkartzen, baina konturatu ginen guk kudeatutako leku bat gura genuela. Irailaren 5ean, bada, herriaren erdigunean dagoen Antixeneko etxea okupatu genuen", dio Maria Apaolazak, gaztetxeko kideak.

Antixenak aurrekari asko ditu, aurrez hainbat gaztetxe izan dira eta herrian; azkenekoa San Martinen. Bakoitzak bere antolatze modua eta taldea izan duen arren, oinarrian funtzionamendu bera izan dute guztiek. Batzarretan hartzen dira erabakiak; Antixeneko zapatuetan elkartzen dira, uztailean eguztinetan izan badira ere. "Hilabeteke egitaraua prestatzen dugu bertan, kontzertuak, tailerrak edo bestelakoak. Talde finko bat gaude, baina, tarteka, herriko beste eragile batzuk ere etortzen dira gauzak proposatu eta elkarrekin antolatzeko asmoarekin. Poliki-poliki norbanakoaren eskari gehiago ere jasotzen ari gara", esan dute Asanbladako kideak.

Taldea antolatzen dira gero, eta arlo bakoitzak arduradun batzuk ditu; hau da: sukaldekoak, esaterako, sukaldean behar den guztia egoteaz arduratu behar dute, eta baita sukaldeko egutegi ere. Ikuskizun eta kontzer-



Maria Apaolaza eta Oier Fernandez, Asanbladako kideak, martitzenean, Antixena gaztetxean. | AITZIBER ARANBURUZABALA

tuetarako, berriz, teknikari talde bat ere badago. Botileroa ere badago, tabernarako eskariak egiten dituenak, besteak beste.

### Ostalaritza Eskola izandakoa

Ohi bezala, Antixenean ere autogestioan oinarritzen dira; beraz, antolatutako ekintzak aurrera eramateko tabernatik, kamiseta salmentetatik eta bestelako ekimenetatik... ateratzen dute behar duten dirua.



Askotariko erabilerako aretoa bigarren solairuan dago. | A. A.



Antixeneko sukaldea. | A. A.



Areto nagusian taberna eta agertokia daude. | A. A.

Gaur egun Oñatiko gaztetxea den Antixena erakina Oñatiko Udalarena da. Oñatiko udalbatzarrek urtarrilaren 30ean onartu zuen Antixena herriaren esku jartzeko akordioa; izan ere, Mondragon Unibertsitateak zuen 2031. urtera arte Antixena erabiltzeko eskubidea. MUko Ostalaritza Eskola izan zen hasiera baten eta Unibertsitateko beste zerbitzu batzuetarako gunea geroago.

### Bisita gidatua

Hiru solairu ditu; sotoaz gainera, beste bi. Margotze lanez gainera, aldaketa askorik ez dute egin erakinean. "Ostalaritza eskolaren harrerako pareta bota genuen areto nagusira sarrerra handiago eta erosoagoa egiteko. Horrez gainera, lehenengo agertokia egin genuen, gero tabernako barra eta askoz gehiagorik ez", azaldu du Oier Fernandezek.

Sarreratik eskuinaldera areto nagusia dago, taberna eta agertoki txiki batekin. "Kafemakina ere guk jarri genuen. Egubakoitz eta zapatuetan zabaltzen dugu taberna eta kuadrillen, herriko gazte taldeen artean egiten ditugu txandak", gaineratu du gaztetxekoak.

Aretotik irten eta eskuinera dauden eskailerak igota, bigarren solairuan, batzar gela, sukaldea eta askotariko erabilerako gela daude. Igogailua ere badago. **30. orrialdean, jarraipena.**

### 'EZ GOIAZ ETXERA', URTEURREN JAIA

#### IRAILAREN 13AN

**10:00** Haurrentzako jolasak egingo dituzte plazan.

**12:30** Gaztetxetik abiatuta, gazteen lokal poteoa egingo dute bizikletan.

**14:30** Urteurren bazkaria, Kale Zaharrean.

Bazkarirako izena emateko aukera dago gaztetxean eta Ongi tabernan, irailaren 11ra bitartean.

## 29. orrialdeak dator.

"Bilera gelan, gaztetxeko kideez gain, herriko eragileak eta beste elkarte batzuetako kideak ere biltzen dira, astean zehar. Horrek bizitasuna ematen dio gela horri, guk gehienbat zapatuetan erabiltzen dugu-eta. Horrez gain, urteko sasoi zehatzetako erabiltzaileak ere badaude; orain, esaterako, herriko jaien bueltan, txosna batzordekoak hemen biltzen dira. Herriko taldeentzako zabalik dago gaztetxea, eta ez proposamenak egiteko bakarrik. Behar duten materiala eta bakoitzaren gauzak gordetzeko tokia ere badago", dio Fernandezek, eta zera gaineratu: "Liburutegi txiki bat ere badago gela horretan, ohiko liburutegiak moduan maileguz funtzionatzen duena. Jendeak ekarritako liburuekin osatzen ari gara".

Batzar gelatik sartzen da sukaldaraino. Ostalaritza Eskola garaian

zerbitzatzeko gela zen eta ez zegoen, bada, sukalde altzaririk han; gaztetxekoek jarri zituzten beharrezkoak geroago. Gaztetxeko jardunetarako, gainera, sukaldeak badu beste erabilpen bat ere, ohiko elkarte gastronomiko baten moduan funtzionatzen du-eta. Herriko eragile edo norbanakoek lagun arteko jatordu bat egin gura izanez gero, lekua hartu eta erabilitakoa pertsonako ordainduta, alokatzeko aukera dute. Harrikoa bakoitzak egin behar du, ez dute garbitzailerik.

Sukaldeko bigarren ateak askotariko erabilerarako gelara ematen du. "Denetik egin izan dugu hemen: dokumental emanaldiak, argazki erakusketak, hitzaldi jendetsuak, askotariko tailerrak... (estanzioak izan da azkena). Bilera gela moduan, hau ere edozeinendako dago erabilgarri", diote gaztetxetik.



Aurtengo martxoan izan zen Izaki gardenak taldea Antixenan. | IMANOL SORIANO



Irrien lagunak ikuskizuna egin zuten urtarrean. | JOSETXO ARANTZABAL

## Bigarren urteurren festa

Antixeneko gaztetxeak bi urte gaur bete baditu ere, datorren zapatuetako prestatu dituzte bigarren urteurren ospakizunak. "Hasierako asmoa egun osoko jaia antolatzea zen, baina egun horretan Oñatin zein Debagoieneko beste herri batzuetan ere askotariko ekitaldiak daudenez, egun erdiko egitaraua antolatzea hobetsi genuen, gaztetxeko ospakizunetan parte hartzen dutenek ere trabarik izan ez dezaten beste batzuetara hurbiltzeko. Urteurrenaren kamisetak ere egin ditugu Arrasateko gaztetxeko laguntzarekin", azaldu dute.

Bi urte oparo eginda, hirugarrenari gogoz heltzeko daude Antixenean. Abuztuan oporrak hartu dituzte, eta laster, herriko jaiak bukatuta, helduko diote berriz ere gaztetxeko eguneroko ohiko jardunari.

**Aurreztu.com**  
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.  
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

ZERB GARAGARDOA  
**12 botilako kaxa. Garagardo  
artisaua, naturala eta  
Debagoienekoa!**

**16€**

LEHEN:  
**22€**

DESKONTUA:  
**%28**



PC NET - EKOBAI  
**Egizu garbiketa bat zure  
ordenagailuari!**

**20€**

LEHEN:  
**40€**

DESKONTUA:  
**%50**



ANA ILE-APAINDEGIA  
**Irudia berritzea nahi? Kolorea  
ematea, moztea eta orraztea**

**35€**

LEHEN:  
**55€**

DESKONTUA:  
**%37**



LILURA ESTETIKA ZENTROA  
**Begien mikropigmentazioa.  
Gustura senti zaitetz 24 ordu,  
365 egun**

**234€**

LEHEN:  
**360€**

DESKONTUA:  
**%35**



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?

Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

goiena

## Askotariko kontzertu lasaiak Kulturateko areto nagusian

Gaur hasita, doako sei musika emanaldi batuko ditu aurtengo Kulturate Akustikoak egitarauak

A. A. | ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak seigarrenez antolatu ditu aurtengo Kulturate Akustikoak.

Bada, gaurtik hilaren 14ra bitartean, biak barne, sei kontzertu egingo dituzte bi aste bukaeratan banatuta.

### Formatu txikia

Herriko zein, orokorrean, musika eskaintzan sumatzen zuten hutsunea betetzeko asmoarekin ekin zioten duela sei urte. "Azken urteetan eskaintza musikala aldatu egin da, taberna eta bestelako aretoetan emanaldiak ugari egin direlako; dagoen eskaintza osatzea eta Kulturateko areto nagusiarik beste erabilera bat ematea dugu gaur egun ere helburu", diote Kultura Sailetik.

Formatu txikiko kontzertuak dira, 150 ikusleko edukierarekin eta eserita entzutekoak; akustikoak gehienetan nahiz eta talde batzuk elektrikoagoak diren. "Aukeraketa egiteko orduan, Euskal Herriko eta atzerriko taldeen artean oreka izaten saiatzen gara, estilo zehatz batera mugatu barrik", azaldu du Karmelo Alberdik, Kultura teknikariak, eta zera gaineratu: "Nabarmena da aurtengo, bereziki, emakumearen presentzia handia".

### Asteburuko protagonistak

Txuma Murugarren zabalduko du aurtengoa. Rafa Acebes pianista lagun duela, pop-rock doinuak ekarriko ditu. Bihar, zapatua, Valentzian bizi den Thais Morell brasildarraren jazz-bossa nova doinuak entzungo dira.

Bartzelonan bizi den Pablo Martinez donostiarraren Dotorek itxiko du asteburua. Doinu eta estilo aldaketarekin dator, *Variaciones* diskoa kaleratu berri.



Txuma Murugarren. | ARRASATEKO UDALA

### AURTENGO EGITARAUA

#### IRAILAK 5, EGUBAKOITZA

Txuma Murugarren.

#### IRAILAK 6, ZAPATUA

Thais Morell.

#### IRAILAK 7, DOMEKA

Dotore.

#### IRAILAK 12, EGUBAKOITZA

The Fakeband.

#### IRAILAK 13, ZAPATUA

Joana Serrat.

#### IRAILAK 14, DOMEKA

Arcana Has Soul.

### DOAKO KONTZERTUAK

- Aurreko edizioetan moduan, oraingoan ere, Kulturateko areto nagusian izango dira kontzertuak.
- 20:00etan dira horiek guztiak.



Mundua ikusteko begirada desberdinak aurkeztuko dituzte hiru hizlariak. | ALEX EZPELETA

## Ostegun Bidaiariak, oraingoan Eskoriatzan

Etiopiako kontrasteak, bizikleta bidaiak eta urpeko kronikak izango dira hizpide irailean zehar

MAIALEN TORRES | ESKORIATZA

Aretxabaletan izandako arrakastaren ostean, Eskoriatzako Udalak, Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, herrira ekarri du Ostegun Bidaiariak ekimena.

Aretxabaletan jaiotako ideia "oso ona" iruditu zitzaion, Euskara Zerbitzuko arduradun Mari Karmen Arrietak azaldu duenez. Dena den, moldaketa txiki batzuk egin dizkiote jatorrizko formatuari. Batetik, epez aldatu dute, oporren atarian egin ordez, bueltakoan egitea erabaki dute: "Etxera itzuli bezain laster, beti egoten gara gogotsu datozen oporrak prestatzeko", azaldu du Arrietak. Bestetik, lehiaketa kutsua ezabatu nahi izan dute oraingoan,

esperientziei beraiei garrantzi handiagoa emateko.

Ekimenaren bidez, beste herritar batzuen esperientziak ezagutu, eta norberaren bidaiak antolatzeko ideia berriak sortu ahal izango dituzte hitzaldietara gerturaten direnek. "Agentziek antolatutako paketeak ez diren bidaiak" bildu dituztela dio Arrietak, "ohikoak ez direnak, baina, era berean, edonork egiteko modukoak".

Urrutira joan gabe, oso esperientzia aberatsak topatu dituzte herrian bertan, eta, datorren astean hasita, iraileko egunetan munduko hiru txokotako pasarteak izango dira entzungai, 19:00etan, kultura etxean.

Hainbat ikuspuntu

Miren Pagaldairi Etiopiarra egin dako bidaiak herrialdeari buruz zuen ikuspegia erabat aldatu zion. "Espero dut nire esperientzia ezagututa jendea ausartzea turismo gutxi dagoen lekuetara bidaiatzen", dio Pagaldaik.

Kepa Isasmendik eta Mikel Bingasek bizikletaz bidaiatzearen sekretuak argituko dituzte. Alde praktikoa eta teknikoaz gain, bizitako esperientziak ere ekarriko dituzte gogora.

Urpekaritza mundua eta jendea ezagutzeko bidea izan du Alex Ezpeletak azken sei urteetan. Era berean, deskonektatzeko ere balio dio. "Denborak balioa galtzen du ur azpian", azaldu du. Maldivetako marrazoez, Itsaso Gorrian urperatutako itsasontziak eta Maltako urpeko paisaiez hitz egingo du, besteak beste.

## Zortzi euskal eskultore handik euren lanak erakutsiko dituzte Arantzazun, Gandiagan

Materia, hutsunea, mezuak eta esanahiak bisitarien zain izango dira

M. T. | OÑATI

*Amets-kabi* izena jarri diote gaurtik aurrera Arantzazuko Gandiaga kultura-zentroan zortzi euskal eskultoreen lanak bilduko dituen erakusketari. 18:00etan hasiko da inaugurazio ekitaldia eta bertan izango dira erakusketan parte hartuko duten zortzi artistak.

Eduardo Txillida eta Nestor Basterretxea izen handien ostean, *Amets-kabin* batutako autoreak euskal eskulturgintzaren hurrengo belaunaldiaren erakusle dira. Euren lanetan, artearen lengoia eta naturako prozesuak uztartzen

dituzte, eta, hain zuzen, horregatik aukeratu dute Arantzazu erakusketa kokatzeko.

Zortzi izen, zortzi ikuspegi

Ricardo Ugarte da guztietan beterranoena. Pasaiarrak Euskal Eskola delakoaren paradigma hautsi zuen 1969an Donostiako Eskulturaren Nazioarteko saria irabazi zuenean. Bere lanetan, materiaren eta hutsuneen arteko erlazioarekin egiten du jolas.

Haren aldean, Iñigo Arregi ez da hainbeste aldentzen Euskal Eskolaren oinarrietatik eta inter-

pretazioa eta esanahi berrien sorrera ditu helburu.

Zortzietan gazteena Guillermo Olmo da. Mezuak eta esanahiak nahasten ditu espazioan, eta arteak ekarpen positiboak egiteko duen ahalmenean sinesten du.

Horiez gain, Jose Ramon Andak, Jose Zugastik, Iñaki Ruiz de Eginok, Iñaki Olazabalek eta Koldobika Jauregik ere erakutsiko dituzte eskulturak. Artista bakoitzak hiru lan erakutsiko ditu Gandiagan, eta eskulturak hantxe izango dira, bisitarien begiradek zentzua eman zain.

## 'El hijo de la novia' estreinatuko dute Bilbon, Mikel Laskurainekin

M. T. | BERGARA

Mikel Laskurain bergararra estatu mailako antzerki biran murgiltzear da egunotan. Eguean, hilaren 11, estreinatuko dute *El hijo de la novia*, Bilbo-ko Campos Eliseos antzokian, eta hilaren 14ra arte egongo da ikusgai. Garbi Losada zuzendariaren eskutik bihurtu zen euskarazko antzezlan Fernando Castets eta Juan Jose Campa-nellak zinemarako idatzitako gidoia. Laskurainek azaldu duenez, proiektuarekin hasi zirenetik planteatzen zen gero-ora antzezlanaz gaztelarera egokitze aukera, eta, izandako arrakasta ikusita, aukera hura gauzatzea erabaki zuten.

Laskurain eta Sara Cozar berriro ere elkarrekin arituko dira oholtza gainean, baina, oraingoan, aktore zerrenda berriarekin datorkigu *El hijo de la novia*. Izan ere, Juanjo Artero, Alvaro de Luna eta Tina Sainz izango dira lantaldean. Dagoeneko hainbat entsegu

egin dituzte, eta, Laskurainen hitzetan, "lantalde polita" osatu dute. "Hankak lurrean, baina esperantzarekin" begiratzen dio Laskurainek datorren urte eta erdiari, Artero, De Luna eta Sainz kartel-buru izanda Espainian oihartzuna lortzea errazagoa izango delakoan.

Estreinaldia Bilbon izateak, gainera, ilusioz betetzen du Laskurain, halako une erabakigarrian familiako eta lagunen babesa izango duelako.

Drama eta umorea

Istorioak drama eta komedia nahasten ditu eta ikuslea barre algaratik negargurara gidatzen du txandaka. Oholtza gaineko pasarteak egunerokotasunean oinarritzen dira, eta edonori gertatzeko modukoak izateak bihurtzen du antzezlan hain gertuko ikuslearentzat. Gurasoen ezkontza, emaztegiaren memoria galera eta familia-jatetxearen gainbehera dituzte oinarri gertakizunak.

30 urtean  
50.000 lagunek  
ikasi dute jadanik  
euskara gure  
100 euskaltegiatan

**aek**  
euskara praktikoa

**eman izena**

Esperientzia. Metodologia. Gertutasuna. Modulazioak. Efikazia.

Ikasleak | Matrika praktikoa | Berrabaketa | On line | Autokalkulazioa | Normalizazio gaitzak | Txiki, hantze gaitzak

**aek** | Berrabaketa | 673 200 100 | www.aek.eus | 946 464 000

**MATRIKULA ZABALIK, IRAILAREN 30A ARTE**

Bekak Arrasateko Udalaren laguntzarekin.

Jubilatuak, langabetuak eta ikasleak

**%50eko beharpena**

matrikula egiterakoan.

**DEBAGOIENKO AEK**

Garibai etorbidea 14, 3

Tel.: 943770369-607605879

facebook.com/debagoieneko.aek

twitter.com/debagoienekoAEK

**ORDUTEGIA:**

Goizez: 10:00-13:00

Arratsaldez: 17:00-20:00



Iraz, Arrasate Hiria torneoan, Mondra eta Aretxabaleta lehia. | GOIENA

**FUTBOLA**

## Arrasate Hiria eta Jose Luis Agirreren omenezkoa bihar

X.U. | ARRASATE

Bailarako futbol taldeek denboraldia prestatzen jarraituko dute asteburuan, eta horretarako bi hitzordu izango dituzte gurean: batetik, Mondrak Arrasate Hiria torneoan antolatuko du zapatuarekin, eta egun berean, Oñatin, Jose Luis Agirreren omenezko torneo jokatu du Aloña Mendik.

**Bergara eta Elorrio Arrasaten** Bihar, zapatua, Mojategin izango ditugu Bergara, Elorrio eta Mondra, hiruko torneo jokatzeko. 16:30ean hasiko dituzte partiduak, eta lehenengoan Elorriok eta Bergarak neurtu-

ko dituzte indarrak; ondoren etorriko da Mondraren eta Elorrioren artekoa (17:30), eta azkenik, Mondrak eta Bergarak jokatuko dute (sarrera 3 euro, eta zaleek talde zuri-moreko bazkide egiteko aukera izango dute).

**Oñatin, Audio**

Oñatiko mutilek, berriz, Jose Luis Agirreren omenezkoa jokatu dute bihar, Laudioen kontra (17:00). Joan den astean ibarreko ordezkari gehienak Bergara Hirian izan genituen. Aloñak, berriz, Bakion izan zuten lagunartekoa, eta 2-2 berdindu zuten.

**SASKIBALOA**

IMANOL SORIANO

## Puntako ikuskizuna Eskoriatzan

Laboral Kutxa eta Gipuzkoa Basket taldeen arteko partiduarekin ospatu zuten martitzenean Eskoriatza Kirol Elkartearen 50. urteurrena. Eskoriatzako harmailak saskibaloizaleek bete ziren donostiarren garaipenaz gozatzeko (67-52). Taquan Dean, Dani Diez, Cotton Iverson eta Orlando Johnson fitxaketak kantxan izan ziren.

**TXIRRINDULARITZA**

### Mikel Deuna saria jokatu dute bihar Oñatin

Gazte mailako eta bigarren urteko kadeteek Mikel Deuna saria jokatu dute bihar, zapatua. Ziklistek 88 kilometroko lasterketari egin behar diote aurre. Hala, Udana birritan pasatzeaz batera, txirrindulariek Atagoitiko maldak ere birritan gainditu behar dituzte. Unibertsitate parean izango da helmuga.

**ESKUBALOA**

### 90 epaile izango dira asteburuan Oñatin, proba fisikoak egiten

Euskadiko Eskubaloi Federazioak antolatuta, 90 epaile Oñatin batuko dira domekan, proba fisikoak egiteko helburuarekin. Hain zuzen, territorial mailan hasi eta Asobal mailarainoko epaileek egingo dituzte proba horiek. Zubikoan elkartuko dira goizean, eta berbaldiak ere izango dituzte Santa Ana antzokian.

XABIER URZELAI | ARETXABALETA

**D**uela 24 urte pilotari profesional modura debuta egin zuen pilotalekuan egin dugu hitzordua egungo Aspeko Kirol zuzendariarekin. Bergarako frontoian etxean bezain eroso dago Jokin Etxaniz (Bergara, 1970): "Ederra da frontoi hau, baina hona sasoiaren etortzen ez zena... sufritu egiten zuen". Aspaldi utzi zion zuri janzteari -binakako txapeldun izan zen 1992an- eta dagoeneko hamar-kada bat bete du kirol zuzendari moduan; denbora luzea da, esaterako, futboleko kirol zuzendari batek irauten duenarekin. **Hamarkada bat bai kirol zuzendari moduan. Orain arteko lana ona izan den seinale?**

Hori pentsatu nahi dut [Barre]. Ez dakit garbi zenbat urte darrazadan kirol zuzendari moduan, jokatzeari utzi eta kargu hau hartu aurretik urte batzuk egin nituelako Aspen zebiltzan inguruko pilotariak entrenatzen. Halako urteren batean kirol emaitza txarrak izan ziren, eta orduan eman zidaten kirol zuzendari moduan jarduteko aukera, eta orduan hasi nintzen pilotari guztiakin lanean. Uste dut 2003an hasi nintzela kirol zuzendari moduan, eta orduan, pilota arloan, gauza berria zen kirol zuzendariarena.

**Eta ze balorazio egiten duzu?**

Ona, duda barik. Gustuko dut nire lana, pilotariekin harreman zuzena izaten dut, eta pilotari moduan zelan eboluzionatzen duten ikusten dut. Ondoren kantxan lortzen diren emaitzak daude, eta hor ere ez dut kexarik.

**Beste leku batzuetan kirol zuzendariak presio handia izaten dute. Pilotan?**

Ez futboleko beste, adibidez. Dena dela, nahiz eta nire kargua kirol zuzendariarena den, erabaki asko nire ginetik daudenek hartzen dituzte: zeintzuek osatu behar dituzten bikoteak, zeinek jokatu behar duen txapelketa bat eta zeinek geratu behar duen kanpoan... Eta akaso horiek dira kritikak sorrarazten dituzten erabakiak. Nik pilotariak zelan ikusten ditudan esaten diet arduradunei, baina erabaki horiek beste batzuenak dira. Dena dela, pilotalekuan jendeak ze iritzi duen entzutea gustatzen zait.

**Horrek lagundu egingo du pilotarietan duzun harremanean.**

Bai, nik ez ditut lan-harremanak eta harreman pertsonalak bereizten; hau da, pilotari askoren laguna naiz. Euren entrenamenduetan prestatu, zuzenketa txikiak egin, motibatu... Bestelako erabaki batzuk hartu behar bantitu, seguruenik, eurekin dudana harreman bestelakoa izango litzateke.

**Askotan psikologo lanak egitea ere tokatuko zaizu.**

Bai, hori ere bai [Barre]. Askotan, gainera.

**Pilotari guztiak ez dituzte enpresa erabakiak ondo hartzen. Abuztu hasieran Retegi II.ak sare sozialetan zabaldu zuen bere haserre.**

Hor garrantzitsuena pilotariarekin berba egitea da. Pilotariari azaltzea zein den erabakia, eta zergatik hartu den erabaki hori.

**PILOTA**

Jokin Etxaniz | Aspeko kirol zuzendaria

# "Olaizolaren eta Irujoren mailako pilotariak besteak hobetzera derrigortzen dituzte"

Kirol zuzendari bergararrak hamarkada bat baino gehiago darama Aspe enpresako pilotariekin lanean

Jokin Etxaniz, martitzenean, ondo ezagutzen duen Bergarako Udal Pilotalekuan.

Gero, pilotariak hobeto edo okerrago hartuko du albistea, baina izan dezala informazioa. Azken batean, pilota bakarkako kirola da. Hau da, enpresa bateko ordezkariak dira denak, baina pilotari bakoitzak bere interes propioak ditu, eta baita konpetentzia handia ere.

**Ez da izango samurra 24 pilotariren sentimenduetan kudeatzea.**

Ez da erraza, ez. Esan dugun moduan, nork bere modura ikusten dituelako gauzak, eta interes propioak dituelako. Eta askotan, hori izaten da nire jarduna, eurekin egotea. Batzuetan, esaten didate gogorragoa izan behar nukeela pilotariarekin. Ez dakit ba...

**Entrenamenduetan Irujok, Barriolak, Xalok... Horiek badute zer zuzendu? Dagoeneko jakin beharreko guztiak jakingo dituzte, ala?**

Ez pentsa, beti dago zer zuzendu, gauza berriren bat probatzeko, kantxan hartutako ohitura txarren bat kentzeko... Halako pilotari bati ez diot esango frontoian zela kokatu behar duen, soberan daki hori, baina beti egoten dira zuzenketa txikiak. Konturatzen bazara, Aimar Olaizolaren oraingo jokoak ez du zerikusirik duela hamar urtekoaz. Gauza berriak probatzen ditu, pilota bera eboluzionatzen

dabil eta dena dakiela pentsatzen duen pilotariak ez du aurrera egingo.

**Olaizola aipatu duzu. Aspen, ordea, Irujo da izarra. Bi pilotari horiek sortzen dute ikusmin handiena. Baina ona da hori pilotarendako? Ez die gainontzekoei itzal egiten?**

Baliteke. Garbi dago bi pilotari horiek ikusi nahi dituela jendeak finaletan, bien arteko lehia. Beste final batzuek ere harrera ona izan dute, baina bi horiek elkartzen direnean... berezia da, bi jenio dira. Oraingo, goza dezagun euren jokorekin. Garbi dudana da Olaizolaren eta Irujoren mailako pilotariak besteak etengabe hobetzera derrigortzen dituztela. Eurak dira erreferente, eta besteek euren parean egon nahi dute. Urtean zehar tarteka lortzen dute euren parera iristea. Esaterako, Xalok sasoiaren dagoenean sekulako maila erakusten du, batzuek Irujo bera baino gustukoago dute. Baina kontua da bi horiek sasoiaren ez egonda ere sekulako mailan ibiltzen direla. Horrek bereizten du pilotari on bat eta puntako bat.

**Guztien artean, nork harritu zaitu gehien?**

Irujori ikusi izan dizkiot gauza batzuk kantxan... inori ikusi ez





XABIER URZELAI

dizkiotan. Retegi da txapel gehien dituen, baina niretako Irujo modukorik ez da egon. Akaso, pilotazale batek ondo baloratuko du Irujok jokaldi ikusgarri bat egiten duenean, baina lehenago kantxan egondakoa bazara... badakizu egin duen hori egitea ze gaitza den; ileak tente jarri izan dizkit behin baino gehiagotan.

**Eta gutxi dira hori lortzeko gaitasuna dutenak.**

Mikel Goñi zen beste jenio bat, dena zuen, dena. Eta badut pena hori, puntako beste pilotariekin batera maila onean gehiago jokatzen ikusi ez izana. Dena dela, gaur egun pilotan sekulako mailan jokatzen dabilta. Gure sasoiako materialaz gehiago jokatzen genuen goitik, tantoari eustera jokatzen genuen. Oraingo materialaz, berriz, abiadura oso handian jokatzen dute, eta oso maila ona behar da horretarako. Jendeak gustuko izango du pilotari bat edo beste, baina hor egoteko denek dute maila ona, garbi utzi nahi dut hori. Alde horretatik, norbait ze txarra den entzuten dudanean... ez ditut halako kritikak ulertzen. Akaso, ez da zure gustukoa izango, baina hor egoteko maila ona du, ez izan zalantzarik.

**Zure jardunean, noiz da egun txar bat?**

Enpresak pilotari bati kontratua ez luzatzea erabakitzen duenean; ez dira une gozoak izaten, hor sufritu egiten dut, batzuetan pilotari horrek oraindik maila polita eman dezakeela ikusten dudalako. Edo partiduren batean zure pilotaria kantxan sufritzen ikusten duzunean, egun txar bat duelako, esaterako. Atzetik zenbat lan egin duen jakin, eta ezinean dabilela ikustean.

**Eta kontrara, egun on bat?**

Polita da pilotari batek zelan hobetu duen ikustea, adibidez. Entrenamenduetan egindako lanak emaitzak ematen dituela ikustea. Noski, kirol emaitzak ere garrantzitsuak dira. Hunkitu egin nintzen, adibidez, Irujok eta Barriolak bikoteka irabazitako azken txapelaz. Banekielako Irujok ordura arte zenbat sufritu zuen, eta Barriolak inork baino gehiago merezi zuen txapel hori irabaztea.

**Titinek hutsune handia utziko du, bai pilota munduan, eta baita zuen enpresan ere.**

Zalantza barik. Oso harrera ona izan du beti Titinek, jendea eraman du beti frontoira. Harekin badakizu ia beti oso maila politean ibiliko dela, nahiz eta bost par-

**"Pilotariekin psikologo lana egitea egokitzen zait askotan"**

**"Pilota bakarkako kirola da; bakoitzak interes propioak izaten ditu"**

tidu jarraian jokatu. Pilotazaleendako pilotari ikusgarria izan da; harekin ez zegoen aspertzirik. Bai, hutsune handia utziko du enpresan ere.

**Etxera etorrira, Debagoienean bi pilotari profesional ditugu, biak Aspen. Aitor Mendizabal eta Beñat Rezusta.**

Aitorrek ezustea hartu zuen gure deia jaso zuenean, aukera hori izango ez zuela sinesten hasita zegoelako, eta heldutasun handiz etorri zen. Pilotari gogorra da, nahiz eta gorpuzkera aldetik ez den handia. Askok hobetu du afizionatu mailatik hona. Lehen baino gehiago sartzen da jokoan, eta pilota bizi mugitzen du. Zer bait

**"Irujo modukorik ez dut ikusi; Mikel Goñi zen maila horretako beste jenio bat"**

**"Titinek hutsune handia utziko du pilotan orokorrean, eta baita Aspen"**

esatearren, gantxoia gehiago lantzea geratzen zaio, eta horretan dabil, gainera. Baina bestela, oso konpletoa da. Akaso, pilota goitik dabilenean sufritzen du gehien, baina kontrara, nerbio galanta du, eta etekina ateratzen dio nerbio horri. Egia da sasoi batean ez dagoenean nerbio horrek apur bat behera egiten duela, baina normala da, denei gertatzen zaie hori. Nik uste dut pilotazaleek gustuko dutela Aitorrek jokatzera erakusten duen amorrua.

**Eta, urte askoren ondoren, Beñat Rezustak bete du Bergaran zुक utzitako hutsunea. Norbaitek pentsatuko zuen herrikideak izanda errazago izan duela, baina profe-**

**sional mailan hasi eta azkar uxatu du ideia hori.**

Beñatek afizionatu mailan meritu galantak egin zituen profesionaletara salto egiteko; gainera, kategoria horretan nagusitasun handia zuen atzealdean. Debuta egiteko aukera eman zioten, eta ondo aprobetxatu du aukera.

**Zaila da egin duen urtea hobetzea.**

Oso zaila, urte ikaragarria egin du. Txapelak irabazi ditu, eta hainbat jaialditan erakustaldi ederrak egin. Gaztea izanda ere, oso serioa da lanean, eta etengabe ahalegintzen da hobetzen. Aitorrek bezala, oraindik badu zer hobetu. Esaterako, eskuin eskuaz lan handia egiten dabil, baina berak uste duena baino kolpe hobea du esku horrekin. Rezustak badu zer berezi bat, pilotari gutxi dutena; harribitxi bat da. Hala ere, hark ere bide luzea du egiteko, eta hemen ezin da inoloz geratu. Gorenera iritsi bakarrik ez, maila horretan mantentzea da gaitzena. Eta horregatik dute halako meritua lehen aipatutako Irujoren edo Olaizolaren mailakoek; beti daude hor, sasoi batean egon barik ere.

**Hasiberrian, profesionaletara salto egite hutsarekin aurrerapauso egiten da?**

Bai, niri ere gertatu zitzaidan. Debuta egin aurretik afizionatu batzuekin jokatzen nuen pilotan, eta ez zegoen modurik eurei irabazteko. Eta debuta egin eta hiru hilabetera ostera ere jokatu nuen afizionatu horien kontra, enpresan ezer esan barik [Barre]. Bada, orduan erraz irabazi nien, denbora laburrean aurrerapauso handia egin nuen.

**Konturatu barik, beste maila batean zaude...**

Bai, erritmo handiagoan jokatzen duzu, entrenamenduak zorrotzagoak dira... Pilotari moduan aldatu egiten zara. Eta hauei ere gauza bera gertatuko zaie, nahiz eta batzuetan ez den bat-batean igartzen.

**Harrobiari helduko diogu; zelan dago egoera Debagoienean?**

Nik erantzun baino hobe da galdera hori bertako pilota eskolakoei egitea. Semeak pilotan dabilta, badut harreman apur bat, esaterako, Bergarako pilota eskolarekin, baina ez naiz aproposena hori erantzuteko. Reyesek eta konpainiak urteak daramatzate lanean, Oñatin ere indarrez hasi dira ostera ere lanean... Imaginatzen dut, beti bezala, ekonomiki dirurik ez izateak asko baldintzatuko diela lana: txapelketak antolatzeak aurrekonturik eza, gaztetxoekin jarduteko entrenatzaile falta...

**Pilotan, ze punturaino laguntzen diete Aspek eta Asegarcetek harrobiko klubei?**

Egia da gure pilotariak herriko klubetatik datozela, baina ezinezkoa da klub guztiei laguntzea, are eta gutxiago gauzak gurean ere zelan dauden ikusita. Egin izan ditugu klubekin gauzak, torneoak... baina oso zaila da. Gainera, uste dut lan hori egiteko federazioak daudela. Guk pilotari profesionalak batzen ditugu, eta hona iristea da, hain zuzen, gazteek duten ametsa.

Eider Etxeberria | Ekintzailea

# "Egunerokoan ez gaude ohituta autonomoak izatera"

GARAZI AUESTA | ARRASATE

Eider Etxeberria (Arrasate, 1994) gaztea eta ekintzailea da. Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza graduako ikaslea da Mondragon Unibertsitatean eta geldi egoten ez den pertsona horietakoa ere bada. Buruan beti dabil ideia eta proiektu berriekin bueltaka, eta ahal duen guztietan horiek aurrera ateratzen saiatzen da. Unibertsitatean Want S. Coop. enpresa sortu du, eta, agenda estua izan arren, tarte bat egin dio Goieneri bere agendan.

**Eider, nolatan erabaki zenuen LEINN gradu ikastea?**

Bigarren batxilergoan nengoen, inguruko guztiek euren bizitzak antolatuta zeuzkaten, bazekiten zer ikasi, zer egin. Ni balduta nengoen, argi bainekukan gustuko zerbait ikasi gura nuela. Egia esan, LEINN ikastearen ideia aitak eman zidan, hark Oñatin hau ikasten ziharduten gazte batzuen gurasoak ezagun baitzituen. Han eta hemen galdetza ibili nintzen, baina, azkenean, hartu nuen erabakia.

**Zer azpimarratuko zenuke ikasketak hauetatik?**

Esango nuke oso ikasketa praktikoa direla. Unibertsitateko lehen egunean iritsi eta bi talde sortzen dira. Eta jarraian esaten dizute talde hori zure lau urterako taldea izango dela, enpresa bat sortu behar duzula horiekin, irabaziak lortu... Hasiera oso berezia da, ez gaude ohituta hainbesteko autonomia izatera.

**Zergatik diozu hori?**

Gaur egungo hezkuntzak eta kulturak hori erakusten digutelako. Ohituta gaude beti entzutera: "Egin hau, egin bestea". Nik anai-arreba gazteagoak ditut, eta hori oso argi ikusten dut. Eskolan ez diete uzten ezer egiten, ez diete aukeratzen uzten eta ez dute ikusten zer gustatzen zaien benetan, ez dago esperimintatzeko espaziorik. Eta orduan, esperimintatzeko aukera ematen zaizkenez ez dute nahi izaten: "Esan zer egin", "ez dakit zer egin, eta orain zer egingo dut?".

**Zuk ere hori galdetu izan duzu LEINNeko ikasketetan?**

Noski! Baina hango erantzuna beti da: "Hara, egin zuk ikusten duzuna". Eta orduan zalantza mordo bat datoz: "E? Nik? Nola egingo dut?". "It's up to you, zuk egin. Zuk ikusi eta probatu", esaten dizute. Kolpea zeuk bakarrik

hartu behar duzu, inork ez zaitu horra bideratuko.

**Hezkuntzaz ari garela, orain arlo horretako proiektu batekin zabilta esku artean.**

Hala da; enpresan, *Aldatzen* proiektua sortu dugu, eta ni horako alor batean nabil buru-belarri, *Umeak aldatzen*-en. Ume eta gazteekin gizartearentzako garrantzitsuak diren gaiak lantzea dugu helburu eskola edo udalekin elkarlanean. Horretarako, klase edo saio dinamikoak eta parte-hartzaileak sortzen ditugu.

**Eta zeintzuk dira jorratzen dituzuen gaiak?**

Beharretara moldatzen gara. Adibidez, Eskoriatzako Udalarari galdetu genion ea herri moduan ze behar zeuzkaten. Haiek kontatu ziguten ume eta gazteek ez zutela herria errespetatzen: lorategiak eta zaborrontziak apurtzen zituztela... Orduan, guk jardunaldi batzuk antolatu genituen eurekin gai horiek lantzeko. Bailaratik kanpo Legazpin ere egin dugu proiektua, eta Zarautzen zerbait lotuta daukagu irailetik aurrera lantzeko. Bagoaz poliki-poliki.

**Nolakoak izan dira emaitzak?**

Gauzek bere jarraipena behar dute, luzeagoak izan behar dira, ezin duzu pentsatu behin zerbait eginda aldaketa bat sortuko duzunik. Gure kasuan, saioak egin eta gero irakasleekin biltzen gara gauzak nola joan diren ikusteko, eta esan izan digute aldaketa igarri dutela... Baina denbora luzeagoa behar da.

**Denboran aurrera begiratzen badugu, nola ikusten duzu zure burua?**

Karrera bukatuta eta nire taldearekin lanean. Gauzak gaizki egon arren, aldatu egin nahi ditut, eta taldearekin egin nahi dut hori. Hamalau gara *Want* kooperatiban, eta denok gara beharrezkoak aurrera egiteko. LEINNeko lehen promozioiko talde batek batera jarraitzen du, TZBZ taldeak, eta nik erreferente moduan ditut.

## MARRA AZKARREZ

**Zure herriko txoko maiteena:**

Udalatx mendia.

**Postre gustukoena:** Izozkia.

**Irakurritako azken liburua:**

Ez zitzaidan batere gustatu eta ez nuen amaitu, *50 shades of Grey*.

**Esaera gustukoena:** Ez gara ausartzen ez gauzak zailak direlako, gauzak zailak dira ausartzen ez garelako.

**Bizi izateko leku bat:** Deba.

**Ametz bat:** Aldatzen proiektua bailarako eskola guztietan egotea.



Eider Arrasateko Arizmendi eskolako atean.



## ASTEA GOIENAN



## Leintz Gatzagako jaiak, telebistan

Gaur, egubakoitza, emango zaie hasiera Leintz Gatzagako Andramaixa jaiei. Asteburu osoan eta astelehenean ere egongo da zerekin gozatu herrian, eta, hala, egiten diren ekitaldiak telebistaz ikusi ahal izango dituzue astelehenean. **'Debagoiena zuzenean'** Astelehena, 20:00



## Ikerne Badiola 'Harira' saioan

Kultura, Gazteria eta Kirol diputatu Ikerne Badiola eguazteneko *Harira* saioan izango da. Tabakaleraz, Zinemaldiaz, Artelekuz... eta, gurera etorrita, Bergarako UNEDen egoeraz eta egoitza berriaren proiektuaz jardungo dute, besteak beste. **'Harira'** Eguaztena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

## EGUBAKOITZA, 5

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Ikusmira  
12:50 Jaiak: Debagoieneko jaiak  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Amaia DJ  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Kontzertua  
17:30 Ur eta lur  
18:00 Ibilean  
18:30 Berriak  
19:00 Ikusi irratia  
19:45 Ikusmira  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Erreportajea  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Kontzertua  
00:00 Debagoiena zuzenean

## ZAPATUA, 6

10:00 Amaia DJ  
10:30 Elkarrizketa  
11:00 Debagoiena zuzenean  
11:55 Astea iruditan  
12:00 Udako ikastaroak  
12:30 Kontzertua  
13:00 Onein  
13:30 Ur eta lur  
14:00 Amaia DJ  
14:30 Erreportajea  
15:00 Debagoiena zuzenean  
15:55 Astea iruditan  
16:00 Udako ikastaroak  
16:30 Zestapunta  
17:30 Ibilean  
18:00 Kontzertua  
18:30 Artearen ibilbidea  
19:00 Debagoiena zuzenean  
19:55 Astea iruditan  
20:00 Izarrak plazara  
21:00 Amaia DJ  
21:30 Kontzertua  
22:00 Debagoiena zuzenean  
22:55 Astea iruditan  
23:00 Kontzertua  
00:00 Amaia DJ  
00:30 Ibilean

## DOMEKA, 7

10:00 Debagoiena zuzenean  
10:55 Astea iruditan  
11:00 Kontzertua  
11:30 Amaia DJ  
12:00 Zestapunta  
13:00 Debagoiena zuzenean  
13:55 Astea iruditan  
14:00 Udako ikastaroak  
14:30 Onein  
15:00 Artearen ibilbidea  
15:30 Kontzertua  
16:00 Amaia DJ  
16:30 Debagoiena zuzenean  
17:25 Astea iruditan  
17:30 Elkarrizketa  
18:00 Erreportajea  
18:30 Ibilean  
19:00 Udako ikastaroak  
19:30 Izarrak plazara  
20:30 Debagoiena zuzenean  
21:25 Astea iruditan  
21:30 Kontzertua  
22:30 Ibilean  
23:00 Debagoiena zuzenean  
23:55 Astea iruditan  
00:00 Artearen ibilbidea  
00:30 Kontzertua

## ASTELEHENA, 8

12:00 Debagoiena zuzenean  
13:00 Erreportajea  
13:25 Zorion Agurrak  
13:30 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Kontzertua  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Udako ikastaroak  
17:30 Ur eta lur  
18:00 Erreportajea  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Kontzertua  
19:30 Harmailatik  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Harmailatik  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Kontzertua  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## MARTITZENA, 9

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Harmailatik  
13:00 Zestapunta  
13:25 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Harmailatik  
15:30 Onein  
15:55 Zorion Agurrak  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Amaia DJ  
17:30 Artearen ibilbidea  
18:00 Erreportajea  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Harmailatik  
19:30 Udako ikastaroak  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Udako ikastaroak  
23:00 Debagoiena zuzenean  
23:30 Berriak  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## EGUAZTENA, 10

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Erreportajea  
13:00 Elkarrizketa  
13:30 Harmailatik  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Udako ikastaroak  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Harmailatik  
17:30 Zestapunta  
18:30 Berriak  
19:00 Udako ikastaroak  
19:30 Harira  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Harira  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Udako ikastaroak  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## EGUENA, 11

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Harira  
13:00 Erreportajea  
13:30 Ur eta lur  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Harira  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Kontzertua  
17:30 Erreportajea  
18:00 Harira  
18:30 Berriak  
19:00 Udako ikastaroak  
19:30 Amaia DJ  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Harira  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Harira  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## ARRASATE IRRATIA


## Asteko gainbegiratu zapatuan eta domekan 10:00etan hasita

Astean zehar irratian izan diren elkarrizketen bilduma entzun ahal izango da asteburuan. Kultura teknikari Karmelo Alberdik Kulturare Akustikoa programari buruz hitz egingo du eta kontzertuen berri emango du; Malen Ruiz de Azua atleta arrasatearra ere elkarrizketatuko dute.

## En Tol Sarmiento taldearen diskoa zozketatuko da

Gazteen artean modan dagoen En Tol Sarmiento taldearen *Hacia la luna* diskoa zozketatuko da egubakoitzean Arrasate Irratian. Zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera. Animatu, hartu parte zozketan eta zorte on!

## OROIGARRIA



## Jesusa Altube Zabarte

-Goian bego-



*Lasai joan zara leku lasaiera maite gaituzula eta maite zaitugula jakinda. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

—  
Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 6an, 19:30ean, agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldeaz aurretik eskerririk asko.

—  
Zure ilobak: Amaia eta Jesus, Iñaki, Eli, Miren eta François, Edurne eta Pabli, Edurne eta Andreu, Eneko eta Maixabel, Garbiñe, Nagore eta Inigo, Jaione eta Iñaki, Mikel eta Ana, Aitor eta Vanesa, Jon eta Maider.

Oñatin, 2014ko irailaren 5ean.

## OROIGARRIA

## Asier Mendia Alonso




*Egoera samin honetan gure maitasuna eta besarkada beroena familiari. Aurrerantzean ere ondoan bidelagun izango gaituzue.*



Antzuolako eskola eta haur eskolako irakasle, guraso, ikasle eta langileak. Antzuolan, 2014ko irailaren 5ean.

## URTEURRENA

## Doroteo Igartua Erostarbe



1930-09-08 / 2013-08-14

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 6an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko irailaren 5ean.

## URTEURRENA

## Julia Jauregialtzo Alzelai



Oñatin hil zen 2013ko irailaren 7an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 6an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko irailaren 5ean.

## URTEURRENA

## Arantxa Inza Biain



1950-07-04 / 2013-08-09

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 7an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Aldez aurretik, eskerririk asko gerturatzaren zaretan guztioi. Oñatin, 2014ko irailaren 5ean.

## URTEURRENA

## Mari Carmen Muruamendaraz Bastarrica



Arrasaten hil zen 2013ko irailaren 9an, 70 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 7an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2014ko irailaren 5ean.

## ESKER ONA

**Tere Bedia Arregi**

Eduardo Roaren alarguna



Arrasaten hil zen 2014ko abuztuaren 29an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, irailaren 7an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2014ko irailaren 5ean.

## ESKER ONA

**Luis Mari Elorza Zulueta**

Ortzi erretegiakoa




2014ko abuztuaren 16an hil zen.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

*Eskerrik asko bidelagun eta babes izateagatik  
Eskerrik asko erakutsi eta eman diguzunagatik  
Eskerrik asko bihozko aitaita izateagatik**Ondo ibili!*Emazte, seme-alaba eta bilobak.  
Bergaran (Angiozar), 2014ko irailaren 5ean.

## ESKER ONA

**Fernando Muruamendiaraz Urkiola**

Arrasaten hil zen 2014ko abuztuaren 4an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2014ko irailaren 5ean.

## ESKER ONA

**Vicenta Agirre Ibarrodo**

2014ko abuztuaren 27an hil zen, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

*Erreza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa ordea zu ahaztea.  
Beti gurekin izango zara.*

Bergaran, 2014ko irailaren 5ean.

## ESKER ONA

**Vicente Unzurrunzaga Lazpiur**

Benita Baquedanoren alarguna



Bergaran hil zen 2014ko abuztuaren 30ean, 98 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2014ko irailaren 5ean.

**Arkaitz eta Itxaso**

Arkaitz Lizarralde eta Itxaso Suarez irailaren 6an Oñatiko udaletxean ezkonduko dira eta bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute. "Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu zuen egunean! Musu handi bat lagunerekin eta familiarekin partetik!".

**Sandra eta Juan Carlos**

Sandra eta Juan Carlos zapatuan, irailaren 6an, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Egun zoriontsua igaro dezazuela. Musu handi bat, familiarekin eta lagunerekin partetik".

**Cesar eta Larraitz**

Cesar Azkarate eta Larraitz Arriolabengoa orain dela hamar urte ezkondu ziren (irailak 4). "Zorionak, aitatxo eta amatxo!". Oihanen eta Hegoiren partetik.

**Yolanda eta Ruben**

Yolanda de la Cruz eta Ruben Caballero arrasatearrak zapatuan, abuztuaren 30ean, ezkondu ziren Itxaropenaren Ama Birjinaren elizan. "Zorionak, bikote! Egun zoriontsua igaro genuen, baina oso azkar pasatu zen. Disfruta ezazue eztei-bidaian topera, buelta gogorra izango da-eta. Maite zaituztegu. Familiarekin eta lagunerekin partetik. Musu potoloak".

**Anjelika eta Jesus Mari**

Anjelika Axpek eta Jesus Mari Martinezek urrezko ezteiak ospatu zituzten abuztuaren 1ean. "Zorionak 50 urte elkarrekin pasatzeagatik! Oso zoriontsu izan zaitezela hemendik aurrera ere. Musu handi bat, familia guztiarekin partetik, ilargiraino eta bueltan!".

**Jonatan eta Noelia**

Jonatan Sanchez eta Noelia Mellado abuztuaren 16an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Musu handi bat, zuen familiarekin eta lagunerekin partetik".

**Paula eta Xanti**

Paula Zaloñak eta Xanti Guridik urrezko ezteiak ospatu zituzten irailaren 3an. "Zorionak bioi, etxekoekin eta, batez ere, iloben partetik. Segi horrela! Askok maite zaituztegu".

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:  
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55  
BERGARA**HILDAKOAK****Antonio Mateos Nogales.**  
Bergaran, uztailaren 24an. 83 urte.**M. Magdalena Alberdi Lizarralde.**  
Bergaran, uztailaren 25ean. 89 urte.**Concepcion Epelde Azkoitia.**  
Bergaran, uztailaren 27an. 60 urte.**M. Concepcion Zubiaurre Izagirre.**  
Aretxabaletan, uztailaren 30ean. 91 urte.**Bizente Mendibil Aiausti.**  
Bergaran, uztailaren 31n. 85 urte.**Juanita Sarasketa Amuskibar.**  
Bergaran, abuztuaren 4an. 84 urte.**Fernando Muruamendiaraz Urkiola.**  
Bergaran, abuztuaren 4an. 79 urte.**Bernabe Errasti Ibartzabal.**  
Eskoriatzan, abuztuaren 7an. 104 urte.**Jesus M. Aranes Usandizaga.**  
Bergaran, abuztuaren 8an. 49 urte.**Garbiñe Erdoiza Uribarrena.**  
Oñatin, abuztuaren 11n. 81 urte.**Valentin Herran Salazar.**  
Aretxabaletan, abuztuaren 13an. 83 urte.**Rosario Jimenez Calvo.**  
Bergaran, abuztuaren 15ean. 90 urte.**Luis Mari Elorza Zulueta.**  
Bergaran, abuztuaren 17an. 81 urte.**M. Karmen Azpizu Azpillaga.**  
Bergaran, abuztuaren 17an. 86 urte.**Inazia Arregi Arantzeta.**  
Bergaran, abuztuaren 17an. 87 urte.**Bizenta Agirre Ibarrodo.**  
Bergaran, abuztuaren 17an. 94 urte.**Jesusa Altube Zabarte.**  
Oñatin, abuztuaren 24an. 84 urte.**Tere Bedia Arregi.**  
Arrasaten, abuztuaren 29an. 87 urte.**Bizente Unzurrunzaga Lazpiur.**  
Bergaran, abuztuaren 30ean. 98 urte.**M. Rosario Atxotegi Berasaluze.**  
Oñatin, irailaren 2an. 82 urte.**Carmen Aranburuzabalaza Azkoaga.**  
Eskoriatzan, irailaren 3an. 105 urte.





GOIENA

**BERGARA Antonio Lizana**

Antonio Lizana saxofoi-jotzaileak kontzertua egingo du Bergaran. Bakarka hainbat lan egin ditu. Era berean, beste musikari batzuekin kolaborazioak egin ditu: besteak beste, Miguel Rios, Chambo, Raimundo Amador, David de Maria eta Nuria Fergorekin. Bergaran beste hainbat musikariren laguntza izango du. Bihar, zapatua, Seminarioan, 20:00etan.



ANDALUCIAINFORMACION

keta antolatu du. Presoen eta iheslarien aldeko aldarrikapenak agertu beharko du argazkian eta pertsona bakoitzak bi erretrato bidali ahal izango ditu, gehienez: [ernaiarrasate@gmail.com](mailto:ernaiarrasate@gmail.com) helbidera, irailaren 15a baino lehen. Irailaren 15era arte.

**OÑATI 'Batetik bestera'**

Gaztelekutik egin dute deia. Oporretako argazkiak eskatzen dituzte: originalak eta freskoak. Aurreztutako lanekin erakusketa egingo dute irailean, eta ikusleen botoekin aukeratu dituzte bi argazki onenak. Irailera arte, gaztelekuan.

**ERAKUSKETA**

**BERGARA Iñaki Olazabalen eskulturak**

Iñigo Olazabalen lanak bildu dituen erakusketa ikusteko azken egunak dira hauek. Domekara arte egongo da zabalik, Aroztegin: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era; bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta, etzi, domeka, 12:00etatik 14:00etara. Domekara arte, Aroztegi aretoan.

**ARETXABALETA Pintura taldekoen lanak**

Marije Carrilloren aginduetara pintura taldean egon diren emakumeen lanak ikusgai ipini dituzte Arkupen. Irailaren 30era arte, Arkupen.

irailaren 7an, itxiko dute. Bada, aste bukaeran soroslea egongo da, 15:00etatik aurrera. Domekara arte, Usakon.

**BERGARA Danborradako entseguak**  
Hasi dituzte San Martin jaietako danborradetarako entseguak. Hilaren 8an, 9an eta 10ean egingo dituzte, Seminarioan: umeez 19:00etan eta helduek 20:00etan. Gerrikoa beharrezkoa da. Aipatutako egunetan, Seminarioko karpan.

**BERGARA Kafe Konpon**  
Etxean apurtuta dagoen edozein tresna konpontzeko aukera ematen duen tailerra, San Joxepe elkartearen eskutik. Irailaren 10ean, San Joxepen, 16:00etan.

**OÑATI Ate irekiak kiroldegian**

Kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzuetako eskaintzak ezagutzeko eta probatzeko hastapen saioak egingo dituzte hilaren 8tik 12ra. Ostean, hilaren 15ean hasiko dituzte ikastaroak. Irailaren 8tik 12ra, Zubikoa kiroldegian.

**ARRASATE Ate irekiak kiroldegian**

Aukeak gertu du ikasturte berri-rako kirol eskaintza: *nordwalking*, *spinning*, *pilatesa*, *hipopresiboak*, *aquarunning*... Horiek guztiak probatzeko hastapen ikastaroak egingo dituzte irailaren 9an, 10ean eta 11n. Interesatuak kiroldegian bertan eman behar dute izena. Doako saioak dira. Ikastaroetan lekua ziurtatzeko aldeztu

izena eman daiteke Musakolan bertan edo 943 77 16 77 telefonora deituta. Irailaren 9tik 11ra, Musakola kiroldegian.

**OÑATI Aste bukaera Pirinioetara**

Asteburu osoko mendi irteera antolatu du Aloña Mendiko mendi sailak irailaren 13-14rako. Bi egunotan Pirinioetan ibiliko dira, Monte Perdido inguruetan: zapatuan Gavarnie-Goriz ibilaldia egingo dute; eta domekan, Goriz-Monte Perdido-Ordesa. Kranpoiak eramatea derrigorrezkoa da. Interesatuak hilaren 9a baino lehen eman behar dute izena Aloña Mendi tabernan. Autobusa 06:00etan irtengo da. Irailaren 9a arte, Aloña Mendi tabernan.

**HITZALDIAK**

**ARRASATE 'Nazismoa Ukrainan eta herri-erresistentzia Donbassen'**

Asier Blas politologia Donbasera joango da irailean Askapenerekin batera. Arrasaten, brigada aurkeztu eta Ukrainaz, nazismoaz eta herri-erresistentziaz egingo du berba. Irailaren 10ean, Irati tabernan, 19:00etan.

**LEHIAKETA**

**ARRASATE Argazki lehiaketa**

Ernaik euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko argazki lehiaketa antolatu du. Presoen eta iheslarien aldeko aldarrikapenak agertu beharko du argazkian eta pertsona bakoitzak bi erretrato bidali ahal izango ditu, gehienez: [ernaiarrasate@gmail.com](mailto:ernaiarrasate@gmail.com) helbidera, irailaren 15a baino lehen. Irailaren 15era arte.

**Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goiengan!**


**UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA**  
**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!**

Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak)

Baita hemen ere: [f udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) [t udakoargazkiak](https://www.twitter.com/udakoargazkiak)



KABIER ATXA ZUGASTI, 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARRATZ LASKURAIN, 2013ko bigarren sariaren irabazlea.



MHELZ ZANORIA, 2013ko hugarren sariaren irabazlea.

**Har ezazu parte!**

**Oinarriak\***

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleek aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate.
- Beste inon argitaragarriak izango dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

**HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!**

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez:** [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez:** [facebook.com/udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

\* Oinarri guztiak: [ttiki.com/70956](http://ttiki.com/70956)

**Sariak**

**1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik. 14,2 megapixel / Full HD bideo-grabazioa / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatzeko sistema, 11 puntukoa. ISO 100-3200 sensibilitatea. Integratutako edizio funtzio ugari.



**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo aforia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.  
**3. saria:** bi pertsonarendako afori edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jaetxean.  
**Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.  
**Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

**ANTOLATZAILEA:**



**LAGUNTZAILEAK:**





# goiena

2014-09-05

BUKATZEKO

## Berriro zutik, duela 4.000 urte bezala

- ▶ Dolmenen Ibilbideko Arribiribilletako menhirra jatorrizko toki eta posizioan dago eguaztena ezkerro
- ▶ Elosua-Soraluze Estazio Megalitikoa balioan jartzeko egitasmoaren barruan egin dute ekimena

MIREN ARREGI | BERGARA

Hiru metro eta erdi luze eta metro eta erdi zabal da Arribiribilletako menhirra; historiaurreko gizakiak duela 4.000 urte ipini eta urte askotan lurrean erorita egon ostean, berriz ere zutik ipini dutena. Arribiribilletakoa menhir bat da, monolito bat, trikuharri baten zatia izan zitekeela pentsatu izan bada ere: "Menhirrak mugarririk gisa erabiltzen ziren, giza talde batek lurralde propioa zuela erakusteko. Normalean, komunikazio bideetan kokatzen dira", dio Aranzadiko arkeologo Manu Zeberio. Hain zuzen ere, Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Arkeologia Sailak egin du menhirraren gaineko ikerketa, eta hori da ondorioetako bat. Hori, eta duela 4.000 urte ingurukoa dela; Brontze Arokoa.


### Dolmenen Ibilbidea balioan

Azterketak egin ostean, beraz, menhirra jatorrizko toki eta posizioan ipini du Aranzadi Zientzia Elkartek: "Trikuharrien Ibilbidea balioan ipintzea da helburua", dio Manu Zeberio, indusketen arduradunak. Eta gaineratu du: "Horretarako, ingurua ezagutu behar da eta ikerketak egin behar dira".

Dolmenen edo Trikuharrien Ibilbidea izena eman zion Elosua



Arribiribilletako menhirra lurrean, zutik ipini aurretik. | MA



Hondeatzeko makina, menhirra jasotzen. | MA



Aranzadiko kideak (goian, erdian, Manu Zeberio arkeologoa) eta menhirra zutik. | MA

-Soraluze Estazio Megalitikoari Aita Jose Migel Barandiaranek -hark aurkitu zuen Arribiribilletako menhirra 1921. urtean-: Karate-Hirukurutzeta mendilerroan monumentu megalitikoaren kontzentrazio handia dago; hogei kilometroko ibilbidean hogei inguru, trikuharri, tumulu eta menhirren artean. Euskal Herriko arkeologia orokorrari dagokionez garrantzitsua da han dagoena.

### Esualdeen artekoa

Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako udalek sustatuta eta Diputazioaren laguntzarekin ipini da zutik Arribiribilletako menhirra; hain zuzen, hiru udalerririk hartzen ditu Estazio Megalitikoak.

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



### Enpresak sortzeko

zango dira 50 urte Ormaiztegiko gure etxean lehen gas sukaldeak sartu zela. Zumarragan egin, Esteban Orbegozoren enpresan. Sasoi hartan enpresa asko garatu zen Goierri: Orbegozo bera, Patricio Echeverria, Aristrain, gure familiaren karrozeria...

Halako batean Orbegozo familiak enpresa eskualdatu zuen eta hainbat talde pasatu ondoren iritsi da Arcelor Mittal taldearena izatera. Mittal jaun indiarra munduko aberatsenetakoa da eta egunotan jakinarazi du Zumarragako lantokia sei hilabetez itxiko duela, errentagarria ez delako. Orbegozori Zumarraga inporta zitzaion, Mittali bate-re ez. Eta arazoa da munduan mittalak direla nagusi eta gurean orbegozorik ez dela sortzen. Zenbat gaztek 25-30 urte bitartean nahi du hemen enpresaburu izan? Baldintzak jarri ditugu nahi hori uxatzeko eta gure industria ehunaren zaharberritzea kolokan dago.

Bakarka ez bada, kooperatiban saiatu beharko genuke. Beti da egitasmo bat egingarriago arriskuak partekatuta eta lankidetzan jardunda. Baina kooperatibak ere zaharberrituaren premian daude, aje galantak gainditu beharrean. Ea urriko kongresuak zer ematen duen. Nik oraindik sinistu nahi dut.

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK  
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxe: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net